


enfeiu carrean

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO EUSKAL KULTURA MINTEGIA



ERRE DA' AKZIOA

miguel angel elkoroberezibar

ander ros

patxi aiartza

mikel euba

ENSEIUCARREAN
658 Posta Kutxa
480080 BILBO

Inprimategia:

EKEKEI inprimategia.

Fotokonposaketa:

EKEKEI autoedizioa.

Zabalkundea:

ZABALTZEN.

L.G. BI - 6001986

Aurkibidea

Aurkibidea	1
Adiotoriala	2
Mintzodun gizaki agurgarri hori ez zaitez isil. <i>Annette Maxime</i>	3
Euskal Hizkuntza eta bere tipologia. <i>Rudof P. G. de Rijk</i>	13
Edizioak zertan diren. <i>Roberto Manjón</i>	33
Erabili, Esan eta Eritzi Mendebaldeko bizkaieraz. <i>Iñaki Gaminde</i>	49
Joannes Leizarraga eta XVI. Gizaldiko Euskal Protestantismo Barriztatua. <i>Josu Penades</i>	81
Izenak eta adjetiboak automatikoki ateratzeko programa: Bideak eta oztopoak. <i>Jon Egidazu</i>	113

Adiotoriala

Bilbon, 1988-XI-28

Ena Ensein lagtana.

Despedidaren ordua iritsi zaigu maitea. Ez gara baina, Trasteak elkarri botatzen hasiko, Trapeu zikinak euren lekutan utziko ditugu. Ametak ederrak, baina asteak ustel mertatu zaizkigu. Ez gara orruduna nor den asmatzen jarriko, errot trinkia da geurea. Zergatik ez digute elkarrekin segitzen utzi maitea? Zergatik beti familia tartean sartu beharra? Ez trekeok dena jakin, dena jakin nahi, dena nahi, zu eta biok aldentzea, maitea. Oraindik ere maite zaitudala badaukigu, baina despedidaren ordua bertan deulagu jadanik. Ordo eta gustoren gure gogo eta ejitasmoekin geundela, triskatu digute lidaia. Beste nolai bat bilatuko digute neskatxa, lasai ezon, eta ezkondu ere egingo zaituzte egunen batean. Baina jakin ezazu gauza bat, elkarren jolasetik sorturiko haurrek plazer orduak elkarriko dizkizute gozora, ez egin dudarik.

Eta orain bai, agur

R. D'Alziora

**MINTZODUN GIZAKI
ZAHAR AGURGARRI HORI
EZ ZAITEZ ISIL**

Annette Maxime

Aldizkari honen egile eta Irakurleei:

«En prenant sa place dans l'entreprise réformatrice des langues, le linguiste peut contribuer à engager sur des voies moins incertaines leur avenir et peut-être, en quelque mesure, celui des peuples qu'elles expriment.»

Claude Hagège

L'homme de paroles, Folio essais, 1986

Egoera ezin aproposago batetan nengoen L'homme de paroles [mintzodun gizakia] liburua irakurtzen hasi nintzenean: tren batek oporretarantz ninderaman eta elkarrizketak gaztelaniaz, ingelesez, alemanez, frantsesez, portugesez eta baita euskaraz ere etortzen zitzaizkidan.

Hauxe benetan zarata ezta, hizkuntzez diharduen liburu bat irakurtzeko! nahiz eta hasi bezain laster, munduko hizkuntza guztien kopurua kontutan hartuz gero, erakuskari oso txiki bat baino ez nuela entzuten erreparatu nuen.

Izan ere liburu interesgarri honek gizaki eta lengoaiaren arteko harremana, giza hizkuntzen aniztasun eta ezberdintasunaren bitartez azaltzen du. Hiru etapatan garatzen da: lehenengo atalak lengoaiaz eginiko ikerketa nagusi batzuren nondik-norakoak erakusten ditu. Bigarren atalak begirada antropologiko bat proposatzen du, gizakiaren ezaguerarako linguistikak izandako laguntza garrantzitsua eratzen duten osagaiak bilduz. Eta azkenak, hizkuntzen teoria deskribatzaile bat zehazten du, bertan esanahi produkzio eta elkarrizketaren partaideen arteko erlazioa mugatzen delarik. Bukatzeko Hagègek, linguistikak hizkuntzekiko duen jokaera aztertzen eta beronen arrazoia bilatzen du.

Claude Hagège 1936. urtean jaio zen. Hizkuntza klasikoetan katedraduna da eta linguistika irakaslea Poitiersko Unibertsitatean. Maisu frantses eta amerikar zenbaitengandik jaso zuen bere formazio linguistikoa, geroago lurralde ugarritan hobatu duena: izan ere, Claude Hagègek hogeitau urte baino gehiago darama munduan zehar, giza hizkuntzak «in situ» aztertzen, Afrikakoetatik txinerara, Amerikako idioma indiarretatik, Ozeaniakoetara, hizkuntza semitikoetatik Europakoetara. Ibilbide teoriko eta esperimental hau markatu duten liburuak hurrengook dira:

—*ESQUISSE LINGUISTIQUE DU TIKAR (CAMEROUN)*, Paris, Société d'études linguistiques et anthropologiques de France, 1969.

—*LA LANGUE MBUM DE NGANHA (CAMEROUN)*, Phonologie, Grammaire, Paris, Société d'études linguistiques et anthropologiques de France, 1970, 2 vol.

—*PROFIL D'UN PARLER ARABE DU TCHAD*, Paris, Geuthner, 1973.

—*LE PROBLÈME LINGUISTIQUE DES PRÉPOSITIONS ET LA SOLUTION CHINOISE*, coll. linguistique publiée par la Société de linguistique de Paris, Louvain, Peeters, 1975.

—*LA GRAMMAIRE GÉNÉRATIVE*, *Réflexions critiques*, Paris, P.U.F., coll. «Le Linguiste» 1976. Traduction américaine revue et augmentée: *CRITICAL REFLECTIONS ON GENERATIVE GRAMMAR*, Chicago, Jupiter Press, 1981.

—*LA PHONOLOGIE PANCHRONIQUE* (en collaboration avec A.G. Haudricourt), Paris, P.U.F., coll. «Le Linguiste», 1978.

—*LE COMOX LAAMEN DE COLOMBIE BRITANNIQUE*, présentation d'une langue amérindienne, Paris, Association d'ethnolinguistique amérindienne, 1981.

—*LA STRUCTURE DES LANGUES*, Paris, P.U.F., coll. «Que sais-je?», 1982.

—*LA RÉFORME DES LANGUES: HISTOIRE ET AVENIR* (Language reform: history and future), (en collaboration avec I. Fodor), Hambourg, Buske. 1983-1984, 3 vol.

—*LES CATÉGORIES DE LA LANGUE PALAU (MICRONÉSIE)*, Une curiosité typologique, Munich, Fink, 1986.

—*LE FRANÇAIS ET LES SIÈCLES*, Paris, Ed. Odile Jacob, 1987.

«Hizkuntzen unibertsoaren ezaugarrietarik harrigarriena, beharbada, beren aniztasuna da» dio Hagègek. Izan ere, «6.000 bat hizkuntza ditugu munduan, oraindik azertzeke dauden beste milaka batzu kontutan hartu gabe». Nola jazo du mintzodun gizakiak horrenbeste hizkuntza hitz egitea?

Hagègek hurrengo hipotesiau planteiatzen du: «Gaurko idiomen aniztasuna ez dator jatorrizko hizkuntza bakar batetatik.»

Ekialdeko eta iparraldeko Afrikan kokatu behar da Homo habilis gizakiaren arbasoen agerpena, orain dela 2 200 000 urte. Han iraultza klimatiko bat gertatu zen, humanitatearen paturako erabakikorra izan zena: Afrikako ekialdeko oihanak, estepa antzu bihurtu ziren. Gizakiaren arbasoek, ingurugiro berri batetara moldatzera beharturik, zenbait ahalmen gero eta zehatzago garatu zituzten. Egoera honek solidaritatea eskatzen zuen eta bizitza sozial eta erakuntza ttipi-ttipi bat eratu zuen. Baldintza hauetan Homo habilis gizakia bere kode genetikoa agertutako lengoaia-ahalmena garatzeari ekiten dio; ahalmen hori bizitza sozial baten bidez baizik ezin hel zitekeen komunikaziora. 1960.ean tximinoekin egindako esperimenduek giza hizkuntzak aldi berean zeinu sistemak eta komunikabideak direla erakutsi digute. Galdera eta agindua ez dira agertzen gor-mutuen lengoaia ikasi duten tximinoengan. (Kasu bakar bat ezagutzen da: tximino batek arriskuan zegoen beste bati «etorri + arin» sinboloak zuzendu zizkion). Beste ezaugarri nagusi bat, giza hizkuntzetan dagoena, ez da agertzen hemen: giza-produkzio

linguistikoek existitzen ez denaz hitz egin dezakete. Tximinoek gezurak besterik ez dakite esaten.

Hobakuntzaz hobakuntza, lehenengo zizakadurak formazio erregular bilakatzen eta ugaltzen dira, sinbolizatzeko ahalmena, pentsamendua zatibanatzeko ahalmenaz —zeina soinu konbinaketa ordenatuen bidez adierazten baita— aberasten den heinean. Baina halako bilakaerak itzelezko iraupen bat suposatzen du eta ez da giza-hizkuntzetara helduko harik eta migrazio handiak gertatu arte: ingurugiro ekologikoak, natura eta bere zaratak, landare eta animalia espeziak, eta baita hauek sortzen dituzten fenomeno ozenak oso ezberdinak dira. Modu berean, lehenbiziko hizkuntzak oso ezberdinak ziren. Ezberdintasuna, zentzuen unibertsoaren ezberdintasunarekin, eta giza taldeen ohitura sozialen arabera, espazio eta denboraren egituraketaren ezberdintasunarekin lotua zen, oso harreman sakon batez. Lehenbiziko hizkuntzek, sortu ziren une beretik, orduko erakunde sozialekin oso lotura estuak zeuzkaten, nahiz eta, hitzak eta esaldi egiturak euren testuingurutik progresiboki urrundu eta hautazkotasunaren azpian estaliak geratu.

Hagègek frantsesdunentzat idatzi du liburu hau: izan ere aipatu berri dugun hizkuntzen ezberdintasuna frogatzeko eta azaltzeko, ez du edozein adibide edo eredu aukeratu, frantsesdun bat gehien harrituko luketen haiexek baizik, askotan frantsesarekin konparaketa bat eginez. Honela, liburuan aurreratzen den ginoan, irakurleak (hizkuntza erromanikoren bat darabilenak bederen, ez hainbeste euskara dakienak) ziurrenera inoiz ere bururatu ez zaizkion zenbait bitxikeria aurkituko ditu deskribatutako hizkuntzetan. Hona hemen, liburuan zehar, nire arreta eta jakinahia bereziki piztu dizkidaten puntu batzu:

—Tonuak bere zeregina dauka zenbait hizkuntzatan. Tura-z edo wobez (Bolikosta) tonu gorenak baiezpen gogorak adierazten ditu, batez ere informazio garrantzitsuak azpimarratzeko. Aitzitik, tonurik baxuenak ez du hain informazio garrantzitsurik edo berririk adieraziko.

—Komunikazioaren ezaugarriak gizakienak ezezik, espeziarenak ere izan litezke. Tximino helduek, guk hurrekin egiten dugun bezalaxe, beren keinuak gutxitu egiten dituzte txikienei zuzentzean.

—Kultur ahalmena eta linguistikoa harreman estutan daude: adibidez, hitzaldi eliptiko bat permititzen duten zenbait hizkuntzatan, japonieran bezala, esatariek beren partaidearekiko etxekotasunaren arabera, elipseen kopurua murriztu egiten dute; murrizte honek, bada, kanpotar baten aurrean iristen du bere maila gorena, nahiz eta arrotzak japoniera oso ondo menperatu.

Libano eta Siriako dialekto arabiarretan kortesia formen erabilera bitxi bat ikus daiteke, bertan, sarri askotan, aitak bere semeari «aita» deitzen bait dio, euren arteko harremana parekatu nahirik.

Lexikoari dagokionez:

—Zenbait hizkuntzatan, hitz batzuk, testuingurutik at, zentzu kontrajarri bi daukate. Arabiera klasikoz, aintzina, baca-k «erosi» edo «saldu» adierazten zuen. Hizkuntza honetan balio bikoitz hau daukaten hitz neutro batzu ere, aintzinako poesiak testifikatuak, agertzen dira: tahanafa-k «negar egin» edo «farre egin» adierazten du; tagasmara-k «justua» edo «justua ez dena».

—Kultura batzuk zorigaitzeko ahalmenak exortzizatzen dituzte, eta hitz tabuak normalean beren kontrakoekin ordezkutzen dituzte. Arabiera klasikoz salim-ek «osasuntsu» «sugeak oska egindako gizona» adierazten du, aqoq-ek «behor ernaldua», «behor antzua», eta hafil-ek «gamelua errape hantuekin», «gamelua errape hutsekin».

—HIZKUNTZEN UNIBERTSALAK izenburua daraman kapituluaren Hagègek logikaren arazoarekin lotuta dagoen adibide batez dihardu: hizkuntzak hitzarmen iragankorrak dira, denbora ardatz batetan kokaturik daudelako. Horrela, zenbait zentzu, logikaz justifikatzen direnak, zenbait zentzu berriren azpian ezkutatzen dira aldiro. Hiru adibide sinple aipa daitezke: puluwat (Mikronesia) eta hindiera-renak berauetan «emaztea» «etxekoa» bait da, gaur egun herrian lan egiten badu ere; eta wunambal-ena (Australia) honetan «edan» «edatera joan» esaten bait da, nahiz eta mugimendurik ez egon, zeren esamoldea, bere forma literalean, jaki lehor bat hartu eta gero, egarria kentzeko, ibaira joaten zireneko garaitik bait dator. Kasu bietan forma linguistikoa desmotibatu egin zen, hau da, literalki esaten duenari jadanik ez dagoen zentzua hartu du. (Badirudi, beraz, hizkuntzak sistema logikoetatik nahiko urrun dabilzala).

—Begira diezioigun hurrengoari; lexikoarekin jarraituz eta hautazkotasunaz mintzatuz (hautazkotasunaz ikus. Enseñuarrean 2. zb.), Hagègek zera dio:

Zenbait hizkuntzatan, konposatu deskribatzaileak —zeinen esanahia, osagaiei esker, aurreikusi egiten baita— oso ugariak dira; eta oso hautazkoa izateagatik «pobreak» dira. Hau da Afrika eta Ozeaniako hizkuntzen kasua, berauetan [eta orain gaztelainaz itzuliko dut] «cráneo» «hueso de la cabeza» esaten bait da, «polvo», «harina de la tierra»; «tobillo», «ojo del pie»; «bigote», «pelo de la boca», etb.

Ikus dezagun zer gertatzen den euskaraz:

cráneo ----- buruezur, eta beste adibide batzu hartuz:
 faro ----- itsasargia
 muñeca----- eskumuturra
 monedero ---- diruzorroa
 tocador ----- apainmahaia
 etb.

Badakigu zenbaitek, giza-botereek eta aurrerapenek eskatutako hitz berriak sortzeko, joera honi jarraitu nahi diotena, hau da, «fabrikazio autoktono»-ari heldu, hitz elkarketa edo eratorpena erabiliaz. Honen arrazoiak ugariak izan daitezke: Joera nazionalista, garbizaletasuna.

Beste zenbaitek, gehienek, aitzitik, gaztelainari edo frantsesari eskatutako maileguak nazionalizatu nahiago dute; eta «telefonoa, periodikua, esplikatu, kamareroa, enamoraturik, akordatu, paroa, omeleta», etabarrak esaten dituzte.

Egotekotan, zein da joera egokiena? Arras berezia dugu geure hizkuntzaren jokaera, inguruetakoko erromantzeekin konparatuz; bere desberdintasuna atzizki jokoan ere kokatzen da. Baina, badirudi, gaur egungo idazleek —gorago aipatu ditudan adibideak berauengandik atera ditut— edo euskaldun berriek ez dutela erabiltzen aberastasun harrigarri hori.

Hagègek, munduan zehar zein den hizkuntza boteretsuek ingurutatutako mintzoen joera argituko digu: «Ingeles-amerikanoari hartutako maileguak ez diete ezer esaten kultura nazionalen irudimenei. Lexikoaren gaurkotze ekintzetan gehien erabiltzen direnak formazio motibatuak dira: vietnamiera, tamul, somali, georgieraren erreformatzaileek fabrikazio autoktonoak aukeratu dituzte.» Badirudi hau ez dela euskararen joera. Honetan, euskararen muintara itzuliko baldin bagara —itzuli behar bagara, noski— linguistek badaukate zeresanik eta zereginik.

Gorago aipatutako esaldian bere garrantzia daukan puntu bat azpimarratu nahi nuke, hots hiztegi bat oso hautazkoa bada, «pobrea» delakoa. Hagègeren esanetan sinesten badugu euskerak hiztegi pobrea daukala onartu behar dugu. Baina linguistak komatxo artean ipini du pobre hitza, berak hitza ez duela zentzu txarrean hartzen ohar gaitzen. Ez da inolako gaitzespenik ikusi behar gure linguistaren esanetan. Aitzitik, hark hizkuntzekiko daukan bere maitasuna argi eta garbi agertzen da. Adibidez, egoera eta ekintza oro adierazteko —aditz gutxi edukitzeagatik— makina bat aditz konbinazio egiten duen «kalam» hizkun-

tzarenganako (Ginea Berria) bere mirespena erakusten du. Izan ere, mintzo honek 95 aditz baino ez dauka berauetarik gehien erabiltzen direnak 25 besterik ez badira ere.

Ez da batere harritzekoa linguista bat hizkuntzen desberdintasunaren alde agertzea: «Nazioak lotuko lituzkeen elkartasunik balego (...), hizkuntzen arteko desberdintasunak errespetatuzetik abiatu beharko luke». Baina hurrengoa ere aitortzen du Hagègek: «Historiak ia ez du ilustratzen errespetu ideal hori eta batasun linguistikoren bide posibleztat, bortizkeria edo aniztasun naturalen bazterketa besterik ez du eskaintzen». (Seguraski irakurleari ez zaizkio Hagègeren hitzak arrotz gertatuko). Hizkuntzen ekologistak —Hagègek erabiltzen duen hitza berari leporatuz— honela jarraitzen du: «Hizkuntza normalizatzea, hiztegia eraberritzea, etb., ekintza politikoak dira, ez dira hitzez maitemindurik daudenen joko inozoak. Hizkuntzek erasoaldiak jasan ditzakete. Adibidez, A. Kasravi, lexiko persiarraren zati bat desarabieratzea proposatzeagatik asasinatua izan zen 1946.ean, islamen areriotzat harturik; eta Stalinek 1936.ean E. D. Polivanov linguista hiltzera kondenatu zuen, bere burua hizkuntza turkoen alde agertu zuelako.

Hizkuntzaren erabilera boterekin batera joan ohi da. Zenbait hitzek argi eta garbi adierazten digute. Mexikoko enperadorea tlatoani deitzen zen «hitz egiten duena» alegia. Erro berbera -tlatoa aditza «hitz egin» aginteari dagozkion hitzetan aurkitzen da: tlatoeayotl: «estatu», tlatoean: «kontseilu gorena». Forma linguistikoek, azteken idiomak bezain garbi adierazten ez badute ere, hizkuntzadunak boterea dauka. Hizkuntzaren batasuna nahi du botereak, esateko moduen aniztasunak, ekonomiaren hedapena oztopatzeaz gain, pentsakera diferentiek ere posibifititzen bait ditu.»

Hauxe da euskararen patua frantses eta gaztelainaren zapalkuntzaren pean. Zer izango da euskara araurik gabe edo arau bat bultzatzeko gai den aginpiderik gabe? Zenbait gizartetan halako egoerak egonezin bizia bait dakar berarekin. Eta Hagègeren hitzekin jarraituz: «Bretoiera, euskara (zenbait batasun ahalegin egonagatik), erretoerromantxea Suitzan, txerkesa Kaukason, aginpide politikoak edo lan literarioek ekar zezaketen eredu baten ezaren ondorioz, multzo dialektalak (1) dira, eta ez hizkuntzak.»

Argi dago euskara ez dela oraindik hizkuntza bat Hagègeren ustez. Euskara egiazko hizkuntza bilakatzeko, itzelezko lana eta denbora luzea behar dira. Honetan linguistak erantzunkizun handia dauka. «Linguistak, hizkuntzen etorkizunaz eritzi bat emateko eskubidea dauka, beharkizuna ez bada. Hizkuntzen ekintza erreformatzailean, linguistak, hizkuntza hauen etorkizuna bide ziurragoetan ezartzen lagun dezake eta, zer esanik ez, hizkuntzak erabiltzen dituzten herrien etorkizuna.»

(1) Hemen dialekto bat zer den gogoratuko dut, Hagègeren beraren hitzekin: «Desberdintzat identifikaturik dagoen komunikazio sistema, baina, hizkuntza bakar baten barruan, komunikagintza oztopatzen ez duena.»

Bukatzeko, neure eskaintza argitzearekin batera, beharkizun mi-resgarri hau betetzen hasi direnengana, bereziki aldizkari honen egileengana, edo, oro har, Hagègeren hitzak erabiliz, hizkuntzen maitaleengana jo nahi nuke, hala nola, bere grina hitz hutsetan biltzen duen maiteminduaengana; berben historia indibidual miresten duen etimologistarengana; hizkuntzen deskribapenak biltzen dituen glososofiloarengana; erbesteko sonoritateen entzute hutsa laket zaionarengana; kas-karra dela jakinagatik, lanean diharduen itzultzaile ausartarengana; testu eder bat lortu nahiaz saiatzen den idazlearengana; hizkuntzaren sistema azaltzen duen gramatikariarengana; hizketaz mintzatzen arduratzen den linguistarengana; etabarrengana... beren ahaleginetan jarrai dezaten, mintzodun gizakiak hizkuntza bat bera ere ahaz ez dezan. Mintzodun gizaki zahar agurgarri hori, ez zaitez isil!

**EUSKAL HIZKUNTZA
ETA BERE TIPOLOGIA**

Rudolf P. G. de Rijk

Jaun - andre agurgarriok,

Ohore handitzat daukat hitzaldi hau dela medio zuen aitzinera agertzea. Hemengo zuzendariari eskerrik bizienak eskaini nahi nizkioke, horren amoltsuki toki eder honen mendeurrena ospatzen laguntzeko aukera eman didalako. Euskal hizkuntza eta bere tipologia dut mintzagai. Hots, euskarak hizkuntz tipologiaren barrenean daukan lekua zehaztea dagokit. Jakin beharko litzateke, ordea, zein hizkuntz tipologiaz ari garen: atzokoaz, gaurkoaz ala biharkoaz. Izan ere, badira gutxienez hiru tipologia ezberdin, hau da, irizpide ezberdinetan oinarritutako hiru tipologi mota.

Onera izanen dut, beraz, hitzaldi hau hiru ataletan zatitzea, hiru tipologi mota horiek banaka azaltzeko.

Has gaitezen atzokoarekin, tipologiaren kondaira apur bat argitzea komeni zaigu eta. Atzoko tipologia hori, oraintsu arteko hizkuntzalaritzaren eskuliburuetan aurkitzen zen bakarra, hemeretzigarren mendeko sorkaria dugu, konparatismo edo hizkuntz konparazio jakintzaren antzera. Kondairagile gehien-gehienek Schlegel anaiengana jotzen dute tipologiaren sorreraz ari direnean, Coseriu jaunak, alabaina, lehendabiziko tipologista izandakotzat ekonomilari bat begietaritzen digu, eta ez nolana hiko ekonomilaria gero, ekonomiaren aita deitu den Adam Smith eskoziarra bera, 1723-tik 1790 arte bizi izan zena.

Jakintsu honek, bere *The Theory of Moral Sentiments*-aren bigarren argitalpenaren eranskin gisa, giza hizkuntzaren iturburuaz diharduen 32 horrialdeko liburuxka bat argitaratu zuen: *Considerations Concerning the First Formation of Languages and the Different Genius of Original and Compounded Languages*. (1761)

Izenburuan bertan, «*the different Genius of Original and Compounded Languages*» dioenean, osorik agertzen du bere tipologia. Izenburu zati honek hauxe esan gura baitu: 'hizkuntza jatorren eta konposatuak izakera ezberdina'. Bereizten zituen bi hizkuntz motak hauek ziren: Latin eta greko zaharraren antzekoak, alde batetik, eta ingelesa, frantsesa eta italieraren antzekoak, bestetik.

Harako haiek jatorrak, zaharrak eta flexiozaleak dira; honako hauek, osterak, konposatuak, berriagoak eta perifrastikoak. Azken ezauzgarri hau, perifrastikoa izatea, bekatu larritzat zeukan Smith jaunak. Latinak hitz bakar batez esaten dakiena adierazteko, bi, hiru, lau edo gehiago hitz behar izaten dituztenez gero, hizkuntza berriagoak guxtiesten zituen Smith ekonomizaleak. Berak eman adibidea: latineraz: **amavissem**, ingelesaz: **I should have loved**.

Gainera, hizkuntza berri horiek flexiorik ez dutenez gero, esaldi bat osatzen duten hitzek ez daukate behar bezalako askatasunik esaldi honen barruan, eta hitz horiek beti toki berean ipini beharrak gogait eragiten dio entzuleari. Hori dela eta, hizkuntzok erabat desegokiak lirateke, literaturgintzarako batere baliorik gabeak, luzeegi, hestuegi, eta aspergarriegiak direlako, Smith-en eritzi apalean behintzat. Ez dakit bere burua urrikalkizun zitzaion, berak ere ingelesaz mamiturik baitzeuzkan idazlan guztiak, baina bere liburuxkaren azken bi lerroetan zeharo urrikaltzen da hizkuntza berrietako idazleez, hots, honelaxe aipatzen dituen gizajoez:

«those whose expression is constantly confined by the prolixness, constraint, and monotony of modern languages.»

Adam Smith jaun hori ekonomiaritzan berritzailea bazen ere, hizkuntzei buruzko zituen ustekunde horiek, hemezortzigarren mendean ere, hegoaizea bezain zaharrak ziren, noski. Horien aurka Dante handia mintzatu zen bere *De Vulgari Eloquentia* izeneko idazlan sonatu hartan, hamalaugarren mendearen hasiera-hasieran.

Coseriu jaunak zergaitik aipatu zuen, bada, Adam Smith, tipologisten aurrelari handia bailitzan? Hona, nik uste, erantzuna: ez zaitekeen Coseriu ekonomilariaraz arduratu, gaizki-ulertze baten menpera jausia izan ez balitz. Bistan dagoenez, honako pasarte hau gertatu zaio erorbide:

«Hauxe ezar daiteke legetzat: hizkuntza batek, zenbat eta simpleago izan bere konposizioan, hainbat eta konplexuago izan behar du bere deklinabide eta adizjokoetan, eta, alderantziz, zenbat eta simpleago bere deklinabide eta adizjokoetan, hainbat simpleago izan behar bere konposizioan.»¹ Pasarte horri iruzkin hau ezartzen dio Coseriu:

«Beraz: zenbatenaz mugapen paradigmaticoa gehiago, hainbatenaz mugapen sintagmatiko gutiago, eta alderantziz: hain zuzen ere, geroagoan eta gaur artean ere sintetikoak eta analitikoak direlako hizkuntzak bereiztean behin eta berriz erabilitako printzipioa bera. Edukiaren aldetik, flexioketa, ideia eta kontzeptu konkretuagoei legokie, konposizioa, aldiz, abstraktuagoei eta orokorragoei.»²

Pasartearen ingurua lasai irakurri duena erraz ohartuko da gauza batez: pasarte horrek ez dioela inondik ere Coseriu esan erazten dionik.

Egia, flexioketa eta pentsamenaren konkretutasuna nolabait elkarri lotuta ikusten ditu Smithek, nik ez dakit ongi zergatik. Baina pasarteak ez du horrekin zer ikusirik. Pasartearen gakoa den konposizio hitzari Smithek ez baitio inon ere sintaxiari legokiokkeen esanahirik ematen, esanahi kimikoa baizik: hizkuntza baten konposizioa hizkuntza

¹ In general, it may be laid down for a maxim, that the more simple any language is in its composition, the more complex it must be in its declensions and conjugations; and, on the contrary, the more simple it is in its declensions and conjugations, the more complex it must be in its composition. (532)

² Also: je mehr paradigmatische Bestimmungen, desto weniger syntagmatische Bestimmungen und umgekehrt, d.h. genau das Prinzip, das später und sogar bis heute bei der Charakterisierung der sogenannten synthetischen und analytischen Sprachen immer wieder angewandt wird. Inhaltlich würde die Flexion konkreteren, die composition dagegen abstrakteren, allgemeineren Ideen und Vorstellungen entsprechen. (E. Coseriu, Adam Smith und die Anfänge der Sprachtypologie)

hau osatzen duten hizkuntzak ditugu, ingelesaren kasuan anglosajona eta frantsesa, adibidez.

Pasarteak, bada, hauxe besterik ez dio: hizkuntza nahastuek, jatorrek baino morfologia urriagoa dute, eta zenbat hizkuntz osaki gehiago, hainbat errazago beren deklinabideak eta adizjokoak. Hau da, lehen aipatu dugun tipologia bera: hizkuntza zahar jatorrak, alde bategatik, eta berriak, gutxiasko konposatuak, bestetik.

Hori horrela, utz dezagun behingoz ekonomolaria, eta goazen atzoko hizkuntz tipologiarekin ikuskizun gehiago duten Schlegel anaiengana. Bi anaia dira, eta biak oso ezagunak jakintsuen munduan: *Friedrich Von Schlegel*, anaia gazteena (1772-1829), eta *August Wilhelm Von Schlegel*, anaia zaharrena (1767-1845).

Gazteenak 1808garrenean «Indiarren hizkuntza eta jakinduriaz» deritzan liburu mardul bat argitaratu zuen, alemaniez: *Ueber die Sprache und Weisheit der Indier*.

Hizkuntzari dagokion lehen liburukian, bi mota nagusitan sailkatzen ditu munduko hizkuntza guztiak: organikoki eraturikako egitura dutenak. eta mekanikoki eraturikako egitura dutenak. Laburkiro: hizkuntza organikoak eta mekanikoak.

Zinezko hizkuntz tipologiaren lehendabiziko saioa dei geneza-keen berezkuntza honi, bere asmatzaileak nolako garrantzia ematen zion ikusteko, nahikoa dugu jakitea hirugarren kapituluaren aurkeztua zuen erdibitze honi beste kapitulu bat opa ziola, «Beren barne-egituraren arauzko bi hizkuntz mota nagusiz» izenburuko laugarrena (*Von zwei Hauptgattungen der Sprachen nach ihrem innerm Bau*).

Hona hemen kapitulu horretan aipagarriena zaigun pasartea:

«Entweder werden die Nebenbestimmungen der Bedeutung durch innre Verilnderung des Wurzellauts angezeigt, durch Flexion; oder aber jedesmal durch ein eignes hinzugefügtes Wort, was schon an und für sich Mehrheit, Vergangenheit, ein zukünftiges Sallen oder andre Verhältnisbegriffe der Art bedeutet; und diese beiden einfachsten Fällle bezeichnen auch die beiden Hauptgattungen aller Sprache. Alle übrigen Fälle sind bei näherer Ansicht nur Modifikationen und Nebenarten jener beiden Gattungen; daher dieser Gegensatz auch das ganze in Rücksicht auf die Mannigfaltigkeit der Wurzeln unermessliche und unbestimmbare Gebiet der Sprache umfasst und völlig erschöpft.»

Lerroalde honen muina hau da: hitz baten zentzu-mugapen gainerantzekoak (edo sekundarioak) zehazterakoan bi aukera dira: bata, hitz erroaren aldaketaz baliatzen den flexioketa deritzana, bestea, hitz erroari zentzu bana daukaten hizki batzuk eransten dizkiona. Bi aukerok hizkuntza ororen bi mota nagusiak osatzen dituzte. gainerakoak ez baitira, hurbilagotik begiraturaz gero, bi horien aldakizunak eta ondotikoak baizik.

Bereizten duen bi~arren hizkuntz mota, gaztelanieraz linguas «aglutinantes» direlakoena³ da, euskaraz, hizkuntza eranskariak. Hizkuntza horien eredutzat Turkiera hartu ohi denez, eman dezagun Turkierazko adibide bat:

ev	:	etxe	evler	:	etxeak
evim	:	nire etxea	evlerim	:	nire etxeak
evimde	:	nire etxean	evlerimde	:	nire etxeetan

Turkierazko aditzak ere berdintsu jokatzen dira. Dakusagunez, atzizkiak elkarren ondoren jartzen dira aldaketa handirik gabe, atzizki bakoitzak bere zeregin berezia daukala, eta beti tankera berdintsuaz agertzen delarik.

Honelako hizkuntzei mekanikoki eratutzat eriztea ulergarria da noski, baina, nondik nora hizkuntza malgukari eto flexiozaleek osatutako beste hizkuntz motari Schlegelek zekuson organikotasuna? Hori bere anaiak azalduko digu inork baino hobeto, aurki irakurtzera noakizuen pasarte batean.

August Wilhelm anaia jakintsu hori, Shakespeare, Dante, Petrarca eta Calderón-en alemaneratzaille bezala txit ezaguna, eta indiarren hizkuntza zaharra azkenean bere anaiak areago ezagutzera helduko zena, hizkuntza erromanikoez ere arduratzen zen gaztetandik. Erromaniko ikasketen eraikitzailetzat aitortu ohi den Friedrich Diez-en irakaslea eta aholkularia bera izan dela badakigu, hain zuzen ere.

Etimologi kontuan eta, proventzalerak daukan garrantziaz ongi jabeturik trobalarren hizkuntza hau ere landua zuenez, «**Observations sur la Langue et la Littérature Provençales**» deritzan liburu txikia eman zuen argitara 1818garren urtean.

³ *Aglutinate* hitza adiera horretan Humboldt hizkuntzalariari zor diogu.

Bere anaiaren liburu famatutik hamar urtetara idatzitako ehuntsu horrialde haietan proventzaleraz ezezik, hizkuntz tipologiaz ere aski luze baziharduen.

Anaiak hizkuntzak bi mota nagusitan bereizi bazituen ere, tipologia bat hirukoitza eskaintzen digu August Wilhelm-ek, anaiaren sailkapena horixe dela eta:

«Les langues qui sont parlées encore aujourd’hui et qui ont été parlées jadis chez les différents peuples de notre globe, se divisent en trois classes : les langues sans aucune structure grammaticale, les langues qui emploient des affixes, et les langues à inflexions.»

Lerroalde honek badakar ohar hau: *«Cette classification fondamentale des langues a été développée par mon frère dans son ouvrage **sur la langue et l’antique philosophie des Indiens**, dont la première partie a été traduite en français à la suite du traité d’Adam Smith sur l’origine des langues.»*

Horrela bereizten dituen hizkuntz motak, banakariak, eranskariak eta malgukariak dei ditzakegunak, ez dira inolaz ere maila berekoak Schlegel-en begietan.

Bere ustez, hizkuntza banakariak apalak dira oso, gogamenaren oztopagarri larriak, hizkuntza eranskariak hala holakoak, malgukariak, ordea, bikainak.

Hizkuntza banakarietan ezagunena txinera dugu, eta Txinako kultur maila miresgarria eta hizkuntz maila apala elkarrekin ezkontzen kostatu zaio Schlegel-i, ikusten denez:

«Les langues de la première classe n’ont qu’une seule espèce de mots, incapables de recevoir aucun développement ni aucune modification. On pourrait dire que tous les mots y sont des racines, mais des racines stériles qui ne produisent ni plantes ni arbres. Il n’y a dans ces langues ni déclinaisons, ni conjugaisons, ni mots dérivés, ni mots composés autrement que par simple juxtaposition, et toute la syntaxe consiste à placer les éléments inflexibles du langage les uns à côté des autres.»

De telles langues doivent présenter de grands obstacles au développement des facultés intellectuelles; leur donner une culture littéraire ou scientifique quelconque, semble être un tour de force; et si la langue chinoise présente ce phénomène, peut-être n’a-t-il pu être réa-

lisé qu'à l'aide d'une écriture syllabique très artificiellement compliquée, et qui supplée en quelque façon à la pauvreté primitive du langage.»

Beraz, hizkuntza zenbat eta bihurriago, pentsamena eta kultur maila hainbat gorago. Hala uste zuten behintzat hemeritzigarren mendeko hizkuntzalariak, 1895garrenean Otto Jespersen bere «**Progress In Language**» izeneko liburu batean zeharo alderantzizko jokabidearen alde atera zen arteraino. Gaurko hizkuntzalariak, ordea, ez dira hizkuntz tipoak eta kultur mailak elkarrekin duketen harremanaz gehiegi arduratzen. Nolanahi ere, hiztegiak eta kulturak elkarrekin zer ikusia badute ere, ez dut uste, Schlegel-en antzera hizkuntz tipoaren eta kultur mailaren arteko nahitaezko lotura hertsia ikusten dutenak gaurregun asko direnik. Itzul gaitezen orain Schlegel-en pasartera:

«Le caractère distinctif des affixes est, qu'ils servent à exprimer les idées accessoires et les rapports, en s'attachant à d'autres mots, mais que pris isolément, ils renferment encore un sens complet. Les langues, dont le système grammatical est fondé sur les affixes, peuvent avoir de certains avantages, malgré leurs imperfections.»

Hemen kokatutako ohar batean, Ameriketako hizkuntzak oro mota honetakoak direla esan ondoren, euskara ere aipatzen du: «M. de Humboldt l'ainé a publié en allemand un mémoire très intéressant sur la langue basque. Cette langue, reste des idiomes indigènes de l'ancienne Europe, est également caractérisée par les affixes.»

Euskara tartean dagoen bigarren motako hizkuntza hauek, banakariak bezain murrizak ez badira ere, ez dira hala ere hizkuntza organikoek beregan duten gailentasunera iristen, Schlegel-ek orain dioskunez:

«Je pense. cependant, qu'il faut assigner le premier rang aux langues à inflexions. On pourrait les appeler les langues organiques, parce qu'elles renferment un principe vivant de développement et d'accroissement, et qu'elles ont seules, si je puis m'exprimer ainsi, une végétation abondante et féconde. Le merveilleux artifice de ces langues est, de former une immense variété de mots, et de marquer la liaison des idées que ces mots désignent, moyennant un assez petit nombre de syllabes qui, considérées séparément, n'ont point de signification, mais qui déterminent avec précision le sens du mot auquel elles sont jointes. En modifiant les lettres radicales, et en ajoutant aux racines des syllabes dérivatives, on forme des

mots dérivés de diverses espèces, et des dérivés des dérivés. On compose des mots de plusieurs racines pour exprimer les idées complexes. Ensuite on décline les substantifs, les adjectifs et les pronoms, par genres, par nombres et pas cas; conjugue les verbes par voix, par modes, par temps, par nombres et par personnes, en employant de même des désinences et quelquefois des augments qui, séparément, ne signifient rien. Cette méthode procure l'avantage d'énoncer en un seul mot l'idée principale, souvent déjà très modifiée et très complexe, avec tout son cortège d'idées accessoires et de relations variables.

*Les langues à inflexions se subdivisent en deux genres, que j'appellerai les **langues synthétiques** et les **langues analytiques**. J'entends par langues analytiques celles qui sont astreintes à l'emploi de l'article devant les substantifs, des pronoms personnels devant les verbes, qui ont recours aux verbes auxiliaires dans la conjugaison, qui suppléent par des prépositions aux désinences des cas qui leur manquent, qui expriment les degrés de comparaison des adjectifs par des adverbes, et ainsi du reste. Les langues synthétiques sont celles qui se passent de tous ces moyens de circonlocution.*

L'origine des langues synthétiques se perd dans la nuit des temps; les langues analytiques, au contraire, sont de création moderne: toutes celles que nous connaissons, sont nées de la décomposition des langues synthétiques.

La ligne de division entre les deux genres n'est pas tranchée...

Les langues grecque et latine sont des modèles du genre synthétique, dont on a depuis longtemps étudié et admiré les beautés. De nos jours, l'on a commencé à connaître en Europe une langue encore plus strictement synthétique: c'est la langue sacrée des Indiens...

En Europe, les langues dérivées du latin, et l'anglais, ont une grammaire toute analytique, et les littératures de ces belles langues, cultivées avec tant de soins et de succès, nous montrent à peu près le degré de perfection dont ce genre est susceptible. (Adam Smith-i zuzendurik, jakina!)

Les langues germaniques forment une classe intermédiaire: synthétiques dans leur origine et conservant toujours une certaine puissance de synthèse, elles penchent fortement vers les formes analytiques.»

August Wilhelm von Schlegel-i honen luze hitz egiten utzi diot, tipologi arloan bere anaiak baino betaro eta zehazkixiago sartzan delako, eta beharbada anaia pentsalariak baino eragin gehiago izan duelako hizkuntzalarien artean. Batez ere, analitiko-sintetikoaren bereizkuntzak arrakasta handia izango zuen geroko hizkuntzalaritzan, sortzailearen irizpideaz bestera erabiliko bazuten ere. Gerokoontzat, hizkuntza banakariak izango dira analitikorik analitikoak, August Wilhelm-entzat, aldiz, hizkuntza malgukariak baizik ez daitezke analitikoak izan, orain ikusi dugunez. Schlegel anaiekin ondoren, tipologiari buruz idatzi duten hizkuntzalariak askotxo izanik, ezagunenak baizik ez ditut ikutu ahalko, horiek ere merezi duten baino laburkiago aipatu beharrean nagoela.

Franz Bopp-ek (1791-1867) tipologiari zekarkion ikuspegia ez zen Schlegel-ena berbera, bai ordea antzekoa. Hona hemen bereizten zituen hiru hizkuntz tipoak:

1. Silaba bakarreko hitzerro elkartezinak nabari dituzten hizkuntzak. Hots, banakariak deitu ditugun hizkuntzak, gutxi gorabehera.

2. Silaba bakarreko hitzerro elkarkoiak nabari dituzten hizkuntzak. Mota honetako hizkuntzen hitzeraketaren lege nagusia aditzerrero eta izenordainerroaren elkarketa izaten da, arima eta gorputzaren elkarketaren antzera, berak dioskunez.

3. Bi silabatako aditzerroak nabari dituzten hizkuntzak. Hauekin aditzerroko hiru kontsonanteek adierazten dute hitzaren funtsezko esangura, kontsonante haien arteko bokalek, ostera, hitzaren zentzumugapen gainerantzekoak.

Hona bada tipo berezi legez jasorik Schlegel anaiek malgukarientasun batzuk dituzten eranskariak zeritzeten hizkuntza semitikoak.

Garai berean, Wilhelm von Humboldt-ek (1767-1835) ordurarteko hiru tipoei beste bat berretu zien: hizkuntza irenskariak, erderaz «*incorporantes*» esaten zaienak. Gainera, bere iritziz, Schlegel anaiek hainbeste garrantzia emana zuten hizkuntza eranskarien eta malgukarrien arteko bereizkuntza ez da batere funtsezkoa, mailazkoa baizik. Delako eransketa hori osotasunera heldu ez den malguketa besterik ez litzateke: «*nich zu Vollkommenheit gediehene Flexion*». Humboldt-en eragina gai horietan ez da kaskarra izan. Gaur arte erabiltzen den terminologiatik ere neur daiteke: «aglutinante» (**agglutinerend**), «aislante» (**isolierend**) eta «incorporante» (**einverleibend, inkorporierend**) Humboldt-ek zabaldu hitzak baitira.

August Friedrich Pott (1802-1887), Bopp-en ikasle bezala lanean hasia, gero Humboldt-en jarraitzaile aitortua eta honen iritzien defendatzaile sutsua bihurtuko da, hura hil ondoren argitaraturikako liburu

eragingarria irakurrita. Horrela, 1836-garren urteko bere *Etymologische Forschungen* (etimologiazko ikerketak) izeneko liburuan Bopp-en tipologia hirukoitza zegoen-zegoenean onartu zuena, Humboldt-en tipologia laukoitzez baliatzen ikusiko dugu zenbait urtez geroago.

Oso hizkuntzalari aipagarria dugu, alde askotarik, August Schleicher Indieuropalaria (1821-1868). Hegel-en pentsakerak eragite handia baitzeukan harengan, horren filosofiaren arabereaz eraiki zuen bere hizkuntz tipologia. Bi gauza bereizi zituen aurrenik hizkuntzaren barrenean: «*Bedeutung*», hau da esanahia edo edukina, eta «*Beziehung*», hau da erlazioa. Bitasun horretatik abiatzen da Schleicher-en tipologia. Hona bere ikusmoldea. Hizkuntza batzuetan, mintzoak edukina edo substantzia bakarrik adierazten du, egin beharrezko erlazioei nolabait hitzen hurrenkerari esker antzematen diegularik. Hauexek ditugu hizkuntza banakariak. Beste hizkuntza batzuetan, berriz, mintzoak zein edukina zein erlazioa adierazten ditu. Badira beraz edukina adierazten duten hizkiak eta erlazioa adierazten dutenak. Baina mota batekoen eta bestekoen bitarteko lotura guztiz da askea hizkuntza horietan. Hauexek dira hizkuntza eranskariak. (*Zusammenfügende Klasse*).

Hizkuntza eranskaria hizkuntza banakariaren antitesi bezala agertzen da. Bada, Hegel-en pentsakeran, tesia eta antitesia izateak sintesia eskatzen du. Sintesi hau hizkuntza malgukerietan ikusten du Schleicher-ek, haietan edukinak eta erlazioak goragoko batasun bat osatzea lortzen baitute.

Heymann Steinthal-ek ez zuen onartzen ez Schleicher-en, ez Pott-en tipologia. Hizkuntzalari horiek hartu zuten irizpidea zela eta, bi galdekizun zorrotz otu zitzaizkion. Hizki lexikalen eta hizki gramatikalen arteko lotura askea ala tinkoa izateak, zer axola du? Nolanahi ere, delako askatasun hori, zer da? Nola neurtzen dugu? Galdera horiek egin eta, ez zion, alabaina, tipologi arloari gibel egin, aitzitik irizpide berri batzuk oinarritzat harturik ekin zion lanean.

Irizpidetzat bost ezaugarri hartu zituen, bi «fisiologiko» eta hiru «morfologiko». Lehenengo ezaugarri fisiologikoa hau da: Edukina eta forma Schleicher-en «erlazioa» - bereizten dira ala nahasten? Hortik bitasuna: hizkuntza formadunak eta formagabeak.

Bigarren ezaugarri fisiologikoa hau dugu: Izena eta aditza ongi bereizten al dira? Baiezkotan: hizkuntza kategoridunak; bestela, kategorigabeak. Ezaugarri morfologikoak badakizkigu: banaketa, eransketa, eta malguketa. Irizpide horien arabera, Steinthal-en tipo nagusiak hauexek dira:

- I. Formagabeko eta kategorigabeko hizkuntza banakariak: Inditxina hizkuntzak.

- II, III, IV. Formagabeko eta kategorigabeko hizkuntza aldakariak.
- II. Edukinaren mugapenak hitzeraketaz adierazten dituzten hizkuntzak: malai-polinesiako hizkuntzak.
- III. Hitzen erlazioa aurrizkien bidez adierazten dutenak: Bantu-hizkuntzak, besteak beste.
- IV. Hitzen erlazioa hitzerroei erantsirikako berez edukina adierazten duten hitzen bidez aditzera ematen dutenak: Mongoliera eta Mantxuera.
- V, VI. Formagabeko kategoridunak:
- V. Hitzerroa kopularekin elkartuz aditza jokatzeko dutenak: turkiera.
- VI. Hitzerroei bukaera hutsak hazi (edo sortu) dizkietenak: finlandiera.
- VII. Kategorigabeko formadun hizkuntza banakariak: txinera.
- VIII. Kategorigabeko formadun hizkuntza irenskariak: Mexikako hizkuntzak.
- IX. Kategorigabeko formadun hizkuntza polisintetikoak (*«vielzusammensetzend»*): Iparramerikako hizkuntzak.
- X. Kategoridun eta formadun hizkuntza poliformanteak (*«vielausbildend»*): euskara. Euskara, beraz, poliformantea dugu. Ez dago baxterre argi, zoritxarrez, hitz polit horrekin Steinthal-ek zer esan nahi zuen. Kategorigabeko hizkuntzetan polisintetikoa denari, kategoridunetan poliformantea deritzo, agi danean.

Gainerako tipoak hiru dira:

- XI. Kategoridun eta formadun hizkuntza eranskariak: Egiptiera.
- XII, XIII. Kategoridun eta formadun hizkuntza malgukariak:
- XII. Hizkuntza semitikoak.
- XIII. Sanskritera.

A.L. Jussieu (1748-1836) botanikaren lan ezaguna eredu harturik, hizkuntz sailkapen honekin Steinthal-ek hizkuntzaren bilakidea aurkeztu nahi izan zuen Inditxinako hizkuntzak lehenen aipatuak bazituen, giza hizkuntzaren mugaren mugan daudelakoan zen, eta sanskritera azken-azkenik aipatzean hizkuntzetako arrosa deiturik, goren-gorengo mailan ipintzeko gai dela adierazten zuen. Steinthal-en sailkapen honek ez zuen eragin berezirik izan, aurrerantzean ere nork bere sailka-

pena eskaini ohi zuen. Hala, 1909-garrenean, hizkuntza askoren berri zekien F.N. Finck jakintsuak (1867-1910) tipologia berri bat argitaratu zuen «*Die Haupttypen des Sprachbaus*» izeneko liburu txikian. Tipologia hau emango dizuet ahalik laburren:

Hizkuntzak izan daitezke:

- I. Erro-banakariak («Wurzelisolierend», 'radical-isolante'): txinera. (Hemen hitzak ez dira berez kategoria jakin batekoak.)
- II. Gune-banakariak («Stammisolierend», 'tema-isolante'): samoaera. (Hemen hitzak berez kategoria jakin batekoak dira.)
- III. Gune-malgukariak («Stammflektierend», 'tema-flexiva'): grekoa.
- IV. Erro-malgukariak («Wurzelflektierend», 'radical-flexiva'): arabiera
- V. Sintagma-malgukariak («Gruppenflektierend», 'sintagma-flexiva'): georgiera, eta Ernst Lewy-k baieztu zuenez, euskera.
- VI. Subordinakariak («Unterordnend», 'subordinante'): turkiera.
- VII. Irenskariak («Einverleibend», 'incorporante')
- VIII. Ondokariak («Anreihend», 'concatenante'): Bantuko hizkuntza gehienak.

Beraz, hizkuntzak sailkatzeko saiaketak askotxo ziren, eta baliatzen ziren irizpideak ere ez gutxi.

Egin zen saiaketarik gogobetekoena, atzoko hizkuntz tipologiaren erpina dei dezakeguna. Edward Sapir-ek 1921-garrenean mamitutakoa da zalantza handirik gabe. Denetan onena izanik ere, ez dut hemen azalduko, luzeegia bailitzateke. Zorionez, argi eta garbi azalduta dago Sapir-en liburu ezagun batean. Liburu horri ingelesez «Language» deritza, eta frantsesera ere itzulirik dago. (Edward Sapir: *Le Langage*, éditions Payot, Paris). Liburu guztiz irakurgarri honen bosgarren eta seigarren kapituluetan idoroko dituzu hizkuntz tipologiaren gorabeherak, hainbeste hizkuntza zekizkien Sapir-ek zekuskien legez.

Atzoko tipologi multzo honi buruz, zer esanen dugu? Ohargarriena hauxe da: Sapir-enaz beste tipologietan beti nabari den ikuspegi eboluzionista. Frogabiderik gabe, hizkuntz mota batzuk beste batzuk baino hobetzat ematen ziren, eta tipo beherekoarik goikoetarainoko bilakakuntza edo eboluzioa ametitzen ia beti. Gaur, haatik, hizkuntz-lari gutxik sinesten du halakorik. Izan ere, hizkuntza baten bilakabidea ez da nahitaz lineala kondairan zehar: ez beti behetik gora, ez beti

goitik behera, gorabehera bereiztea zilegi bazaigu. Gurpilantzekoa ere izan daiteke, behin baino gehiagotan ikusia denez. Esate baterako: tipo A → tipo B → tipo C → tipo A. Ikus, besteak beste, C.T. Hodge-en lan hau: *'The linguistic cycle'*, *Language Sciences* 13 (1970).

Bada beste zerbait ere tipologia saio horietan gaur oso harri-garria gertatzen zaiguna. Den-denek, dela ohartuki dela ohartzeke, hizkuntzaren joskera edo sintaxia erabat alde batera uzten zuten. Hurrenkera edo ordena, joskeraren arazo bat aipatzearen, ez zuten inoiz aintzat hartzen, ez hitzen hurrenkera sintagmaren barrenean, ez eta sintagmen hurrenkera esaldiaren barrenean. Belaunaldi haietako tipologisten begietan, hizkuntzaren izakera oro hitzaren egituran datza soil-soilik.

Haientzat tipologia osoa zena, ordea, guretzat tipologiaren zati bat baizik ez da, morfologiaren arauzko tipologia, alegia.

Ohar horrekin muga onera heldu gara azkenik atzoko tipologia utzi eta gaurkoaz mintzatzen hasteko. Bazela garaia esango bide du baten batek. Tira, goazen aurrera. Bada, bai morfologiaren arauzko tipologia bai sintaxiaren arauzkoa ezagutzen da gaur. (Bai eta fonologiaren arauzkoa ere, baina hemen ez gara horretan sartuko.) Morfologiaren arauzko tipologia egitean, gure egunetako hizkuntzalariak, zehaztasunezari herra diotenez gero, indizeak erabiltzen dituzte, morfologia zehatz-mehatz neurtzeko asmotan sortutako zenbakiak. Antonio Tovar irakasle deitoratuaren idazlan bikain batean ikus dezakegunez, hamar indize dira, 1954-garrenean Joseph Greenberg iparamerikarrak eratuak. (Ikus, A. Tovar: *«Comparaciones tipológicas del Euskera»*, *Euskera XXII*, (1977), 449-476.)

Aurrena dugu hizkuntza baten sintesi indizea, hizkuntza horretan hitz batek, batez beste, zenbat hizki edo morfema dituen erakusten duena. Horren balioa jakiteko aski duzu edozein testu luzetxo batean kondatzea lehenengoz zenbat hitz, eta gero zenbat hizki, aurkitzen diren. Tovar irakaslearen lan horren arabera, euskeraren sintesi indizea 2,00 eta 2,13 artekoa da. Euskal hitz gehienek bi hizki baino gehiago dituztela diosku zenbaki honek.

Beste indize batzuk hauek dira: eransketa indizea (euskerarena: 0,59 eta 0,67 artekoa), elkarketa indizea (euskerarena 1,07), deribaketa indizea (euskerarena 0,07 eta 0,10 artekoa), malguketa indizea (euskerarena 0,78 eta 1,01 artekoa), aurrizki indizea (euskerarena 0,17 eta 0,23 artekoa), atzizki indizea (euskerarena 0,76 eta 0,88 artekoa), banaketa indizea (euskerarena 0,53) eta abar.

Ez dugu betarik indize horien definizio zehatzak hemen emateko. Jakina, eztabaidagarrikeria ere ez da falta hor-hemen. Xehetasunik

gehiago jakin nahi lukeenak Tovar-en idazlanera jo beza, bai eta, batik bat, bertan aipatzen den Greenberg-enera. Morfologiaren arauzko tipologia hau, bere zenbaki eta guzti, badirudi itzalean utzia dela azken urte hauetan. Izan ere, oraingo honetan benetan modan dagoena sintaxiaren arauzko tipologia da, eta, hain zuzen ere, arestian aipatutako Greenberg jaun berari esker. Nola gertatu zen hori? Hasiera 1961-garren urtean zen Iparramerikan. Orduan, horko hizkuntzalaririk ezagunen batzuk hitzaldi bana izan zuten hizkuntzaren lege unibertsalei buruz prestatutako bilera handi batean. Hamaika hitzaldien artetik eraginkorrena Greenberg-ena gertatu zen, izenburu honekin «Some Universals of Grammar with particular reference to the order of meaningful elements», hau da, Esanguradun atalen ordenari bereziki dagozkion gramatikako zenbait unibertsal.

Ikerlan mamitu honek arrakasta galanta izan du, batez ere, bi urtez geroago «*Universals of Language*» (Hizkuntzaren unibertsalak) zeritzan liburu batean argitaratu zenetik. Lan honetan hizkuntz lege orokorren atzetik zebilen egilea, bilera hura horretarako antolatua zelakoz. Hori horrela, azterketa horiek aurrera eramateko, tipologiaz baliatzen ikusteak ez gaitu harritu behar, Greenberg afrikalaria hizkuntza asko dakizkien tipologizale handi bat izanik. Ezin zezakeen, ordea, lehendanik osatutako tipologia ezagunik erabil, gogoan zeuzkan asmoei zegokien tipologia berria asmatu beharrean baitzegoen. Jakina, sintaxiaren arauzko tipologia baten premia izanik, sintaxiari daxe kioten irizpideak erabili behar. Baina sintaxia artean oso gutxi landua zelako, sintagmen hurrenkera edo ordena bakarrik hartu ohi zen azterkizun. Horrengatik, Greenberg-ek hizkuntzak bere gogara sailkatzeko zerabiltzan irizpideak sintagmen hurrenkerari dihoazkionak ditugu denak.

Nagusienak lau dira:

1. Aditza non? Hiru aukera hartzen ditu kontutan esaldiaren barruan: hasieran, erdian, eta bukaeran. Irizpide honen arabera, hiru hizkuntz mota bereiz daitezke:

a) Aditz aurrenekoak: keltar hizkuntzak eta polinesiarrenak, besteak beste.

b) Aditz erdikoak, subjektua - aditza - objektua ordena dutenak, alegia. Horien artean dira: ingelesa, frantsesa, indonesiera, guaraniera, eta beste asko.

c) Aditz atzenekoak, subjektua - objektua - aditza ordena dutenak: turkiera, japoniera, sumeriera, hindiera, eta beste asko eta asko.

2. Preposizioak ala posposizioak? Hau da, izensintagmaren ondoan kasumarkak baldin badira, non datozen, izenaren aurrean ala izenaren atzean?

3. Genitiboa non? Bere osagarriaren aurrean ala atzean?

4. Adjetiboa non? Izenaren aurrean ala izenaren atzean?

Hizkuntzak lau irizpide horien arabera sailkatuz, hogeitalau tipo (3x2x2x2) lortzen dira. Hori da beraz Greenberg-en tipologia.

Gauzak, ordea, ez dira lirudikeen bezain erraz. Aditzaren lekua kontutan hartzen duen irizpideak, esate baterako, nahikoa zalantza sortzen du. Zer egin, aditzak esaldiaren barrenean toki jakinik ez duenean? Eta gainera, zer hartu behar litzateke, azaleko egituraren hurrenkera, ala sakoneko egiturarena? Biak ez baitira nahitaez berdinak.

Beste irizpideek ere dudamudak sor ditzakete. Esate baterako, badira bai preposizioak bai posposizioak dauzkaten hizkuntzak, eta biotan garrantzi handiagoa zeinek duen ez da beti erraz esaten.

Baina, utz ditzagun alde batera zalantza hauek, eta goazen guri doakigunera. Zer da tipologia honetan euskeraren lekua? Galdera honi, Greenberg-ek berak ihardesten dio, bere hogeitalaugarren tipoa, azkenekoa beraz, «Basque type», euskal tipoa, deitzen duenean. Euskara eta zer edukitzen ditu tipo honek? Hona: Erdi-Sortaldeko hurriera eta urartiera, orain dela hiru mila urte hil ziren hizkuntza semitikoak, alegia; Australiako hizkuntza batzuk; Kaukasoko hizkuntza batzuk, halanola abjaziera eta kabardiera; California, Arizona eta Mexikoko hizkuntza batzuk, halanola yuma hizkuntzak, zuni, dakota; Alaskatik hegoaldera mintzatzen dira haida eta tlingit hizkuntzak; Afrikako hizkuntza batzuk, halanola kpelle, bambara, kunama, nubiera; baita tibetera, birmaniera eta inditxinako beste zenbait hizkuntza.

Guzti horiek euskeraren tipokideak omen dira.

Interesgarria al da hori? Bada, hori jakitearren beste galdera bat egin behar dugu lehenago: Greenberg-en kategoriak zertarako? Zer balio dute? Erantzuna bitxi samarra da. Haren tipologiaren baliorik handiena kategoria batzuk hutsik gelditzean datza, aurki ikusiko dugun lez.

Greenberg-en kategorien artean bederatzi gelditzen dira hutsik: IV (Aditza aurreko, Prep., Genetiboa aurreko, Adjetibo atzeko), V (Aditza aurreko, Posp., Genetiboa atzeko, Adjetiboa atzeko), VI (Aditza aurreko, Posp., Genetiboa atzeko, Adjetiboa aurreko), VIII (Aditza aurreko, Posp., Genetiboa aurreko, Adjetiboa atzeko), XIII (Aditza erdiko, Posp., Genetiboa atzeko, Adjetiboa atzeko), XIV (Aditza erdiko. Posp., Genetiboa atzeko, Adjetiboa aurreko), XVIII (Aditza atzeko, Prep., Ge-

netiboa atzeko, Adjetiboa aurreko), XX (Aditza atzeko, Prep., Genetiboa aurreko, Adjetiboa atzeko), XX (Aditza atzeko, Posp. Genetiboa atzeko, Adjetiboa aurreko).

Honelako kategoria bat hutsik gelditzeak hauxe erakusten digu: kategoria hori sortzeko hautatu ditugun irizpideen balio horiek ez dira ezkontzen, ezagutzen ditugun hizkuntzetan. Eta ezagutzen ditugunak aski izanik, tasun beroriek edozein giza hizkuntzan ere ezin ezkon daitezkeelakoan egotea ez litzateke beharbada ausartegia. Adibide bat emateko, XIII eta XIV kategoriak hutsik egotetik ondorio hau atera daiteke: aditza erdian duen hizkuntza batean Genetiboa bere osagarriaren atzean etortzen bada, preposizioak izango dira nagusi hizkuntza honetan, posposizioak inoiz ez. Badirudi hori hizkuntz lege orokor bat dela. Eta lege honen arrazoia aztertu eta aurkitzen badugu, nork daki ez ote garen azken buruan oraino estali zaigun hizkuntzaren egitura hein batean argitzera iritsiko. Eginkizun horretara abiaburu izateko balio duke Greenberg-en tipologia horrek. Horretaz kanpo, ordea, baliotasunik ez duela esango nuke. Zergatik? Tipologia egoki bati tipokideak elkarren antzekoak izatea eskatzen diogu. Baina hemen kategoria berean ezartzen diren hizkuntzek sarritan elkarren antzik batere ez dutela begien bistan dago. Begira bestela lehenengo kategoriari. Lau tasunek mugatzen dute: aditz aurrekotasanak, preposizioen nagusitasunak, genetiboa bere osagarriaren atzera etortzeak, eta adjetiboa ere bere izenaren atzera etortzeak. Kategoria honetan sartzen diren hizkuntzen artean honako hauek aurkitzen ditugu: keltar hizkuntzak, hizkuntza semitiko zahar gehienak, malagasiera eta Polinesiaiko hizkuntza asko (samoera, tonganera, hawaiiara, maoriera, eta abar). Hizkuntza hauen berri apurtxo bat bederen dakienak badaki ez dutela elkarren antz handirik.

Berdin IX kategoriari begiratzen badiogu. Aditza erdiko dugu hemen, beste tasunak lehengoak berak. Kategoria honen barruan hizkuntza hauekin topo egiten dugu: hizkuntza erromaniko gehienak, gaurko eberkera, thailandiera, vietnamiera, eta Bantuko hizkuntza gehienak. Oso da beraz kategoria heterogeneoa.

Horrengatik, kabardiera, nubiera, kpelle, zuni, dakota, haida, tlingit, tibetera, birmaniera eta euskara kategoria beraren barruan aurkitzea arras axola gutiko gauza dugu. Horien artean bat aukeratzeko, birmanieraren berri dakienak badaki sobera hizkuntza hori eta euskara kontu gehienetan guztiz bestelakoak direla.

Ikusten dugunez, Greenberg-ek esku-artearen darabiltzan irizpideak ez dira inbla ere gauza hizkuntza guztiak gogobeteko moduan sailkatzeko. Eta hori, gutxiegi direlako ez ezik, txarki hautatuak direlako ere bai. Bere hogeitalau kategorietarik bederatzi hutsik gelditzeak iriz-

pide horiek elkarrengandik independenteak ez direla erakusten baitigu argi eta garbi.

Beste irizpide egokiago batzuk behar izanen ditugu, benetan diagnostikoak gerta daitezkeen batzuk. Irizpide hoiek, ordea, nork eskainiko dizkigu? Nora joan? Agian haurrarenagana, nagia inurriarenagana bezala.

Tipologiak, benetan ona izateko, hizkuntz teoria on bati loturik izan behar duke. Hizkuntz teoriak berriz, ona izateko, haur batek bere hizkuntza nola ikasten duen aditzera emateko gauza izan behar du. Izan ere, ez da egia haur batek bere inguruko hizkuntza imitatuaren imitatuaz ikasten duela, askok hala uste badute ere. Papagaiak bai imitatuaren imitatuaz ikasia du entzun erazten dakiena. Baina edozein amak ezin hobeki dakienez, hizkuntza erabiltzean bada alde ederra haurraren eta papagaiaren artean. Frogabide bat baizik ez dut aipatuko, bestela luzeegi litzateke. Frogabide hori haurrak egiten dituen huts-okerretan beretan datza. Sarri aski, hiztun haziontzat okerra litzatekeelako, inorengandik ezin entzun izan duen esakera bitxi batekin harritzen gaitu haurrak. Horra hor esaten dudanaren frogua garbia. Entzuna errepikatzea baino askotaz gehiago egiten duela haurrak horrek erakusten digu argi eta garbi. Inguruan entzuten dituen esakerak, hein batean adituz gero, datuak bihurtzen zaizkio. Eta datu horiekin eratuz doa gramatika antzeko gogoegitura hori ez du ezerezetik sortzen haurrak. Haurra gizakia denez, giza hizkuntzarako aurreprogramatua da. Chomsky eta beste jakintsu askoren iritzietan.

Baina euskal haurra ez da euskara ikasteko aurreprogramatua, ez eta txinatar haurra txinera ikasteko. Txinan jarritako euskal haur gazte-gazte batek bertan nekerik gabe ikasiko du txinera. Bai eta txinatar txikiak euskara, Euskadin hazten baldin bada. Beraz, edozein haur zein-nahi hizkuntza ikasteko gauza da. Haur gaztea, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik, hizkuntzak ikasteko makina da. Edozein hizkuntza hain erraz ikasten duela eta, esan daiteke hizkuntz teoria orokor baten antzeko programa bat edo badaramala haurrak barrenean. Gramatika unibertsalari buruzko azterketak programa horren bilaketa baizik ez lirateke, ikusmolde hau zuzena bada.

Programa horren xehetasunak bagenekizki, guztiz gogobeteko tipologia edukiko genuke eskuartean. Hona hemen zergatik: Munduko hizkuntzak hain desberdinak baitira, horrelako programa batek zenbait puntutan aukerabide batzuk libre utzi behar dituela ikusten da. Halako moldez non bere inguruan aditzen dituen datuek har eraziko baitiote aukerabide bat haurrari, programak eskaintzen zizkion beste aukerabideak betikoz baztertuta gelditurik. Orduan, zenbat aukerabide, hainbat hizkuntz mota. Eman dezagun, esate baterako, programaren barruko

hamar puntutan bi aukerabide aurkitzen direla. Bada, 210=1024 hizkuntz mota izango ditu gure tipologiak.

Aukerabideak dauden puntuei parametroak deritzenez gero, go-goan daukaguna parametroen arauzko tipologia dei dezakegu.

Horrelakotsua izanen da, nik uste, biharko tipologia. Greenbergena baino askotaz egoki eta mamitsuagoa baita orain aurkeztu berri duguna.

Zergatik diot biharkoa? Ez al dugu gaurko? Ez. Egia da bai, Chomsky eta bere lankideak azkeneko urte hauetan parametroak aztertzeke lehiatu direla, argibiderik asko lortuz. Hala ere, gauza gehiegitan oraindik zalantzamalantzetan dabiltza, parametroen arauzko tipologia hori behar bezala eraikitzeke. Beraz, goizegi da tipologia horren barruan euskarari dagokion lekua zehazteko. Helburu horretarako euskararen ezaugarri interesgarrienak zeintzuk diren erdikustera irits daiteke onenean parametroei buruzko ikerketa sakonak ongi ezagutzen dituenen. Badira Euskadin horrelako zenbait, baina oso gutxi. Azkenik, hau esan beharrea nago; Gezurra badirudi ere, gaurkoz euskal gramatikaren berri urria daukagu arlo honetan deus fidagarria denik baieztatzeko. Komeni litzateke euskalariiek gogor lan egitea, egoera tamalgarri hori lehenbailehen alda dadin. Beraz, bada eginkizunik. Ekin eta jarrai!

EDIZIOAK ZERTAN DIREN

Roberto Manjón

Euskera bere ohizko eremu murrizetatik «plazara» irten ari den une honetan, itxaron zitekeenez, inoiz baino aktiboago dabilta argitaletxeak lanean, zeren «plazara irten» edo normalizazio-prozesuak «horixe» eskatzen baitu: produzio literarioaren eklosioa, euskeraren erabilkera zabalagoa irakaskuntzan, zientzian, komunikabideetan zein instituzioetan, eta honek inoiz baino liburu gehiago kaleratzea ekarri du, jakina. Kopuru errealari begira idatzitakoa asko izan ez arren, kontrastez, inguraturik garela irudi lezake. Izan ere, euskal tradizio literario eta kulturalaren pobretasuna kontutan hartzen badugu, bapateko eklosio honek oinarri sendorik ote duen (balio edo kalitatearen aldetik) galde daiteke baita argitaratzen direnen artean horrelako mailarik askok merezi ez dukela sumatu ere.

Jakin dakigu, ze, alde batetik, euskeraz argitaratzen den guztia, balio eskasekoa bada ere, sektore bat erosteko prest dagoena beronen aldetik, beraz, diskriminazio aukeratzaille askorik ez dugu ikusiko; beste

aldetik, argialetxeek diskriminatu ere, gutxi diskriminatzen dutena, gainera, eta zer ikusi estua bide du arazoan, euskal instituzioek ere ez omen dute «gehiegi» diskriminatzen subentzioak banatzerakoan, euskeraz idatzitakoari bagagozkio.

Baina diskriminatu beharra dago euskeraz egindako literaturak eta euskerak berak gaur eguneko behar izanei erantzuteko balioko badute. Honexegatik euskal kritika literario serio eta, behar izanez gero, «gordina» sortzea izan daiteke premiarik behar izanik premiazkonetariko bat, kritikak irakurleari diskriminatzen lagundu behar baitio: atxekimendu itsu eta erabatekoen garaia igarota, kritikaren garaian murgildu behar dugu. Era berean eta jada filologiaren alorrik klasi-koenaren inguruan, argitarapen erriguroso eta kritikoak ezinbestekoak dira euskeraz literatura eta testuen historia ezagutzeko eta baliotan jarri ahal izateko, bestela (egin diren liburu zahar eta euskal klasiko bazu-zen argitarapen suntsitzaileak edo ilea larritzeko moduko triskantzak argialetxe nahiz instituzio nahiz irakurleen gaitzespena jasotzen ez badute, alegia) euskal filologiak zenbait zaleturen eskuetan dagoela (badakit filologo konpetenterik ere falta ez dena), ez du inolaz ere gainerako filologietara hurbiltzeko pausurik emango.

Defendatzen dut, bada, ze politika editorial serio batek diskriminatu behar duela, baita jakin ere, hala testu zahar eta berrien argitarapenek nola lan kritikoek zeintzu ezaugarri eta gutxienezko baldintza bete behar dituzten, lantzean behin gertatzen den bezala, autore baten liburuaren ordez gure laguntxo baten argitarapen «hobetua» hel ez dakigun.

Argitaratzen dena eta edizioa kalitatezkoa izan dadila lortzea, ez da bakarrik instituzio eta argialetxe edo filologoaren erantzunkizuna bakarrik, irakurleek (espezializatuek) eta hauen artean filologiako ikasleek jakin behar baitute txapuzak baztertzen. Aipatutako irakurleko potentziala daude edizio motez jabetu behar da baina bereziki «kritiko» deritzanaren ezaugarriez. Irakurleko beroni begira, hurrengo lerroetan edizio moten gainean sarreratxoren moduko bat egitea hartuko dugu gure gain.

1. LANKETA FILOLOGIKOA ETA ARGITARAPEN MOTAK

Filologia tradizioz, testu zaharrak jatorrizko irakurketan berregin, argitu eta gehien bat ikuspegi linguistikoaz interpretatzeko ikertzen dituen diziplina izan da. Baina filologia modernoa hermeneutikoa da: lanketa filologikoak egiteko linguistikaren oinarri zientifikoak, jakintza historikoa eta oro har, testuaz jabetzeko lagun dezaketen jakintza guztiak ezinbestekotzat jotzen ditu.

Hortaz, testua birkonpondu ez ezik, sakonki ulertu eta erizpide argiekin baliotan jarri nahi du. Marchese eta Forradellas-en literatur hiztegiak¹ filologiaren hurrengo zereginak agertzen ditu:

- Testu kritiko² eskaintzea.
- Testuaren aldagarrien multzoa identifikatu eta barrutik (estiloa, balioak,...) estudiatzea.
- Testu-tradizio³ testuaren karakterizatzailea bezala estu dia-tzea: obraren bizitza, harrera, transkripzio eta zabaltze motak, erreakzioak eta abar.
- Testua bere konplexutasunean (kulturala, historikoa, literarioa...) baloratzea.

Jakina, zereginon artean baten bat gailentzen da askotan, momentu eta objektuaren arauera, ondorioz, edizioak ere ezberdinak izaten dira, gorabehera testualik ez duen obrak (lan berrietan ohizkoa den antzera), esaterako, ez baitu «kritikoa» izan behar, edo halako obrak kritika testualik behar izan ez arren, beraren ulerkuntza eta baliotapena erreztatzeko ohar asko eskatzen baitu, edo grafema eta hizkuntzaren fonetikaren historiarako interesgarria izanik, erreproduktzio zehatza merezi baitu. Ildo beretik, «edo...» kate luze bat egin genezake, beti ere, interes ezberdina ardatz genukelarik, baina erizpide diferenteetatik sorturiko edizio mota ezberdinak agertzeari hobetsiko diogu.

2. EDIZIO MOTAK

Irakurleko potentzialaren eskuetan edizio mota garrantzitsuenen ezaugarriak jarri nahi ditugunez gero, ez gagozkie oraingo honetan ikuspegi filologikoaren aldetik arreta merezi dutenei bakarrik: «kri-

¹ MARCHESE A. FORRADELLAS J. *Diccionario de retórica, crítica y terminología literaria*. Ariel. Barcelona. 1986.

² Geroago lotuko gatazka edizio kritikoaren zer den mugatzeari, momentuz, nahiko izan bedi «kritikoa» ahalbait testurik zihur eta autentikoena dela esatearekin.

³ Tradizio diplomatikoa Lázaro Carreterren hiztegiak (*Diccionario de términos filológicos*. Gredos, Madrid 1968) dio «conjunto de manuscritos o impresos que han transmitido hasta nosotros un texto literario (tradición directa) así como de sus fuentes literarias, sus traducciones a otras lenguas, comentarios, alusiones, citas, imitaciones, parodias, etc., que puedan ayudar de algún modo a fijar el citado texto (tradición indirecta). La reunión de todos estos materiales constituye la 'recensio' ».

tikoa» bereziki aztertu arren, gainerakoak ere (ezagunenak) azalduko ditugu.

2.1. *Lanketa filologikoaren arauera*

Barlantedun⁴ edizioa

Testuak dituen aldagarri guztiak aurkezten ditu (interpolazioak, aukerak, idazleak bazterturikoak eta abar). Oso interesgarri suerta daiteke kodize edo esku-izkribu ezberdinak dituen obraren kasuan, batez ere, genealogia argi ez badago, baina komenigarria izan daiteke autore moderno konsagratuen obra ere barrutik ezagutzeko⁵.

Ohardun⁶ edizioa

Arazo testualik ez duen balio kultural, linguistiko edo zailtasun handiko obretarako oso egokia da⁷. Testuarekin batera argibide mota nagusi bi dakartza:

- Linguistikoak: hitzak, modismoak, egitura bitxiak...
- Kulturalak: instituzioak eta ohitura aipatuak, erlazio literario, historikoak, erreferentzia mitikoak...

Edizio paleografikoa

Esku-izkribu bat argitaratzen du baina dituen ezaugarri grafiko guztiekin; hala ere, bestelako aldaketak izan ditzake:

- Puntuazio markak.
- Loturiko hitzak bereiztea
- eta abar

⁴ Edición de «variantes».

⁵ Ikus bedi KAFKA FRANZ. *El proceso*. Seix barrai. Barcelona. 1983.

⁶ Edición «anotada».

⁷ Ikus bitez:

GOETHE JOHANN WOLFGANG. *Fausto*. Cátedra. Madrid. 1987.

LUCRECIO. *De la naturaleza de las cosas*. Cátedra. Madrid. 1983.

Edizio kritikoa

Aspaldikoa da testuen transmizioan errakuntzak galerazteko bilakuntza, filologiaren hastapenetatik ezaguna, ze obra adierazi fundamentalen («res») trasmisorea delako konzepzioarekin batera, adierazi singularren («verba») interpretatze okerrak eragin zitzakeen auzi exegetikoez kargutzen ziren, gaur egun bezala aspaldiko kultur gizonak ere, areago baldin testuek Jainkoaren berba (Biblia) azaltzen bazuten edo kulturaren oinarritzako balioa (Platón, Aristóteles...) bazuten. Honelaxe sortu ziren filologia bibliko eta klasikoa. Berauen metodoak testu arruntetan ere erabiltzen hasi ziren geroago, «nazio» bakoitzaren sistema linguistiko eta kulturala «berreraikitzeotan» oraingoan, eta helburua antzemateko ezinbestekoa zen, hain zuzen, autorearen hitzari ahalbait zehatzen eustea.

Edizio kritikoa da filologia modernoan helburu berberarekin egindako ahalegin errekonstruitzailearen emaitza. Honelaxe definitzen du Lázaro Carreterrek bere hiztegian⁸:

«Trata de reconstruir un texto viciado en su transmisión, acercándolo, en lo posible, al que el autor consideró definitivo. Va acompañada de todas las informaciones necesarias sobre los materiales en que el editor ha basado su trabajo y sobre los criterios con que ha realizado su reconstrucción.»

Honenbestez, bada, argi dago bere helburua autorearen jatorrizkoa litekeen testua berreraiki edo finkatzea dena, zein kopisten hutsek (inprenta aurreko esku-izkribu eta kodizetan) edo moldiztegiko kajisten hutsek aldatu eta desitxuratua izan baita, garaiko (garaiko eta tokian tokiko ager daitezkeen beste kausa mota batzu ahaztu gabe, hala nola espurgazioak, «zuzenketa» gramatikal edo estilokoak eta abar).

Aurreko atal batetan adierazi dugun bezala, testu guztiek arazo berdinak erakusten ez baitituzte, ez dago beti edizioa kritikoa izateko premia berbera; izan ere, asko aldatzen da obraren arauera, areago, edizio kritikoa prestatzeko lanak eta beraien burutzapena guztiz diferenteak izan daitezke jatorrizko testuak a) esku-izkribuak (gogora bidez egoten diren arazo genealogiko larriak) edo b) inprimatuak diren arauera, azken kasuan, argitarapen fidagarriak badira («princeps» edo «definitibo»)⁹, lana biziki erreztatzen baita. Erdal filologietan a) tipoko testuekin dihardute gehienetan, euskal filologoez, ostera, euskeraz egindako literaturaren pobrezia eta berankortasuna direla medio, b) ti-

⁸ LÁZARO CARRETER F. *Diccionario de términos filológicos*. Gredos. Madrid. 1968.

⁹ Kontzeptuak argitzeko irakur bedi «2.2.» atala.

pokoekin. Edizio kritikoaren premiari gagozkiolarik, testu zahar edo aspaldikoekin ezinbestekoa izaten dela esan behar dugu, zeren komunzki gorabehera testualak izaten baitituzte:

- Jatorrizkoen galtzeak.
- Kopia desitxuratuak (errakuntzak, sustituzioak, interpolazioak, espurgazioak...).

Eta hoanako hau ikertzen da:

- Obraren tradizio zuzena eta ez-zuzena (3).
- Kopisten ohiturak.
- Autorearen epistema¹⁰.

Kodizeak kolazionatu¹¹ egiten dira kopiatuak alde batera uzten direlarik; honez gero, material eta dokumentuen genealogia sortzen da («stemma») hauxe baita filologoak obraren arketipo posiblea (objetoa) proposatu ahal izateko ezinbesteko abiapuntua. Edizio definitibo edo autorearen esku-izkribu ezagunean oinarrituz gero, arazoak askoz ere gutxiago eta sinpleago izaten dira. Hona hemen zerrenda labur bat:

- Moldiztegiko errakuntzak zuzentzea, baina errakuntzak baino ez direla zihur dakigunean, bestela, liburua birsortzen ibil gaitzke eta. Ez da lan txikia izaten, gaur egunean hutsak gutxi izan gabe, gure arbasoak sarri ez baitziren oso arretatsuak izaten.
- Autoreak berak ustekabeen egindako hutsak zuzentzen dira. «ustekabeen» azpimarratu nahi dugu, bestelakoak ez baitira hutstzat jo behar autorearen beraren, hizkera baten edo garaiko ezaugarriak eta aukerak baino; azken batez «hutsak» (bere garaiko gramatikariek halakotzat dituztenean ere), autoreak ontzat emten dituenen edo sarri agertzen direnean (ultrakorrektzioak, zalantzak...) hizkuntza eta kulturaren historia ezagutzeko urrezko dokumentua ez ezik, testua eta idazlearen kokapen, interpretazio eta balioztapenerako guztiz beharrezko suertatzen dira, ondorioz, lan filologikoan («1.» atalean definitu dugun bezala) oinarritzko materiala delarik. Ez bedi ahantz lanketa filologikoak autoreak nahi lukeen testua proposatzen duela, ez halako linguistak idatzi nahi lukeena, azken honeta-

¹⁰ Hots, garai baten jakintza eta ideologia beraien zabaltasunetik kontsideraturik.

¹¹ «tradizio zuzenaren» material guztien edukia konparatzean datza.

rako, bada, papera eta luma hartuta, nahi duenean bere aukera ere izan dezake eta.

- Testu zaharretan ortografia eta sarritan hitzak ere ondo finkatu gabe agertzen baitira (Real Academia de la Lengua XVIII.ekoa da, gainerako akademien antzera) filologoak idazleak darabiltzan ereduak, arauak eta salbuespenak argitzen ahalengintzen dira. Testuaren edizio berria azkenon arauera sistematizatuz gero, salbuespenen berri ematen dute ohar bidez, irakurleak autorearen aukera ezagutzeko bidea beti izan behar baitu, era berean, grafia sistema gaurkotzekotan, grafema bakoitza zeri dagokion argitu beharra dago hala hitzaurrean nola behar beste oharren bidez ere. Grafia sistemen gaurkotzea zaharrak duen balio historiko edo filologikoaren arauera, edota bere «irakurgarritasuna» (gogora bedi gaztelera zahararen txistukarien arazoa) zein berriro sistematizatuko dagoen erreztasuna kontutan hartuta, kasu bakoitzean erabakitzen den gorabehera da. Orohar, obran igarritzen diren arau eta joera nagusiak azaltzen dira hitzaurrean, salbuespenak eta kasu bitxiak aparato kritikoaren bidez argituzeko.

Labur dezagun orain artekoa esanez, ze, arauz, edizio kritikoaren testua. aparato kritiko zabal batek lagunduta agertzen dela, non argitaratzaileak baztertutako aldagarriak agertu, zuzendutakoaren berri eman, eta egindako aukeretarako arrazoiak erakusten baititu.

Baina. nola irakurleak testu zaharrak ulertzeko oztopo asko aurkitzen baitu, eta bide batez, testuok kultura eta hizkuntzaren historiaren aldetik interes handikoak baitira. gehienetan, edizioak kritikoak izateaz gain, ohardun eta komentatuak izaten dira. Halatan, nola hitzaurre zabal batetan egiten baita, hala ohar ugariez ere hiztegi mailako argibideak eskaini, nekez ulertzen dena argitu, eta eskuarki, interes linguistiko, literario edo kulturala izan dezakenean berri ematen da.

Labur bilduz: lanketa kritikoak testua finkatzen du edo behintzat arketipoa eskaintzen digu; edizio komentatu edo ohardunekin bat eginda. obraren dimentsio zabalak argitzen dira.

2.2. Jatorriaren arauera

Lanketa kritikoan erabiltzen diren materialen balioa ez da beti bat edo berdina. Aurreko edizioen artean **princeps** eta **definitiboa**

direlakoak gailentzen dira fidagarritasunaren erizpideari dagokionez.

- **Princeps** da obra baten lehendabiziko edizioa, beraz, autoreak berak zaindua izaten baita, oso baliotsua darabilgun ikuspegi-tik.
- **Definitiboa** dugu idazleak jorratutako azken argitarapena, hortaz, bere garrantzia agertu beharrik ez dago.

Princeps eta definitiboak dira jatorrizko esku-izkribuekin batera testurik baliotsu eta erabilgarrienak.

2.3. *Beste zenbait sailkapen*

Errepresentazio ikoniko eta formatoaren arauera:

- **Edizio diamantea**: oso formato eta tipo txikikoa.
- **Facsimil edo fotokopia**: Esku-izkribu edo inprimatu bat baliapide fotografikoaz erreproduzitzea (testual zein ikonikoa) oso mesedegarri suerta dakiguke.

Kokapen historikoagatik:

- Edizio inkunablea: Mainz-en¹² Gutenberg-ek, Fust-ek eta Schaeffer-ek tipo gotikorekin lehen liburuak inprimatu zituztenetik inprentaren lehen berrogei ta hamar urteetakoei deritze (1455-1500). balio historiko ukaezina dute, baina dirutan dutena ez da gutxiestekoa antza.

Gaiarekin amaitu baino lehen ohar pare bat:

- «Edizioa» da, inprimaldi batez eta molde berberaz inprimatutako obra baten ale guztien multzoa; edizioaren orden zenbakia aldatu arren, aurreko baldintzak betez gero, beti edizio berekoa izango da. Har bedi hau kontutan zeren aspaldiko argitaratzailen pikareskaren kausaz (liburuak errezago saltzearren), edizio bakarreko liburuei orden zenbaki ezberdinak jartzen baitzizkieten batzutan. Baina honek ez du suposatzen inprimaldi eta edizioa gauza bera direnik: ikuspegi bibliografikoaz, edizio «berri» batek, baldin testuen aldaketarik egiten ez badu, ez du interes

¹² «Maguncia» gazteleraz.

berririk eta ez da edizio berrizat jotzen, berrinpresiotzat baino; adibidez:

Fernando Lázaro Carreter, 1981.

Editorial Gredos, S.A.

Sánchez Pacheco, 81, Madrid. España.

PRIMERA EDICIÓN, Septiembre de 1953.

SEGUNDA EDICIÓN, Febrero de 1963.

TERCERA EDICIÓN, Mayo de 1968.

1.^a reimpresión, Marzo de 1971.

2.^a reimpresión, Noviembre de 1973.

3.^a reimpresión, Diciembre de 1974.

4.^a reimpresión, Septiembre de 1977.

5.^a reimpresión, Enero de 1981.

Adibidea Lázaro Carreterren hiztegitik bertatik hartua da, baina beti ez baita honen argiro jotzen, adi ibili beharra dago ez diezaguten «berrizat» sal, berrinpresioa dena.

3. EUSKERAZ EGINDAKO EDIZIOEN GAINEAN ZERBAIT

Amaitzeko, gaur eguneko egoera pixka bat komentatzearen artikulu honen hasieran esandakoetara itzultzea komeni delakoan nago; izan ere, argitarapenen «eklosioa» aipatzen genuen baina beronengatik ere, ez genuen uste berez nahiko denik: euskal kultura, ikerketa, literatura ibili diren osin baltzetik irtengo badira, seriotasuna exigitzea eta argitaratzen denaren gutxienezko kalitate bat ezinbestekoa dela nioen. Hemendik ondorio bi:

- Kritika iterario diskriminatzailearen premia.
- Argitaratze moduaren kalitatea zihurtatzeko premia, honeitarako argitaratzaile eta irakurle goaren edizio mota ezberdinei buruzko ezagupenak gehitu eta diskriminatze ahalmena handitzea baldintza izanik.

Bigarren arazo honen inguruan ibili naiz artikuluan zehar, oraingoan, dugun egoera gaingiroki bada ere laburtu nahi nuke.

Lehenago esan dugun bezala, testuarekiko errespeto falta handia izan da euskal edizio askoren ezaugarririk nabarienetariko bat, zeinek inguruko filologia eta kultura «serio» eta «landuagoetatik» merezi zuen lekura alendu baikaitu; jakina, euskararen munduaren egoera larria da eta izan da: «A perro flaco todo son pulgas».

Erdal filologian ere dena ez da idilikoa izan, jakina, eta kaudilloaren erregimenak zerikusi handia izan du. Gure artean, ofizialez gain, zentsore zaleturik ere ez dugu falta izan, nonbait, eta euskal klasikoren bat «hobetua» izan da. **Garoa**-ren hirugarren edizioaz ari gara. Ezaguna denez, Eibar edo eibartarren «kontra» esaten diren guztiak, besteak beste, ezabatuak izan ziren: Ez bedi euskaldunen artean borrokarik izan! Mitxelena zenak honako hau zioen:

*«Inork ikusi ote du, inoiz eta inon, erderaz, «Don Quijote» edo «David Copperfield» hobeturik? Farre egingo luke lasai jendeak horrelakorik ikus baleza. (...) Erderaz farregarri dena, beraz, ez da apika agitz goragarri izango euskeraz ere».*¹³

Hortaz, **Garoa 3.** hau *La celestina* eta *El Lazarillo de Tormes*-en edizio batzu bezain espurgatua da.

Hau orain dela urte «asko» gertatua da (1956.ean); jo dezagun, bada, kasu freskoago eta diferenteetara (ardura berezirik ez duelakoan ez ditugu argitaletxea, ezta liburua edo prestatzailea ere aipatuko).

Hona hemen duela gutxi XIX. mendeko autore baten testuan egindako zenbait aldaketa (zerrenda ez luzatzearen adibide bakar batzu baino ez ditugu emango, baina testua oso desitxuraturik geratu dela ez da ahaztu behar):

Jatorriz:	Edizioan
-EN (gen. sing.)	-AREN
-ENTZAT (dest. sing.)	-ARENZAT
-AREN (gen. sing.)	-EN

¹³ Argibide gehiago nahi izanez gero. MITXELENA LUIS «Domingo Agirre garoa Irugarren agerraldi obetua» in Mitxelenaren idazlann hautatuak. Ediciones Mensajero Bilbao 1972 Artikulu honetan filologo entzutetsuak «hobekuntza» gogorki astintzen du.

-ARENTZAT (dest. plur.)	-ENTZAT
-OREN (gen. plur. hurb.)	-ON
-AI (dat. sing.)	-ARI
-ARI (dat. plur.)	-AI
-AZ (instr. -soziat. sinkretismoan)	-AZ
- «38 egunean, urte bian»	- «38 egunetan, urte bitan»
-RUTZ (adlat. noabidezkoa)	-RUNTZ
-Orrek, arek	- Oreek, areek (e.a.)

Eta zerrenda luze bat: nahiko dugu momentuz. fonetismo gehien gehienak ezabatu eta aditz asko «gaurkotu» edo «normalizatu» egin direla jakitearekin. gainera, honenbeste aldatuta, salbuespenak, aukerak, arrazoiak, hipotesiak e.a., argitzen dituen ohar bat ere ez dago liburuan zehar, hau da, testua «finkatzen» du (???) baina ez dakar aparatu kritikorik (Nola ekar dezake «kritikoa» ez izanik? Aldiz, «hobetu» egiten du): XIX. mendeko autore baten obra irakurri nahi duenak begira dezala ondo zer erosten duen. Dena dela eskertzekoa da hitzaurrean aldaketok egingo direla oharterazi mizana.

Hurrengo adibide biak sabinotarren hiperbizkaieraren eragina-pean idatzi zuten autore oso ezagun eta garrantzitsuen testuak ditugu. Aurrekoan bezala, aldaketa batzuren berri baino ez dugu emango eta jakina, aparato kritikorik ez dakarte edizioek.

1.	Jatorriz Edizioan
dagola, dagon	dagoala, dagoan
ezagututziatz, makurtutzia	ezagu(t)zeaz, makur(t)zea
dituz, ditubez, zatubez	ditu, ditue, zaitue
Dautse, dautsuz, dautsut	deutse, deutsuz, deutsut
dedixan, dagikioke, dagiket	daitezán, daikioke, daiket
apaldu, aurduban, piparra	afaldu, orduban, piperra

2.

Olerkija	olerkia
eskuba	eskua
zubek	zuek
neskatil / -tila	neskatila / -tila
zar	zaar
mai	maai
nastau	naastau
jazoko leike	jazoko litzake
etorriko zeintekoz	etorriko zintzakez
ikusiko baneuke	ikusiko baneu
etorriko balirateke	etorriko balira
Eta abar,...	

Zorionez, aparato kritikorik izan ez arren, prestatzaileek hone-lako aldaketak egin dituztela ohar erazten digute hitzaurretan, baina honek ez du, uste dut, egindakoa justifikatzen: testuotatik funtsezko ezaugarriak izan dira erauziak. Ez bide da izan grafema sistemaren aktualizazio simple bat, sistema morfosintaktikoaren birsorketa bat baino, baita grafietan ere, ez baita ahaztu behar XIX. mendeko markinarren antzera fonetismoak grafietan isladatzea gerla aurreko idazleen aukera oso karakteristiko delako. Honez gero, hiperbizkaiera eta bere garaiko autoreak zein obrak ezagutzeko hobe dugu beste edizio batetara jotzen badugu.

Ez nuke amaitu nahi errealitatearen neurri zehatza ematen ez duen ikuspegi ilun honekin: ez dira falta kritiko eta fidagarriak diren edizioak, areago, ugaldut egin dira azken urte hauetan, aurrerapausu ukaezinak ematen ari direlako frogaz argia. Deustuko Unibertsitatetik

bertotik irten beharrik ez dago diodanaz ohartzeko. Eta edizioa kritikoa ez denean, eskertzekoa da behintzat Jon Kortazarrek Lauaxetaren olerkiak aurkeztu dituen modua¹⁴:

«Edizioa ez da kritikoa, komentatua bai ostera. Ez gara ibili Lauaxetaren olerkien aldakuntza guztiak bildu nahiean. Lizardiren olerkiez osotu zen liburua izan dugu gidaritzat. Olerkiak bildu eta oharrez aberastu irakurketa. Horixe dugu helburu nagusi.»

«Ortografia aldetikoa izan da guk egindako aldaketa bakarra. Lauaxetak kakotxaz idatzitako hizki bustiak «r», «t», «i» gaurko eraraz idatzi ditugu: «rr», «tt», «ll». Beste aldaerarik ez dugu sartu, testuaren errespetuan eta hizki bakoitzaren balio poetikoaz sinesturik.»

¹⁴ LAUAXETA. *Olerkiak*. Erein. Donostia. 1985. 29 orr.

**ERABILI, ESAN eta ERITZI
MENDEBALDEKO BIZKAIERAZ**

Iñaki Gaminde

Lantxo honetan aurkezten ditugun aditzak mendebaldeko bizkaieraz sano erabiliak dira, gainerako euskalkietan ez dirudi horren erabiliak, ez gaur ezta aspaldi ere, izan direnik.

Mendebaldeko bizkaiera Bonaparte erregegaiari jarraikirik hartu dugu oinarritzat, hala nola berak egindako barietaateen banaketa ere; hona hemen barietate horietan guk aukeratu ditugun herriak (ikus bedi 1. mapa):

1. Plentziako barietatea.

- | | |
|--------------|---------------|
| 1.1. Lemoiz | 1.7. Erandio |
| 1.2. Berango | 1.8. Sondika |
| 1.3. Gatika | 1.9. Loiu |
| 1.4. Urduliz | 1.10. Derio |
| 1.5. Laukiz | 1.11. Zamudio |
| 1.6. Leioa | 1.12. Lezama |

2. Arrigoriagako barietatea.

2.1. Buja	2.5. Zollo
2.2. Basauri	2.6. Arrankudiaga
2.3. Galdakao	2.7. Zaratamo
2.4. Arrigorriaga	2.8. Zeberio

3. Orozkoko barietatea.

3.1. Bengoetxea	3.3. Ar baitza
3.2. San Martin	3.4. Urigoiti

4. Arratiako barietatea.

4.1. Larrabetzu	4.4. Artea
4.2. Bedia	4.5. Dima
4.3. Igorre	4.6. Zeanuri

5. Bermeoko barietatea.

5.1. Bermeo	5.4. Gabika
5.2. Mundaka	5.5. Elantxobe
5.3. Murueta	5.6. Arteaga

6. Gernikako barietatea.

6.1. Mungia	6.9. Axangiz
6.2. Gamiz	6.10. Gorozika
6.3. Meñaka	6.11. Epaltza (Zornotza)
6.4. Arrieta	6.12. Bernagoitia (Zornotza)
6.5. Errigoiti	6.13. Iurreta
6.6. Forua	6.14. Abadino
6.7. Muxika	6.15. Izurtza
6.8. Mendata	6.16. Mañaria

7. Otxandioko barietatea.

7.1. Otxandio	7.3. Oleta
7.2. Ubidea	7.4. Nafarrate

1. ERABILI**1.1. PLENTZIAKO BARIETATEA**

3sg.	Lemoiz	Berango	Urduliz	Gatika
	dabilt	dabilt	dabiltt	dabilt
	—	—	dabillek	dabillek
	—	—	dabillena	dabillena
	dabill	dabill	dabill	dabill
	dabildu	dabilgu	dabilgu	dabilgu
	dabixu	dabiltzu	dabiltzu	dabiltzu
	dabixue	dabiltzue	dabiltzu	dabiltzue
	dabilde	dabilde/dabille	dabilde	dabille

3pl.	dabiltes — — dabiltzes dabildus dabixus dabixues	darabiltzeas — — dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzues	dabiltzeas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzus	dabilleas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzues
3sg.	Laukiz dabiltt dabilek dabillena dabill dabilgu dabiltzu dabiltzu dabille	Leioa dabilt dabilek dabilena dabil dabildu dabiltzu dabiltzue dabilde	Erandio dabilt dabilek dabilena dabil dabilgu dabiltzu dabiltzue dabilde/dabildi	Sondika dabilt dabilek — dabil dabilgu dabiltzu dabiltzue dabildie
3pl.	dabildeas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzus dabilles	dabildeas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabildus dabiltzus dabiltzues dabildes	dabiltzeas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzues dabildes ¹	dabiltzes dabiltzesek — dabiltzes dabilgus dabiltzus dabiltzues dabildives
3sg.	Loiu dabilt dabilek dabilne dabil dabildu dabiltzu dabiltzue dabildie	Derio dabilt — — dabil dabilgue dabilsu dabilsue dabillie	Zamudio dabilt dabilek — dabil dabilgu dabixu dabixue dabildie	Lezama dabilt darabik/dabik — dabil dabilgu dabixu dabixue dabildie
3pl.	dabildedas dabiltzesak dabiltzesena dabiltzes dabildus dabiltzus dabiltzues dabildies	dabiltes — — dabiltzes dabilgues dabilsus dabilsues dabillies	dabiltes dabiltzesak — dabix dabilgus dabixus dabixues dabidies	darabildias darabixek — darabix darabilgus darabixus darabixues darabildies

¹ **dabildis** ere bai

1.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Buja	Basauri	Galdakao	Arrigorriaga
3sg.	dabitt dabik — dabill dabidu dabixu dabixue dabidxe	dabitt — — dabil dabigu dabisu dabisue dabidxe	dabit dabik dabiñe dabill dabigu dabixu dabixue dabie	dabit dabik — dabill dabigu dabixu dabixue dabie
3pl.	dabidxes dabixek — dabix dabidus dabixus dabixues dabidxes	dabides — — dabix dabigus dabisus dabisues dabidxes	dabias dabixek dabixena dabix dabigus dabixus dabixues dabies	dabides dabixek — dabix dabigus dabixus dabixues dabies
	Zollo	Arrankudiaga	Zaratamo	Zeberio
3sg.	dabit dabik — dabil dabigu dabixu dabixue dabille	dabit dabik — dabil dabigu dabisu dabisue dabie	dabit dabik — dabill dabigu dabixu dabixue dabie	dabit dabik dabiñe dabil dabigu dabisu dabisue dabildie
3pl.	dabides dabixek — dabix dabigus dabixus dabixues dabilles	dabiedas dabisek — darabis dabigus dabisus dabisues darabies	dabides dabixek — dabix dabigus dabixus dabixues dabies	dabides dabisek dabisena dabix dabigus dabisus dabisues dabildies

1.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	S. Martin	Arbaitza	Urigoiti
3sg.	darabit darabik — darabil darabigu darabisu darabisue darabie	darabit darabik darabine darabil darabigu darabisu darabisue darabie	darabit darabik — darabil darabigu darabisu darabisuei darabillei	darabilt darabik darabine darabil darabilgu darabisu darabisuei darabillei
3pl.	darabidas darabisak — darabis darabigus darabisus darabisues darabies	darabides darabisek darabisena darabis darabigus darabisus darabisueis darabi(II)eis	darabides darabisek — darabis darabigus darabisus darabisues darabies	darabides darabisek darabisena darabis darabilgus darabisus darabisueis darabileis

1.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
3sg.	darabit darabik darabine darabil darabigu darabixu darabixue darabille	dabit dabik dabine dabil dabiu dabixu dabixue dabie	dabit dabik dabiñe dabil dabigu dabixu dabixue dabildie
3pl.	darabias darabixek darabixena darabix darabigus darabixus darabixues darabilles	dabias dabixek dabixena dabix dabius dabixus dabixues dabies	dabidas dabixek dabixena dabix dabigus dabixus dabixues dabildies

¹ **darabiel** ere bai.

² **darabildie** ere bai.

	Artea	Dima	Zeanuri
3sg.	dabit dabik dabine dabil dabigu dabixu dabixue dabildie	dabit dabik dabine dabil dabigu dabisu dabisue dabildie	— — — — — — — —
3pl.	dabides dabixek dabixena dabix dabigus dabixus dabixues dabildies	dabides dabisek dabisena dabis dabigus dabisus dabisues dabildies	darabides darabisek darabisena darabis darabilgus darabisus darabisues darabildes

1.5. BERMEOKO BARIETATEA

	Bermeo	Mundaka	Murueta
3sg.	dabilt dabik — dabill dabilgu dabixu dabixue dabildxie	dabit — — dabill dabilgu dabixu dabixue dabille	dabitx — — dabill dabigu dabixu dabixue dabillie
3pl.	dabiltas dabixek dabiltzes dabilgus dabixus dabixuiyes dabildxies	dabiltas — dabiltzas dabilgus dabixus dabixuse dabilles	dabites — dabix dabigus dabixus dabixues dabilles
3sg.	Gabika	Elantxobe	Arteaga
	dabit dabik dabiñe dabill dabigu dabixu dabixue dabille	dabit — — dabill dabigu dabixu dabixue dabille	dabil — — dabill dabigu dabixu dabixue dabille

3pl.	dabites	dabites	dabites
	dabixek	—	—
	dabiñes	—	—
	dabix	dabix	dabix
	dabigus	dabigus	dabigus
	dabixus	dabixus	dabixus
	dabixuse	dabixusie	dabixuse
	dabixe	dabixie	dabilles

1.6. GERNIKAKO BARIETATEA

	Mungia	Gamiz	Meñaka	Arrieta
3sg.	dabillt	dabitt	dabitt	dabillt
	—	dabik	dabik	dabik
	—	—	dabiñe	dabine
	darabill	dabill	dabill	dabill
	darabilgu	dabilgu	dabigu	dabidu
	darabiltzu	dabixu	dabiltzu	dabixu
	darabiltzue	dabixue	dabiltzue	dabixue
	darabillea	dabillea	dabille	dabille
3pl.	darabilledas	dabiltzedas	dabiltzedas	dabilttes
	—	dabiltzesek	dabixek	dabixek
	—	—	dabixena	dabixena
	darabiltzes	dabiltzes	dabiltzes	dabix
	darabilgus	dabilgus	dabigus	dabidus
	darabiltzuz	dabixus	dabiltzuz	dabixus
	darabiltzues	dabixues	dabiltzues	dabixues
	darabiltzeas	dabilles	dabilles	dabildies
	Errigoitia	Forua	Muxika	Mendata
3sg.	dabitt	dabi(l)tt	dabitt	dabitt
	dabik	dabik	—	—
	dabiñe	dabiñe	—	—
	dabill	dabill	dabill	dabill
	dabigu	dabigu	dabigu	dabigu
	dabixu	dabixu	dabixu	dabixu
	dabixue	dabixue	dabixue	dabixue
	dabidxie	dabille	dabille	dabille
3pl.	dabittes	dabitxes	dabiltas	dabitas
	dabixek	dabixek	—	—
	dabixena	dabixena	—	—
	dabix	dabix	dabix	dabix
	dabigus	dabigus	dabigus	dabigus
	dabixus	dabixus	dabixus	dabixus
	dabixues	dabixues	dabixues	dabixues
	dabidxies	dabilles	dabilles	dabilles

	Axangiz	Gorozika	Epaltza	Bernagoitia
3sg.	dabitt dabik — dabill dabigu dabixu dabixue dabille	dabitt dabik dabiñ dabill dabigu dabixu dabixue dabille	dabitt dabik — dabill dabiu dabixu dabixue dabillie	dabitt dabik dabiñ dabill dabilgu dabixu dabixue dabille
3pl.	dabittes dabixek — dabix dabigus dabixus dabixues dabilles	dabittes dabixek dabixen dabix dabigus dabixus dabixues dabilles	dabias dabixek — dabix dabius dabixus dabixues dabillies	dabilleas dabixek dabixen dabix dabilgus dabixus dabixues dabixie
	Iurreta	Abadiño	Izurtza	Mañaria
3sg.	darabitt darabik darabiñ darabill darabiu darabixu darabixue darabillie	dabitt dabik dabiñ dabill dabillu dabixu dabixue dabillie	dabiltt dabik dabin dabill dabilgu dabixu dabixue dabillie	dabitt dabik dabin dabill dabilgu dabixu dabixue dabillie
3pl.	dabilleas dabixek dabixen dabix dabilleus darabixus darabixues dabillies	dabias dabixek dabixen dabix dabius dabixus dabixues dabillies	dabillas dabixek dabixen dabix dabilgus dabixus dabixues dabillies	dabillas dabixek dabixen dabix dabilgus dabixus dabixues dabillies

1.7. OTXANDIOKO BARIETATEA

	Otxandioko	Oleta	Nafarrate
3sg.	dabitt dabik dabiñ dabill dabilgu dabixu dabixue dabille	dabilt dabik dabin dabill dabilgu dabixu dabixue dabille	darabit darabik darabin darabill dabilgu darabixu darabixue darabille

3pl.	dabillas	dabillas	darabides
	dabixek	dabixek	darabixak
	dabixen	dabixen	darabixen
	dabix	dabix	darabix
	dabilgus	dabilgus	darabigus
	dabixus	dabixus	darabixus
	darabixues	dabixues	darabixues
	dabilles	dabilles	darabidxes

Aldaerarik interesgarrienak «NOR3sg.NORK3pl.» erako adizkietan ematen dira, hona hemen aldaera horiek (Ikus 2. mapa):

1. **dabilde:** Lemoiz, Berango (2), Urduliz, Leioa, Erandio (3).
2. **dabile:** Berango, Gatika, Laukiz, Zollo, Mundaka, Gabika, Elantxobe, Arteaga, Meñaka, Arrieta, Forua, Muxika, Mendata, Axangiz, Gorozika, Bernagoitia, Otxandio, Oleta.
3. **dabildi:** Erandio.
4. **dabildie:** Sondika, Loiu, Zamudio, Lezama, Zeberio, Igorre, Artea, Dima.
5. **dabillie:** Derio, Murueta, Epaltza, Abadino, Izurtza, Mañaria.
6. **dabidxe:** Buja, Basauri.
7. **dabie:** Galdakao, Arrigorriaga, Arrankudiaga, Zaratamo, Bedia.
8. **darabie:** Bengoetxe, Arbaitza.
9. **darabillei:** S.Martin (10).
10. **darabiei:** S.Martin.
11. **darabilei:** Urigoiti.
12. **darabille:** Larrabetzu (13), Nafarrate.
13. **darabidie:** Larrabetzu.
14. **darabildxie:** Bermeo.
15. **darabillea:** Mungia.
16. **dabillea:** Gamiz.
17. **dabidxie:** Errigoiti.
18. **darabillie:** Iurreta.

2. ERABILI ALOKUTIBOA

2.1. PLENTZIAKO BARIETATEA

	Urduliz	Laukiz	Leioa	Erandio
3sg. mas.	yabillet yabillek yabilguk yabillek	yabiltt yabillek yabilguk yabillek	yabilt yabilek yabilduk yabildek	yabillet yabillek yabilguk yabildek
3sg. fem.	yabiltena yabillena yabilgune yabillena	yabilttena yabillena yabilgune yabillena	yabiltena yabilena yabildune yabildena	yabiltena yabillena yabilgune yabildena
3pl. mas.	yabiltzesak yabiltzesak yabilgusek yabiltzesak	yabildeas yabiltzesak yabilgusek yabiltzesak	yabildeas yabiltzesak yabildusek yabildesak	yabillesat yabiltzesak yabilgusek yabildesak
3pl. fem.	yabiltzesena yabiltzesena yabilgusena yabiltzesena	yabildeasena yabiltzesena yabilgusena yabiltzesena	yabildeasena yabiltzesena yabildusena yabildesena	yabillesena yabiltzesena yabilgusena yabildesena
	Sondika	Loiu	Zamudio	Lezama
3sg. mas.	yabilt yabilek yabilguk yabildiek	yabiltek yabilek yabilduek yabildik	yabiltek yabilek yabilguk yabildiek	yabillat yarabik yabilguk yabildiek
3sg. fem.	— — — —	yabiltena yabilena yabilduena yabildiina	— — — —	— — — —
3pl. mas.	yabiltzesat yabiltzesak yabilgusak yabildiesak	yabiltesak yabiltzesak yabildusak yabildiesak	yabiltesak yabixek yabilgusek yabildiesak	yarabidesat yarabixek yarabilgusek yabildiesak
3pl. fem.	— — — —	yabiltesena yabiltzesena yabildusena yabildiesena	— — — —	— — — —

2.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Galdakao	Arrigorriaga	Zeberio
3sg. mas.	yabiat yabik yabiuk yabiek	yabit yabik yabiguk yabiek	yabiat yabik yabiguk yabildiek
3sg. fem.	yabiñet yabiñe yabiune yabiena	— — — —	yabiatena yabiena yabigune yabildiena
3pl. mas.	yabiasat yabixek yabiusek yabiesak	yabixet yabixek yabigusek yabiesak	yabiasat yabisek yabi(g)usek yabiesak
3pl. fem.	yabixenat yabixena yabiusena yabiesena	— — — —	yabiasatena yabisena yabiusena yabiesana
	Arrankudiaga	Zaratamo	Zollo
3sg. mas.	yabiat yabik yabiuk yabiek	yabiat yabik yabiuk yabiek	yabiat yabik yabiguk yabilyek
3pl. mas.	yabiasat yabixek yabiusek yabiesak	yabiasat yabixek yabigusek yabiesak	yabides yabixek yabigusek yabiyesak

2.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	Arbaitza	S. Martin	Urigoiti
3sg. mas.	yarabiat yarabik yarabiguk yarabiek	yarabiat yarabik yarabiuk yarabiek	yarabiat yarabik yarabiau yarabiek	yarabillat yarabik yarabiguk yarabilleik
	—	—	yarabimat	yarabillemat
	—	—	yarabine	yarabillene
	—	—	yarabimau ¹	yarabigune
	—	—	yarabiena	yarabilleine

¹ yarabiune ere bai.

3pl.	yarabiadas	yarabiasat	yarabiadas	yarabiset
mas.	yarabisek	yarabisek	yarabisek	yarabisek
	yarabigusek	yarabiusek	yarabiaus	yarabigusek
	yarabiesak	yarabiesak	yarabiesak	yarabisek
3pl.	—	—	yarabimadas ¹	yarabisemat
fem.	—	—	yarabisena	yarabisena
	—	—	yarabigusena	yarabigusena
	—	—	yarabiesana	yarabisena

2.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
3sg.	yarabiat	yabiat	yabildat
mas.	yarabik	yabik	yabik
	yarabiguk	yabiuk	yabiguk
	yarabildiek	yabiek	yabildiek
3sg.	yarabinet	yabianat	yabildanat
fem.	yarabine	yabine	yabine
	yarabigune	yabiune	yabigune
	yarabildiena	yabiena	yabildiena
3pl.	yarabiasat	yabiasat	yabildasat
mas.	yarabixek	yabixek	yabixek
	yarabigusek	yabiusek	yabigusek
	yarabildiesak	yabiesak	yabildiesak
3pl.	yarabisenat	yabiasanat	yabildasenat
fem.	yarabixena	yabixena	yabisena
	yarabigusena	yabiusena	yabigusena
	yarabildiesena	yabiesena	yabildiesana
	Dima	Artea	
3sg.	yabiat	yabiat	
mas.	yabik	yabik	
	yabiguk	yabiguk	
	yabildiek	yabildiek	
3sg.	yabienat	yabianat	
fem.	yabine	yabine	
	yabigune	yabigune	
	yabildiena	yabildiena	

¹ **yarabis** ere bai.

3pl.	yabiasat	yabides
mas.	yabixek	yabixek
	yabigusek	yabigusek
	yabildiesak	yabildiesak
3pl.	yabiesanat	yabiasanat
fem.	yabixena	yabixena
	yabigusena	yabigusena
	yabildiesana	yabildiesana

2.5. BERMEOKO BARIETATEA

	Bermeo	Gabika
3sg.	dxabitek	dxabiat
mas.	dxabik	dxabik
	dxabiguk	dxabiguk
	dxabikie	dxabillek
3sg.	—	dxabitena
fem.	—	dxabiñe
	—	dxabigune
	—	dxabillena
3pl.	dxabitasak	—
mas.	dxabitzesak	—
	dxabigusak	—
	dxabikiesak	—

2.6. GERNIKAKO BARIETATEA

	Gamiz	Meñaka	Arrieta	Errigoiti
3sg.	dxabitt	dxabidxet	dxabitt	dxabidxet
mas.	dxabik	dxabik	dxabik	dxabik
	dxabilguk	dxabiguk	dxabiduk	dxabiguk
	dxabillek	dxabillek	dxabilliek	dxabidxiek
3sg.	—	dxabilttena	dxabiñet	dxabiñet
fem.	—	dxabiñe	dxabiñe	dxabiñe
	—	dxabigune	dxabidune	dxabigune
	—	dxabillena	dxabilliena	dxabidxiena
3pl.	dxabixet	dxabiltzesat	dxabixet	dxabixek
mas.	dxabixek	dxabiltzesak	dxabixek	dxabixek
	dxabilgusek	dxabigusek	dxabidusek	dxabigusek
	dxabillesak	dxabillesak	dxabilliesak	dxabidxiesak

3pl.	—	dxabiltzesetena	dxabixenat	dxabixenat
fem.	—	dxabiltzesena	dxabixek	dxabixena
	—	dxabigusena	dxabidusena	dxabigusena
	—	dxabillesena	dxabilliesena	dxabidxiesena

	Forua	Axangiz	Epaltza	Bernagoiti
3sg.	dxabittek	dxabidxatek	dxabiat	dxabilleat
mas.	dxabik	dxabik	dxabik	dxabik
	dxabiguk	dxabiuk	dxabiuk	dxabilguk
	dxabilliek	dxabillek	dxabilliek	dxabillek
3sg.	dxabittena	—	—	dxabinat
fem.	dxabine	—	—	dxabin
	dxabigune	—	—	dxabilgun
	dxabilliena	—	—	dxabillen
3pl.	dxabittesek	dxabidxatesak	dxabiatesek	dxabilleas
mas.	dxabisek	dxabixek	dxabixek	dxabixek
	dxabigusek	dxabiusek	dxabiusek	dxabillusek
	dxabilliesak	dxabillesak	dxabilliesak	dxabixiek
3pl.	dxabittesena	—	—	dxabillenas
fem.	dxabixena	—	—	dxabixen
	dxabigusena	—	—	dxabillusen
	dxabilliesena	—	—	dxabixien
	Iurreta	Abadiño	Izurza	Mañaria
3sg.	dxabilleat	dxabiat	dxabillat	dxabildxuat
mas.	dxarabik	dxabik	dxabik	dxabik
	dxabilleu	dxabillau	dxabillau	dxabilguk
	dxabilliek	dxabilliek	dxabilliek	dxabilliek
3sg.	dxabilliñat	dxabiñat	dxabiñat	dxabildxunat
fem.	dxarabiñ	dxabin	dxabin	dxabin
	dxarabilliñeu	dxabillenu	dxabiñau	dxabilgun
	dxarabillien	dxabillien	dxabillien	dxabillien
3pl.	dxarabilleas	dxabillas	dxabillas	dxabildxuasek
mas.	dxarabixek	dxabixek	dxabixek	dxabillesak
	dxarabillusek	dxabillaus	dxabillaus	dxabilgusek
	dxarabilliesak	dxabilliesak	dxabilliesak	dxabilliesak
3pl.	dxarabillenas	dxabillenas	dxabiñas	dxabildxunas
fem.	dxarabixen	dxabixen	dxabixen	dxabillesan
	dxarabilliñeus	dxabillenaus	dxabiñaus	dxabilgusen
	dxarabilliesan	dxabilliesan	dxabilliesan	dxabilliesan

2.7. OTXANDIOKO BARIETATEA

	Otxandio	Oleta	Nafarrate
3sg.	dxabillet dxabik dxabilluau dxabile	dxabillat dxabik dxabillau dxabile	dxarabillat dxarabik dxarabillau dxarabillek
3pl.	—	dxabillas dxabixek dxabillaus dxabilles	— — — —

3. ESAN

3.1. PLENTZIAKO BARIETATEA

	Lemoiz	Berango	Urduliz	Gatika
3sg.	diñot — — diño diñu diñosu diñosue diñe	diñot — — diño diñou diñosu diñosue diñoue	diñot — — diño diñu diñosu diñosu(e) diñoude ¹	diñot — — diño diñu diñosu diñosue diñe
3sg.	Laukiz diñot diñok diñona diño diñosu diñosu diñe	Leioa dinot dinok dinona dino dinosu dinosue dinoude	Erandio dinot dinok dinona dino dinosu dinosue dinaude ²	Sondika dinot dinok — dino dinosu dinosue dinoude

¹ **dine** ere bai.

² **dinoudi** ere bai.

	Loiu	Derio	Zamudio	Lezama
3sg.	dinot dinok dinona dino dinogu dinosu dinosue dinoudie	dinot — — dino dinue dinosu dinosue dinue ¹	dinot dinok — dino dinou dinosu dinosue dinere	dinot dinok — dino dinu dinosu dinosue dinoudie

3.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Buja	Basauri	Galdakao	Arrigorriaga
3sg.	diñot diñok — diñu diñosu diñosue diñoidxe	diñot — — diñogu diñosu diñosue diñoie	diñot diñok diñona diñu diñosu diñosue diñourie	diñot diñok — diñogu diñosu diñosue diñoidxe
	Zollo	Arrankudiaga	Zaratamo	Zeberio
3sg.	diñot diñok — diñou diñosu diñosue diñeure ²	diñot diñok — diñu diñosu diñosue diñeieue	diñot diñok — diñou diñosu diñosue diñue	diñot diñok -diñona diñogu diñosu diñosue diñoudie

3.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	Arbaitza	S. Martin	Urigoiti
3sg.	diñot diñok — diño diñu diñosu diñosue diñue	diñot diñok — diño diñu diñosu diñosue diñue	diñot diñok diñona diño diñogu diñosu diñosuei diñuei	diñot diñok diñona diño diñu diñosu diñosuei diñuei

¹ **dinoitue** ere bai.

² **diñeure** ere bai.

3.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
3sg.	diñot	diñot	diñot
	diñok	diñok	diñok
	diñona	diñona	diñona
	diño	diño	diño
	diñogu	diñou	diñu
	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue
	diñue ¹	diñourie	diñourie

	Artea	Dima	Zeanuri
3sg.	diñot	diñot	diñot
	diñok	diñok	diñok
	diñona	diñona	diñona
	diño	diño	diño
	diñogu	diñou	diñogu
	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue
	diñourie	diñue	diñue/diñourie

3.5. BERMEOKO BARIETATEA

	Bermeo	Mundaka	Murueta
3sg.	diñot	diñot	diñot
	diñok	—	—
	diño	diño	diño
	diñu	diñogu	diñou
	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue
	diñoidxe	diño	diño

	Gabika	Elantxobe	Arteaga
3sg.	diñot	diñot	diñot
	diñok	—	—
	diñona	—	—
	diño	diño	diño
	diñogue	diñogu	diñogu
	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue
	diñue	diño	diño

¹ diñourie ere bai.

3.6. GERNIKAKO BARIETATEA

	Mungia	Gamiz	Meñaka	Arrieta
3sg.	diñot	diñot	diñot	diñot
	—	diñok	diñok	diñok
	—	—	diñona	diñona
	diño	diño	diño	diño
	diñu	diñogu	diñogu	diñou
	diñosu	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue	diñosue
	diñodea	diñue	diñoure	diñue
	Errigoiti	Forua	Mundaka	Mendata
3sg.	diñot	diñot	diñot	diñot
	diñok	diñok	diñok	—
	diñona	diñona	—	—
	diño	diño	diño	diño
	diñu	diñ(o)u	diñou	diñogu
	diñosu	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue	diñosue
	diñue	diñoiye	diñue	diñue
	Axangiz	Gorozika	Epaltza	Bernagoitia
3sg.	diñot	diñot	diñot	diñot
	diñok	diñok	diñok	diñok
	—	diñon	—	diñon
	diño	diño	diño	diño
	diñogu	diñogu	diñu	diñogu
	diñosu	diñosu	diñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	diñosue	diñosue
	diñue	diñue	diñere	diñue
	Iurreta	Abadiño	Izurza	Mañaria
3sg.	diñot	diñot	deñot	diñot
	diñok	diñok	deñok	diñok
	diñon	diñon	deñondiñon	—
	diño	diño	deño	diño
	diñu	diñou	deñou	diñu
	diñosu	diñosu	deñosu	diñosu
	diñosue	diñosue	deñosue	diñosue
	diñue	diñoye	deñue	diñue

3.7. OTXANDIOKO BARIETATEA

	Otxandio	Oleta	Ubidea	Nafarrate
3sg.	diñot	diñot	diñot	didxot
	diñok	diñok	diñok	didxok
	diñon	diñon	diñon	didxon
	diño	diño	diño	didxo
	diñu	diñou	diñu	didxogu
	diñosu	diñosu	diñosu	ddxosu
	diñosue	diñosue	diñosue	didxosue
	diñue	diñue	diñue ¹	didxoye

Aldaerarik interesgarrienak «NOR3sg.NORK3pl.» erako adizkietan ematen dira, hona hemen aldaera horiek (Ikus 3. mapa):

1. **diñe:** Lemoiz. Urduliz (2), Gatika. Laukiz.
2. **diñoude:** Urduliz.
3. **diñoue:** Berango.
4. **dinoude:** Leioa.
5. **dinaude:** Erandio (6).
6. **dinoudi:** Erandio.
7. **dinoudie:** Sondika, Loiu, Lezama.
8. **dinue:** Derio (9).
9. **dinoitue:** Derio.
10. **dinere:** Zamudio.
11. **diñoidxe:** Buja. Arrigorriaga, Bermeo, Ubidea (17).
12. **diñoye:** Basauri, Murueta, Abadiño.
13. **diñourie:** Galdakao, Bedia, Igorre, Artea, Zeanuri (17).
14. **diñeure:** Zollo (15).
15. **diñoure:** Zollo, Meñaka.
16. **diñeitue:** Arrankudiaga.
17. **diñue:** Zaratamo, Bengoetxea, Arbaitza, Larrabetzu (20), Dima, Zeanuri, Gabika, Gamiz, Arrieta, Errigoiti, Muxika, Mendata, Axangiz, Gorozika, Bernagoitia, Iurreta, Mañaria, Otxandio. Oleta. Ubidea.
18. **diñoudie:** Zeberio.
19. **diñuei:** S. Martin, Urigoiti.
20. **diñeurie:** Larrabetzu.
21. **diño:** Mundaka. Elantxobe, Arteaga.
22. **diñodea:** Mungia.
23. **diñolye:** Forua.
24. **dinere:** Epaltza.
25. **deñue:** Izurtza.
26. **didxoye:** Nafarrate.

¹ diñoidxe ere bai.

4. ESAN ALOKUTIBOA

4.1. PLENTZIAKO BARIETATEA

	Urduliz	Laukiz	Leioa	Erandio
mas.	yiñot yiñok yiñuk yiñek	yiñot yiñok yiñuk yiñek	yinot ylinik yinuek yinedek	yinot yinuek yinuek yinedek
fem.	yiñotena yiñona yiñune yiñena	yiñotena yiñona yiñune yiñena	yinotena yinsona yinuene yinedena	yinotena yinsona yinuene yinenena
	Sondika	Loiu	Zamudio	Lezama
mas.	dinot dinok dinouk dinoudek	yinot yinuek yinueguk yinuekiek	diñoat diñok diñouk diñerek	yinoat yinuek yinuek yinuekiek
fem.	— — — —	yinotena yinsona yinueguna yinuegiena	— — — —	— — — —

4.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Galdakao	Arrigorriaga	Zeberio
mas.	yiñoat yiñok yiñuk yiñiek	yiñoat yiñok yiñoguk yiñoidxek	yiñoat yiñok yiñouk yiñoudiek
fem.	yiñonat yiñona yiñune yiñiena	— — — —	yiñoatena yiñona yiñoune yiñoudiena
	Arrankudiaga	Zaratamo	Zollo
mas.	yiñoat yiñok yiñuk yiñeituek	yiñoat yiñok yiñuk yiñuek	yiñoat yiñok yiñouk yiñeurek

4.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	Arbaitza	S. Martin	Urigoiti
mas.	diñoat diñok diñuk diñuek	diñoat diñok diñuk diñuek	diñoat diñok diñoau diñuek	diñoat diñok diñuk diñuik
fem.	— — — —	— — — —	diñomat diñona diñomau diñuena	diñomat diñona diñune diñuina

4.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
mas.	yiñoat yiñok yiñoguk yiñoudiek	yiñoat yiñok yiñuk yiñouriek	yiñoat yiñok yiñuk yiñouriek
fem.	yiñonat yiñona yiñogune yiñoudiena	yiñonat yiñona yiñune yiñouriena	yiñonat yiñona yiñune yiñouriena
	Artea	Dima	
mas.	yiñoat yiñok yiñuk yiñouriek	yiñoat yiñok yiñuk yiñourik	
fem.	yiñoanat yiñona yiñune yiñouriena	yiñoanat yiñona yiñune yiñouriena	

4.5. BERMEOKO BARIETATEA

	Bermeo
mas.	dxĩnotak dxĩnok dxĩnuk dxĩnokie

4.6. GERNIKAKO BARIETATEA

	Gamiz	Meñaka	Arrieta	Errigoiti
mas.	dxinot dxinok dxinoguk dxinuek	dxinoat dxinok dxinoguk dxinuek	dxinoat dxinok dxinuk dxinuek	dxinoat dxinok dxinuk dxinuek
fem.	— — — —	dxinoatena dxinona dxinogune dxinuena	dxinonat dxinona dxinune dxinuena	dxinonat dxinona dxinoune dxinuena
	Forua	Axangiz	Epaltza	Bernagoitia
mas.	diñodxoat diñodxok diñodxuk diñodxuek	dxinoatek dxinok dxinoguk dxinuek	dxinoat dxinok dxinuk dxinuek	dxinoat dxinok dxinuk dxinuek
fem.	diñodxotena diñodxona diñodxune diñodxuena	— — — —	— — — —	dxinonat dxinon dxinun dxinuen
	Iurreta	Abadiño	Izurtza	Mañaria
mas.	dxinuat dxinok dxinou dxinoyek	dxinuat dxinok dxinuau dxinuek	dxinoat dxinok dxinoau dxinuek	dxinuat dxinok dxinuk dxinuek
fem.	dxinunat dxinon dxineneu dxinoyen	dxinunat dxinon dxinunau dxinuen	dxinonat dxinon dxinonau dxinuen	dxinunat dxinon dxinun dxinuen

4.7. OTXANDIOKO BARIETATEA

	Otxandio	Oleta	Nafarrate
mas.	dxinueta dxinok dxinuau dxinue	dxinoat dxinok dxinoau dxinue	dxidxoat dxidxok dxidxouk dxidxuek

5. ERITZI nor nori nork

5.1. PLENTZIAKO BARIETATEA

	Lemoiz	Urduliz	Gatika	Laukiz
3s3s.	deritxet	deritxet	deritxet	deritxet
	—	deritxek	deritxek	deritxek
	—	deritxena	deritxena	deritxena
	deritxo	deritxo	deritxo	deritxo
	deritxu	deritxu	deritxegu	deritxu
	deritxesu	deritxesu	deritxesu	deritxesu
	deritxesue	deritxesu	deritxesue	deritxesu
	deritxe	deritxe	deritxe	deritxe
	Leioa	Erandio	Sondika	Loiu
3s3s.	deretxet	deretxet	deritzet	dereitxet
	deretxek	deretxek	deritzek	dereitxek
	deretxona	deretxena		dereitxena
	deretxo	deritxo	deritzo	dereitxo
	deretxu	deritxu	deritzu	dereitxu
	deretxesu	deretxesu	deritzesu	deritxesu
	deretxesue	deretxesue	deritzesue	deritxesue
	deretxe	deretxe	deritzie	deritxie
	Derio	Zamudio	Lezama	
3s3s.	deritxet	deritzet	deritxet	
	—	deritzek	deritxek	
—	—	—		
	deritxe	deritzo	deritxe	
	deritxue	deritzu	deritxu	
	deritxesu	deritzesu	deritxesu	
	deritxesue	derutzesue	deritxesue	
	deritxie	deritzie	deritxie	

5.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Galdakao	Zaratamo	Zeberio
3s3s.	deritxet	deitxet	deritxat
	deritxek	deitxek	deritxek
	deritxena	—	deritxena
	deritxo	deritxo	deritxo
	deritxu	deritxu	deritxu
	deritxesu	deritxesu	deritxasu
	deritxesue	deritxesue	deritxasue
	deritxie	deritxue	deritxie

5.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	Arbaitza	S. Martin	Urigoiti
3s3s.	dereitxot dereitxok — dereitxa dereitxu dereitxasu dereitxasue dereitxe	deritxot deritxok — deritxo deritxu deritxasu deritxasue deritxie	deritxot deritxok deritxona deritxo deritxagu deritxasu deritxasuei deritxuei	deritxot derifxok deritxona deritxo deritxu deritxasu deritxasuei deritxei

5.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
3s3s.	deritxot deritxok deritxona deritxo deritxogu deritxosu deritxosue deritxie	deritxet deritxek deritxena deritxe deritxu deritxesu deritxesue deritxie	deritxet deritxek deritxena deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxie

5.5. BERMEOKO BARIETATEA

	Mundaka	Elantxobe	Arteaga
3s3s.	deitxat — — deitxo deitxagu deitxasu deitxasue deitxoe	deitzat — — deitzo deitzogu deitzosu deitzosue deitzoe	deitxet deritxo deitxegu deitxesu deitxesue deritxe

5.6. GERNIKAKO BARIETATEA

	Mungia	Gamiz	Meñaka	Arrieta
3s3s.	deritxet — — deritxo deritxegu deritxesu èeritxesue deritxea	deritxet deritxek — deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxe(a)	deritxet deritxek deritxena deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxe(a)	deritxet deritxek deritxena deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxie

	Errigoiti	Forua	Muxika	Mendata
3s3s.	deritxet deritxek deritxen deritxo deritxu deritxesu deritxesue deritxe	deritxet deritxek deritxena deritxo deritxeu deritxesu deritxesue deritxue	deritxet — — deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxue	deritxet — — deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxue

	Gorozika	Epaltza	Bernagoitia	Iurreta
3s3s.	deitxet deitxek deitxen deritxo deritxu deitxesu deitxesue deritxie	deritxet deritxek — deritxo deritxu deritxesu deritxesue deritxie	deritxet deritxek deritxen deritxo deritxegu deritxesu deritxesue deritxie	deitxet deitxek deitxen deitxo deitxeu deitxesu deitxesue deitxue

	Abadiño
3s3s.	deritxot deritxek deritxen deritxo deritxeu deritxeu deritxesu deritxesue deritxie

5.7. OTXANDIOKO BARIETATEA

	Otxandio	Nafarrate
3s3s.	deitxat deitxak deitxan deitxo deitxau deitxasu deitxasue deitxe	deritxot deritxok deritxon deritxo deritxogu deritxosu deritxosue deritxoye

6. ERITZI ALOKUTIBOA

6.1. PLENTZIAKO BARIETATEA

	Urduliz	Laukiz	Leioa	Erandio
3s3s. mas.	yeritxet yeritxek yeritxuk yeritxek	yeritxet yeritxek yeritxuk yeritxek	yeretxetek yeretxek yeretxuk yeretxek	yeretxet yeretxek yeretxuk yeretxek
3s3s. fem.	yeritxetena yeritxena yeritxune yeritxena	yeritxetena yeritxena yeritxune yeritxena	yeretxetena yeretxena yeretxune yeretxena	yeretxetena yeretxena yeretxune yeretxena
	Sondika	Loiu	Zamudio	Lezama
3s3s. mas.	yeritxet yeritxek yeritxuk yeritxiek	dereitxet dereitxek dereitxuk dereitxik	deritxeat deritxek deritxuk deritxiek	deritxeat deritxek deritxuk deritxiek
3s3s. fem.	— — — —	dereitxetena dereitxena dereitxune dereitxiena	— — — —	— — — —

6.2. ARRIGORRIAGAKO BARIETATEA

	Galdakao	Zaratamo	Zeberio
3s3s. mas.	yeritxeat yeritxek yeritxuk yeritxiek	yeitxat yeitxok yeitxuk yeitxuek	yeritxat yeritxek yeritxuk yeritxiek
3s3s. fem.	yeritxenat yeritxena yeritxune yeritxiena	— — — —	yeritxetena yeritxena yeritxune yeritxiena

6.3. OROZKOKO BARIETATEA

	Bengoetxea	Arbaitza	S. Martin	Urigoiti
3s3s. mas.	dereitxoat dereitxak dereitxuk dereitxek	deritxat deritxok deritxuk deritxiek	deritxoat deritxok deritxoau deritxuek	yeritxoat yeritxok yeritxuk yeritxieik

3s3s.	—	—	deritxomat	yeritxomat
fem.	—	—	deritxona	yeritxona
	—	—	deritxomau	yeritxune
	—	—	deritxuena	yeritxina

6.4. ARRATIAKO BARIETATEA

	Larrabetzu	Bedia	Igorre
3s3s.	yeritxeat	yeritxet	yeritxet
mas.	yeritxok yeritxoguk yeritxiek	yeritxek yeritxuk yeritxiek	yeritxek yeritxeguk yeritxiek
3s3s.	yeritxenat	yeritxenat	yeritxenat
fem.	yeritxona yeritxogune yeritxiena	yeritxena yeritxune yeritxiena	yeritxena yeritxegune yeritxiena

6.5. GERNIKAKO BARIETATEA

	Gamiz	Meñaka	Arrieta	Forua
3s3s.	dixeritxet	dixeritxetek	dixeritxet	deritxetek
mas.	dixeritxek dixeritxeguk dixeritxek	dixeritxek dixeritxeguk dixeritxek	dixeritxek dixeritxeguk dixeritxiek	deritxek deritxeguk deritxuek
3s3s.	—	dixeritxetena	dixeritxenat	dixeritxenat
fem.	—	dixeritxona	dixeritxena	dixeritxena
	—	dixeritxegune	dixeritxegune	deritxegune
	—	dixeritxena	deritxiena	deritxuena
	Epaltza	Bernagoitia	Iurreta	Abadiño
3s3s.	dixeritxat	dixeritxet	dixeritxiat	dixeritxet
mas.	dixeritxek dixeritxuk dixeritxiek	dixeritxok dixeritxeuk dixeritxiek	dixeritxok dixeritxeu dixeritxuek	dixeritxek dixeritxau dixeritxiek
3s3s.	—	dixeritxenat	dixeritxenat	dixeritxenat
fem.	—	dixeritxon	dixeritxon	dixeritxen
	—	dixeritxeun	dixeritxenau	dixeritxenau
	—	dixeritxien	dixeritxuen	dixeritxien




1. mapa

Mendebaldeko Bizkalera:

1. Plentzia
2. Arrigorriaga
3. Orozko
4. Arratia
5. Bermeo
6. Gemika
7. Otxandio



2. mapa



**JOANNES LEIZARRAGA
ETA XVI. GIZALDIKO EUSKAL
PROTESTANTISMO BARRIZTATUA**

Josu Penades

AURKIBIDEA	83
0. SARRERA	84
I. PROTESTANTISMO BARRIZTATUAREN JOAN-ETORRIRIK AZPIMAGARRIENAK	85
0. Sorrerako arrazoiak	85
1. Suizan	85
2. Ulrico Zwinglio	86
2.1. Bizitza urratsak	86
2.2. Pentsabide ardatzak	86
Teokrazia	86
«Sola fide, sola Scriptura»	86
Sakramentuak	86
3. Joan Kalbin	87
3.1. Bizitza urratsak	87
3.2. Pentsabide ardatzak	87
Betidaniko aukeratuak eta behin betirako gaitzetsiak	87
Sakramentuak	89
Eleizea	90
<i>Bibliografia</i>	90
II. KALBINISMOA EUSKALERRIAN	91
1. Frantzian	91
2. Euskal Iparraldean	92
3. Albreteko Jone	93
<i>Bibliografia</i>	94
III. JOANNES LEIZARRAGA ETA EUSKAL KALBINISMOAREN EDUKIN NAGUSIAK	95
1. Bizitza urratsak	95
2. Leizarragaren itzulpen lanetako edukinak	96
2.1. Zindokundea	97
2.2. Betidaniko aukeratuak eta behin betirako gaitzetsiak	100
2.3. Sakramentuak	103
Zer dan sakramentua	103
Beharrezko dira sakramentuak	104
Bateoa	104
Umeen Bateoa	105
«Cena»	105
2.4. «Eleiçeáz»	107
Zer dan Eleizea	107
«Discipliná»	108
«Ministréc»	108
«Consistorioaz. edo Senatu Ecclesiasticoaz»	109
2.5. Herri-agintarien zeregina	109
<i>Bibliografia</i>	111

0. SARRERA

Ba da Euskalerrian oihartzun zabalekoa ez-ezik, behin baten izate-duna zan esaerea: «Euskaldun, fededun».

Gaur egun, nahiko eztabaidatsua gertatzen da euskalduna nor dan ala ez zehaztea. Eta euren burua euskalduntzat dabenik askok eurak ez dirala fededunak aitortzen dabe.

Orain dala gitxi arte nabaria zan euskalduna nor zan ala ez; nahi ta Euskalerriko kondairean zehar horren argia izan ez hau beti. Fededun izateari buruz, oraindik zihurtasun handiagoa egoan: euskalduna izatea fededuna izatea bazan, fededuna izatea katolikoa izatea zan. Baina hau, barriz, ez da beti holan izan. XVI. gizaldiari aditzea baino ez dogu. Euskal Iparraldean katolikoak izateaz gain, ba ziran protestantismo barrizatuaren aldekoak edo kalbindarrak.

Esan dogunaz, bideratu dogu zerbait zein dan gure azterketa lan honen helburua.

Iparraldeari ta XVI. gizaldiari loturik, jadanik ba dakigu Joannes Leizarraga zana protestantismo barrizatuaren pentsabidegune nagusiak euskerara itzuli ebazana. Holan izanik, Leizarragaren itzulpen lana azterturik, euskal kalbinismoaren berezitasunak azpimarragarrienak ezagutu daikeguz.

Gure asmoa, beraz, ez da euskal kalbinismoa osoan zer zan aztertea. Lan zabalegia litzateke hau oraingo honetarako. Apalagoa da hemen egin gura geunkena. Hau da: ezagutzen doguzan Leizarragaren itzulpen lanetan¹ agertzen jakuzan protestantismo barrizatuaren ezaugarri edo gai nagusietaz ohartzea. Beste barik. Interesgarria litzateke, badakigu, Leizarragaren itzulpen lanen iturria aurkiturik, eurretatik zer hartu ta zer itzi izan dauan, eta hartu izan dauana zelan erabili izan dauan aztertea; eta aldi haretako euskal katolikoan kristau ikasbidearen baten aurrez-aurre jartzea, dituen bardintasunak eta aldeak azaltzeko. Besteren baterako edo besteren baten zatituz izten dogu guzti hau. Eta arterago esan dogun oharketa lanari ekingo dautsagu jarraian.

Baina zuzenean horretan hasi baino lehen, komenigarria dala deritxagu lehenengo, protestantismo barrizatuaren joan-etorriak azpimarragarrienak (I) aitatzeari; ta berehala, Euskalerrian izan zan kalbinismoaren zertzelada batzuk (II) gogoan hartzeari. Azken baten, Joannes Leizarragaren itzulpen lanetan diran edukin nagusiak ohartzera joko dogula (III). Lehengo atal biak ez doguz sakonean aztertuko, ezta gitxiago be. Osterago —III. atalean— ohartuko doguna kokatzeko behar-beharrezkoa dan neurrian baino ez.

¹ Ezagutzen doguzan Leizarragaren itzulpen lan guztiak erabiliko doguz esku artean ezterketa hau egiterakoan. Itun Berriarena izan ezik. Aditu 96-97. orr. eurak zeintzuk ciran jakiteko.

I. PROTESTANTISMO JOAN ETORRIRIK BARRIZTATUAREN AZPIMARRAGARRIENAK

0. SORRERAKO ARRAZOIAK

Luteroren iturri beratatik edandako uraz garatu izan da hainbat adar dauan protestantismoa. Adar guztion artean ba dira teologiari ta kokatu izan diran tokiko ohitura edo ekanduei buruzko ezbardintasunak.

Protestantismo barriztatuari jagokonean, Luterok eragindako protestantismoak berak tronkalean izan ebazan arrazoiak eurak ditu sorburu.

Sorrerako arrazoiok bardinak izanik, ez dira bardinak izan Luterok bultzatutako protestantismoak eta protestantismo barriztatuak egin dituen bideak.

Kalbinismoaren pentsabidea eratuagoa gertatzen da. Landuagoa. Eta era berean, ertzerago doa. Honetarako ez dago Zwingliok sakramentuei ta Kalbinek betidaniko aukeraketeari buruz dinoana aditzerik baino¹.

Protestantismo barriztatuak ba dau beste bereizgarri bat: Ginebrako urian izandako bizikizuna. Bere pentsakerearen arabera eratu izan eban Kalbinek Ginebrako uria, teokrazia sendo bat izatera heltzeraino².

Gai hau dala ta, ez goaz hemen gehiago esatera. Aparteko idazti berezi bat merezi izango leuke honek³.

1. SUIZAN

Ezertan hasi baino lehenago, ondo legoke jakitea, labur baino ez bada ere, zergaitik horren arin eta errez sartu izan ziran Suizan Alemanian erneriko dotrina barriak.

Hona hemen, beste batzuren artean, hiru arrazoi⁴:

- Askatasuna ta babespea eskeintzen izan eutsen sinesteausleei Suizako Legedi Nagusiak. Ez zan holan gertatzen beste lurralde batzutan.
- Orduko edo lehenagoko erlijio bizikizuna ta ohiturak salatzen ebezan humanistek. Hiru-lau urte igaro ebezan Basilean Erasmok ta Wyttenbachek, adibidez. Landua egoan lurra ostean Alemaniatic etorteko ziran pentsabide barrientzat, era honetara.
- Denporazanik ebilzan jaurlaritzaz ezbardinak gotzainekaz eztabai-datan Suizako herrialdeetako aginpidea zala ta.

¹ 86 eta 89. Orr. Aditu.

² Aditu. untze modura. 8 orr. dinoana.

³ Gai honeri buruz orrialde Interesgarriak irakurri daitekez ALGERMISSEN, KONRADen *Iglesia Católica y Confesiones Cristianas* (Madrid. Ed. Rialp. 1964) liburupean «Las causas de la Reforma» (765-790 orr.) atalean.

⁴ ÁLVAREZ GÓMEZ. JESÚS. CMF *Manual de Historia de la Iglesia*. Buenos Aires. Ed. Claretiana. 1979 209 orr.

2. ULRICO ZWINGLIO

2.1. Bizitza urratsak

Waldhausen (St. Gallen) jaio izan zen, 1484.ean.

Berna, Basilea ta Vienan ikasi izan eban, aldiko humanista pentsabidea ezagutu ta bereganatuz.

1518.eko gabonilatik hasten da Luteroren idaztiak irakurten.

Einsiedelneko santutegiko kapellau zala, Ama Birgineari ta Santuei zuzendutako gurketearen aurka azaldu zan gori-gori.

Eleiz agintarien jokabidearen, lekaime-lekaideen zinitzen eta abadeztearen arerio burukatu lez agertu izan zan be bai, Zuricheko eleizarik garrantzitsuenetariko bateko arduradun zala.

2.2. Pentsabide ardatzak

• *Teokrazia*

Zwinglioren zuzendaritzapean teokrazia moduko bat izan zan jarria, Eleizea ta Estatua ia-ia bat zirala. Eleiz zuzenketa udal-batzarraren eskuetan zan. Zehatz, baten, zaintzen zan Eleizara ta eukaristiara nor joian eta nor ez.

Zwinglioren ustetan, politika zeregina zan Eleiz barriztapena. Izkiluen bitartez behartu izan ebazan Suizako herrialderik antxinakoetako biztanleak erlijio barriaren eritxiak onartu daiezan. 1531.eko urrilaren 11an katoliko herrialdeen eta Zuricheko artean Kappelen sortutako burrukaldian hil zan Zwinglio.

Jainkoren aintzarako gehitu ta bideratu behar da ludi honetako kultura ta doguzan bitarteko guztiak, Zwingliorentzat.

• *«Sola fide, sola Scriptura»*

Ondo bereganatu izan ebazan Zwingliok Luterok aurkeztutako pentsakizunak. Eta Luteroren pentsabidearen ardatzetariko bat «Sola fide, sola Scriptura» zan. Bere-berea egin eban hau Zwingliok, Lutero ausartu ez zan ertzeraino eroanik. Ondorengo modura, demokrazia ezarri nahi izan eban Zwingliok Eleizan, eleiz-bururik izateak ez eukan eta zentzunik Ebanjelioaren arabera.

• *Sakramentuak*

Sendotu egin eban bere bidean Zwinglio Luterorengandik hartutakoak. Eta, arean gehiago, bere norberekortasunagaitik eta ertzekortasunagaitik alde egin eban Luterorengandik, bazterrik bazterreraino jorik.

San Agustinek, neoplatonismoa gaindituz, bizikizunaren —eta ez burutapen hutsaren— arabera aztertzen dau bizitzea. Zwingliok, barriz, bizikizunaren ganetik jartzen dau teologia; teoriatik bizitzarako bidea egiten dau, eta ez alderantzizkoa. Bizikizunaren bitartez barik burutapen bidez aztertzen dau bizitzea.

Guzti honek bere eragina dau Zwinglioren pentsakizunean. Nahiko argi igarten da hau, adibidez, sakramentuei buruz dauan adipenean.

Atal bi daukaz sakramentuak Zwingliorentzat:

- Jagokon Krstoganako betebeharra. Guda-irudia darabil Zwingliok hau azaltzerakoan: Ikurrinaren aurrean zin egiten dan modu berean egiten dogu zin Jesukristoren alde sakramentuaz.
- Gizarteaganako norbere sinismenaren ikurra. Sakramentuan ez dago Jainkoaren ekintzarik. Sinismena ta zindokundea —Jainkoa-

gandiko eskerra edo grazia— izan ondoren, hau adierazo egiten da gizartean. Honetara dator sakramentua. Egitekoa, beraz, eginda.

Zwingliok sakramentu bi baino ez ditu onartzen: bateoa ta eukaristia.

Eukaristia, Kristoren nekealdiaren oroimen bat baino ez da. Kristo ez da eukaristia ospatzerakoan. Ikur bat besterik ez da eukaristia. Alkartearen autorkuntza soil bat. Ogia eta ardaa ez dira Jesusen gorputz eta odol bihurtzen. Sagaraketa unean esaten diran «hau nire gorputza da» ta «hau nire odola» esaldietako «da» hori, «adierazotzat» hartu behar da.

Bateoa, Eleizako kide izatearen ikur edo adierazgarria baino ez da.

3. JOAN KALBIN

Zwinglioren hurrengo urteetan, Zurichetik Ginebrara aldatu izan zan Suizako Eleiz barrizketaren eragingunea. Kalbin zan bultzagilea. Azken mugaraino eroan eban protestantismoaren pentsabidea, bai burutapen mailan eta baita bizitza mailan be. Eragozpen eta arrisku guztiak gainditu edo alboratu ebazan bere siniskerea aurrera atarateko asmotan; indarkeria erabili beharra baegoan, indarkeria erabilirik¹.

3.1. Bizitza urratsak

Frantziako Noyonen jaio izan zan Kalbin, 1509.eko urtean.

Paris, Orlean eta Bourges urietan jardun izan zan ikasten. Bourgesen izan eban Alemaniako Luteroren pentsakerearen barri.

1535.ean Frantziatik ihes egin beharra izan eban, Coperi, Pariseko Unibertsitateko Erretoreari, Luteroren pentsabidez egindako ikasturte hasierako hitzaldia gertatzen laguntzarren.

Europatik zehar hainbat joan-etorri egin ondoren, Ginebrara heldu zan.

1537.ean «Instruction et Confession de Poi» kristau ikasbidea argitaratu eban. Sinismen aitortpena zan beraz.

1556.ean teologi ikastegi bat sortu eban, herrialde ezbardinetan kalbinismoaren zabalkundean jardun izango ziranak heziteko².

3.2. Pentsabide ardatzak

• *Betidaniko aukeratuak eta behin betirako gaitzetsiak*

Kalbinen pentsabidean ba da Luterorenarengandik sustraikoa dan ezbardintasuna. Gizasemearen salbamenduari buruzko ardurea dau Luterok. Ba da niganako errukitsua izan daitekeen Jaindorik? Zelan izan daiteke errukitsua Jainkoa nigaz? Honeek litzatekez Luteroren kezkarik gordinenak. Kalbinek, os-

¹ Ba da, honen gagozala. Kalbinen lzakerea zertxobait gehiago ulertzeko ohargarri dana:

«Cuando ya no podía participar en las sesiones, el consejo de la ciudad se trasladaba a su habitación. Cierta día, con ocasión de una de estas sesiones, Calvino produjo la emoción general de los miembros del Consejo al pedir perdón por todos los rigores y asperezas de que se hubiese hecho culpable en la ejecución de su obra» (ALGERMISSEN. KONRAD a.1 854. orri).

² Ikastegi honetara bialdu ebazan Albreteko Jonek erregina zan herrialdeetako kalbinismoaren pentsalari izango ziranak.

tera, Jainkoaren aintzari jagokona dau bere pentsakerearen ardatzik behinena. Osoan da beste bat Jainkoa Kalbinentzat. Izakirik Gorenekoa ta Ahalment-suena da Jainkoa. Ta holan izanik, «Soli Deo gloria».

Erreza da, hariari jarraituz, arterago esandakoaren ondorengoa ataratea. Kalbinek berak dinoanez: «*Tatum mundun hoc fine condicit, ut gloriae suae theatrum foret*». Mundua ta munduko guztiak dira Jainkoaren aintzaren zerbitzurako. Honetara, baita gizona be. Jainkoak, bada, aurretiaz autatzen ditu salbatuak izango diran gizasemeak, batetik, eta behin betirako zigortuak izango diranak, bestetik; berak gura dauana egiten daualako Jainkoak: mugabakoa da bere nahimena. Bai aurretiaz aukeratuak eta bai gaiztetsiak, bietarikoak dira Jainkoaren aintzarako: Jainkoaren maitasunaren ezaugarri lehenagoak eta Jainkoaren ahaltasunaren erakusgarri bigarrenak.

Guzti hau holan bada, ze zentzun daukie orduan giza ekintzek?

Holan erantzungo leuke Kalbinek: Bizitzean zehar igarten jako aukeratu danari. Bere ekintzen bidez adierazten dau salbatua danak Jainkoak bereganatu izan dauan autaketan¹.

Eta Jainkoaren ahalmen eta aintzaren gauzatzetzat jarri izango eban Kalbinek Jainkoaren aginpidea bera herri arazoetan be. Teokrazia estu batera behartu izan ebazan Ginebrako biztanleak. Gogorra izan zan Kalbin honetan. Uri guztia eratu izan eban pentsabide honen arabera, behar zan beste-ko indarkeria ta behar ziran bitarteko guztiak erabilirik². Ohargarriak dira, adibidez, Algermisenen berbok:

«Por entonces (1555) toda la vida social de Ginebra estaba rígidamente regulada hasta en los mínimos detalles. El consistorio para la disciplina eclesiástica, instituida por Calvino y compuesto de los eclesiásticos de la ciudad y de los doce laicos elegidos por el consejo en su seno, se reunía en conferencia todos los jueves; le correspondía el vigilar toda la vida moral de la ciudad y el cuidar que se observara con todo rigor el orden moral. Los miembros del consistorio tenían derecho de visitar sin previo aviso a cualquier familia y en cualquier momento para cerciorarse de la conducta moral de los moradores de la casa; toda la vida social de los ciudadanos, palabras, acciones y hasta opiniones particulares, estaban bajo su control. Cualquier falta podía ser castigada. Los pecados graves contra la fe eran castigados con la hoguera; se establecía la pena de muerte por blasfemia del nombre de Dios, por adulterio, por impudicia y por agravios de hecho a los padres. El juego, las danzas y las representaciones teatrales fueron prohibidos. Fueron suprimidas todas las

¹ Garrantzi handa izan eban betebeharrak Kalbinentzat, hemen azaldutakoagaitik. Ba dira gizarte barriaren bultzagilerik indartsuenetarikoak kalbindarrak izan zirala deritzenak.

² Interesgarria da Kalbinek Ginebran izan eban jokabidea ezagutzea. Ezin gaitেকেz horretan lotu gure lan honetan. Adu, nahi izan ezker, ALGERMISEN, K. a.1 849-854 orr. eta COURVOSIER, JACQUES. «La Ginebra de Calvino», in EE.EE. 2000 Años de Cristianismo Madrid, Sedmay, 1979. V. liburua 119-125. orr.

fondas y en su lugar se abrieron cinco tabernas, repartidas por toda la ciudad, que fueron llamadas «abadías»; nadie podía frecuentar la «abadía» correspondiente a otro distrito de aquel en que habitaba.

Todos los días laborales se celebraban los oficios divinos, con Predicación y doctrina cristiana; los viernes había conferencia religiosa con explicación. Se exigía con todo rigor la santificación del domingo. (...) Todos debían recibir la comunión. Calvino quiso imponer la comunión general mensual; pero no tuvo éxito con este plan. Fueron prohibidos los nombres no bíblicos, a los niños se les debía dar sólo nombres estrictamente bíblicos, sobre todo del A.T. En 1561 salió el decreto de que sería castigado todo enfermo que permaneciera tres días en cama sin llamar a un eclesiástico.»³

• **Sakramentuak**

Kalbinek ba dau ezbardintasunik Zwinglio ta Luterorengandik sakramentuei buruz.

Zwingliorentzat etorrik datoz gugana sakramentuak. Alkartea ta Jainkoaren ekintzea dira garrantzitsuenak. Ondorengo lez dator gizasemearen zeregina.

Luterorentzat, Hitza sakramentuaren barruan doa. Kalbinentzat, ostera, Hitza da sakramentua. Entzuten dana da garrantzitsua. Hitza baino ez.

Espirituari damotsan garrantzia da Kalbinengan bereziena sakramentuei jagokonean. Espirituaren bitartez dago Jesus eukaristian, adibidez. Espiritua da gizonak Jainkoari emoten deutzazan eskeintzak Jainkoak gizonari aurkezten deutzazan opari bihurtzen dituana. Zwinglio ta Luteroren bitarteko bidetik doa Kalbin: sakramentua ez da ikur huts bat (Zwingliok inoan lez), niri neuri emon egiten jatan zerbait da, Espirituaren bitartez esanahigarri dan edukina dabe niretzat. Baina era berean, Jesus ez dago sakramentuan bertan (Luterok uste izan ebanez). Sakramentuak ez dira Jainkoagandiko grazia izateko bidea, grazitan gagozanaren sinismenaren bidez dogun zihurtasuna baino.

Bi dira sakramentuak: bateoa ta eukaristia.

Bateoak ez dau ezertariko zirkinik aukeratuak ez diranengan. Ez dau gizasemeagan aldaketarik sortzen. Jainkoak pekatuak parkatu ta zuzentzat joten gaituala adierazten dauan sakramentua da bateoa.

Umeen bateoa dala-ta, une bi bereiztu daikeguz Kalbinengan. Euren erara ba dabela sinismenik eta, bateatuak izan daitekezala umeak uste izaten eban Kalbinek lehenengotan. Baina bigarren une baten, Buceroren eritxietan oinarriturik, Itun Zaharreko erdaintzuntzearen antzekotzat hartzen dau Kalbinek umeen bateoa, hau da, Jainkoa ta bere herriaren arteko Itunaren ezaugarritzat.

Eukaristiari buruz bat zan bahinbehineko arazoa: Ba da ala ez Kristo ogi ta ardaun? Jesusen gorputz eta odol dira ogia ta ardaua? Zwinglioren eritxiz ikurrak baino ez dira ogia ta ardaua. Luterorentzat, barriz, Kristoren gorputz eta odol bihurtzen dira ogia ta ardaua. Arterago aitua daukagu-

³ ALGERMISSEN, KONRAD a.1 851-852 orr.

nez, bitarteko bidea da Kalbinena: Espirituaren bitartez da Jesus eukaristian. Zeruetan dan Kristoren bultzakadeaz asetzen ditu Espirituak aukeratuak, jaunartzerakoan Kristogaz daben espirituzko alkartzean.

• **Eleiza**

Kalbinek ez dau onartuko bakarka jokatzearen bidea, Luterok inoan lez. Gizonak, barrutik apurtuta badago, ezin izango dau berak beratara zuzen ekin Horrexegaitik, beharrezko izango da heziketa gogorra. Alkartea ahaleginduko da legea betea izan daiten; eta notin bakoitzak eguneko minutu guztietan egiten dauanaren barri izateko eskubidea ta betebeharra izango dau.

Aukeratuen alkartea izanik, ikustezina da Eleizea, beraz. Baina gizonen jokabidearen zuzendaria dan neurrian, ikusgarria da.

Garrantzi handia dau Kalbinentzat ikusgarria dan Eleizearen osoketeak eta egiteak, bera dalako aukeratuak santutzeko ta gaiztetsiak Jainkoaren legepean jarteko arduraduna.

Lau zeregin dagoz kalbindarren eleizean: Artzainarena —hizlari ta arima zaintzaile—, jakitunarena —irakasle—, adinekoarena —eleiz jokabidearen zehaztzaile— ta diakonoarena —gaisoen eta txiroen zaindari—.

Batzorde bi dagoz alkartearen arduradun:

- Lagundi Itzagarria: Artzainak eta jakitunak osotzen dabe. Irakaslea ta eleiz arduradunak aukeratzea da bere zeregina.
- Batzarra («Consistorioa Santoa») : Artzainak eta amabi adinekok osotzen dabe. Erlijio ta moral bizikerearen zaindari ta epaile izatea da bere zeregina.

Eleizea ta Estatuak, beraz, bananduta izan behar dira Kalbinen ustetan.

Baina Estatuak lagundu egin behar deutso Eleizeari bere helburuak bete daizan. Eta honetara, Estatuak be onura batzuk gozaten ditu: barrudun eta zuzentasunzale diran herrikideak, erlijio heziketa gizonen alkarteetara eroatea ta uriko eguneroko bizimodua eratzea.

BIBLIOGRAFIA

ALGERMISSEN, KONRAD. *Iglesia Católica y Confesiones Cristianas*. Madrid, Rialp, 1964. 845-866 orr. Eta luteranismoa osoan aztertu nahi izan ezker, 765-844. orr. be bai.

ÁLVAREZ GÓMEZ JESÚS, CMF. *Manual de Historia de la Iglesia*. Buenos Aires, Ed. Claretiana, 1979. 209-211. orr.

EE.EE. *2000 Años de Cristianismo. La aventura cristiana entre el pasado y el futuro*. Madrid, Sedmay (société D'Histoire Chrétienne), 1979. V. liburua. 102-103. orr.

HERTLING, LUDWING. *Historia de la Iglesia*. Barcelona, Herder, 1984. 317-318. orr.

II. KALBINISMOA EUSKALERRIAN

Euskalerrian izan zan —eta oraindik ba ei da urratsik— protestantismoaren eraginik. Kalbinismoa edo protestantismoa barrizatua sartu izan zan Euskalerrira, osora ez bada be Iparraldera bai behintzat.

Eta Euskal Iparraldean izan zan kalbinismoa ulertzeko beharbeharezkoa da aldi haretan Frantzian izan ziran joan-etorriak, ganganetik izanik be, ezagutzea.

1. FRANTZIAN

XVI. gizaldiaren hasieratik —1520.etik, zehatzago esanda— hasten da pretestantismoa Frantzian sartzen. Dakigunez, ohi dalako eztabaidak eta istiluak izan ziran I Frantzizko eta II Endrike, bere semearen, erregetza aldietan zehar erlijio arazoa dala-ta; notinak sutan erretera heltzeraino. Sinisteausletzat joten ziran erlijio barri horregaz etozenak.

1559.etik aurrerantza, protestante izatea kalbindar izatea zan Frantzian. Urtenala irakurri izan eben Kalbinek argitaratutako kristau ikasbidea Erromako kide izankik kritikatzaille ziran frantziarrak. Ondo ekien Kalbinek Ginebran esku-artean zer erabilan. Ta Ginebrara bertara joan ziran ezkutatzeko lekuaren bila. Frantzian jazarriketak jasan izan behar ebezanean.

1540-1550 hamarkadatik aurrera, bada, sinisbide bi dira Frantzian: katolikoa ta kalbindarra. 1550.ean nahiko oinarrituta dago ta jarraitzailerik ugari dauka kalbinismoak Frantzian. Parisen eleizbatzar bat ospatzen dalarik. Danatarikoak doaz bertara: Eleiz arduradunak eta laikoak. Sinismen autorkuntzea ta eleiz erakundea zehazten dira batzar honetan, kalbinismo frantziarraren oinarri ta ardatza (Confessio Galicana).

1559-1598. urte bitartean,ugarretan ebilzan Frantzia biak alkarren aurka. Ordukoak ziran kondairan zehar hain ezagunak diran erlijio guda ospetsu batzuk¹.

Guda honeek dirala-ta. bereiztekoak dira, alde batetik, errege edo jauntxuak, eta bestetik, herri xehea.

Nahastean sartuta ebilzan jauntxuen artean hiru sendi aukitu daikeguz: Borboiak (honeetarikoa zan Albretoko Jone, Euskal Iparraldean kalbinismoa nagusi izan eiten hainbeste ahalegin egin eban erreginea),

¹ 1.go erlijio gudea, 1562-1563. urte bitartean.

2. « « 1567-1568. « «

3. « « 1569-1570. « «

4. « « 1572-1573. « «

5. « « 1574-1576. « «

6. « « 1576-1577. « «

7. « « 1579-1580. « «

8. « « 1585-1598. « «

Nanteseko Erabagia. 1598.ean

Châtillon hiru anaiak eta Guisatarrak. Baina badagoz herrialde bakoitzeko agintari edo jauntxu sendi indartsuak be.

Herri xeheari jagokonez, itsukeria ta fanatismoa ei ziran eurrez. Gordinkeri ta astakeririk asko ta handiak egin ei ziran: notinak biluztu ta bideetatik narraz erabili, gorputzak txikitu... egiten ei ebezan katolikoak; irudiak, eleizak ... apurtu kalbindarrak.

Itxura danez, erlijio guda honeen arrazoia erlijioa barik jauntxuen asmoak edo/ta ardurak ziran.

1580.erako, nekatuta ta nahaztuta egoan herria, jadanik. Jauntxuen haizearen arabera eragindako zozpela zala nabaritu eban. Alkartzen hasi ziran herritarrak hau salatzeke asmotan. Horra hor, Delfinadon, 1579-1680.ean; Commingesen, 1592.ean; Périgors eta Limousineko baserritarren iraultzea, 1594.ean.

Ordurik, erregeek, erlijioen ganetik egonik, sinisbide ezbardinak onartu behar ebezala uste izan eben bai kalbindarrek eta baita katolikoek be.

Gauzak baretzeko ta bakoitzaren lekua zein zan jakiteko, beharrezkoa zan legedi honek —euren ikastetxeak eraiki ekiezan, epaile lanetan jardun eitekezan... —. Baina erlijio arloan ba ebezan oraindik euren mugaketak; adibidez, ezin eben euren gurketea erreinu guztian egin.

2. EUSKAL IPARRALDEAN

1553.ean hartu eban Albretoko Jonek Nafarroako erregetzaren ardura. Ez eban eragozpen handirik aurkitu Béarnen protestantismo barrizatua sartzeko.



Béarnen jarririk, Behenafarroan eta Zuberoan be zabaldu gura izan eban Abretoko Jonek Kabinismoa.

Ez eban oztopo gehiegirik aurkitu herriarengandik. Askatasun giroa bizi izan zan. Jauntxuen gurariet sortutakoak ziran azaltzen ziran eztabaidarik gehienak edo guztiak.

Erljio barriaren aldekoak egin ziran Zuberoako jauntxo, salerosle ta jaurlaritzat langilerik garrantzitsuenak.

Albretoko Joneren alde agertu zan Gramonteko Anton, eta aurka Luxeko Karlos. Oraindik gehiago berotu izan eban eztabaida Beamondarrengandik eta Agramondarrengandik eratorritako jauntxoaren artean izan ziran hasarreak.

1567.ean, Saint Palaiseko artzain kalbindarra jaurti eben Behenafarroako katolikoak, eta Larreako jauna, Behenafarroan Albretoko Jonek izan eban laguntzailerik zintzoenetarikoak, lspuruan espetxeratu.

Oraindik hamalau urteko semea bialdu behar izan eban Albretoko Jonek Behenafarroara, errege-agintaritzat berreskuratzeko.

Maulen sartu izan zan Luxeko jauna, katolikoaren buruzagia, urte bi garreanean. Zuberoa osoa kapustu eban. Montgomeryk zuzendu eban kalbindarren erantzuna: Behenafarroa apurtu ta Donibane Garazi bereganatu eban.

Honenbeste tira-bira —eta gehiago— ondoren, 1631.urtea arte izan ziran artzain kalbindarrak Zuberoan.

Lapurdin ez eban zirkin handirik izan protestantismo barrizatuak.

3. ALBRETEKO JONE

Borbondarra. Nafarroako erreginea ta Béarneko anderea. Arterago aitatu ditugu Frantziako gudetan zerikusi handia izan eban. Euskalerrian jazo izan zana ez zan izan Frantzian jazo izan zanetik aldentuta. Zihur asko, sinismen arrazoiak baino indar handiagoa izango eben politika ta lurralde arazoak Nafarroako Anton eta Jone erregeek kalbindar izatera bihurtzerakoan.

Dakigunez, Nafarroako behekaldea galdu izan eban Albretoko Joneren aititak Espainiako Fernando katolikoaren eskutik 1512. urtean. Hiru bidar ahalegindu izan ziran espainiarrak arrezkero, falta izan zan zatia —beranduago Joneren agintzapean lotuko zana— eskuratzeko. Ezina gertatu izan jaken.

Akarrizketan ebilzan Espainia ta Frantziako erregeak Nafarroako lurra zirala-ta. Erromako Aita Santua be tartean sartu izan zan.

Guzti honek sendotu izan eban, itxuraz, Albretoko Jone, kalbinismoaren alde indartsu ekiteko.

Andra odoltsua ei zan. Kementsua. Ba dinoe, Anton, bere senarra, Joneren eraginez bihurtu zala kalbinista izatera; nahiz eta hiltzorian egoala kalbindar sinisbidea aitortu ebala esan beste iturri batzuk. Dana dala, prakadun emakumea zan Jone historigilerik gehien eritxiz.

Ez da erraza Albretoko Joneri buruz kronologia zehatz bat egitea —ez da hori, izan be, gure asmoa—. Hasiera baten zuhurtasunezko politika jokabidea eroian. Adibidez, 1558.eko zemendian Frantziako erregeari

ta ertzain-buruari Espainia aldeko Nafarroako lurak dirala-ta idatzi eutsezan eskutizetatik nekez esan daike inork Jone kalbindarra zanik. 1560. eko Gabon egunean agertu izan zan lehenengoz kalbindar lez Jone¹.

Behin bihurtu zanetik, nekatu barik eta gartsu ahalegindu izan zan kalbinismoa bere lurraldeetan zabaldua izan eiten. Ginebrara bialdu izan ebazan bearnetarrek Kalbinen irakatsiez jabetzeko. Ikasgu bat be sortu eban Orthezen bere ardurapean. Esanda daukagunez, errez sartu izan zan kalbinismoa Béarnen; jarraitzaileen batzuk aurkitu izan ebazan Zuberoan, baina hamaikatxu eragozpen aurkitu ebazan Behenafarroan: makina bat kartzela, zigortze ta heriotza izan ziran lurralde honetan. Hona holan ba, Euskalerrria Frantziako ertijio gudetan sartuta.

BIBLIOGRAFIA

- EE.EE. *2.000 años de Cristianismo. La aventura cristiana entre el pasado y el futuro*. Madrid, Sedmay (Société D'Histoire Chrériense), 1979. V. liburua. 209-226. orr.
- ESTORNES LASA, BERNARDO-ESTORNES ZUBIZARRETA, IDOIA. *Enciclopedia Ilustrada del País Vasco*. Literatura I. San Sebastián. Ed. Auñamendi. 89-90 eta 149-154. orr.
- GOYHENETXE, EUKENI. *Historia de Iparralde. Historia del País Vasco*, tomo 5. San Sebastián, Txertoa, 1985. 53-54. orr.
- LYMAN ROELKER, NANCY. *Queen of Navarre. Jeanne d'Albret*. The Belknap press of Harward University Press Cambridge, Massachusetts, 1968. 120-240. orr.
- ONANDIA, SANTI. *Euskal Literatura (I)*. Bilbo, Etor, 1972. 99-108. orr.
- TORRE, JOSÉ MIGUEL. *Historia del País Vasco Norpirenaico*. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1976. 162-164. orr.
- VILLASANTE, LUIS. *Historia de la Literatura Vasca*. (2.^a edición. Revisada y completada) Aranzazu, 1979. 55-60. orr.

¹ Egia esan, eritxi ezbardinak dagoz zehazketa honeri buruz Hona adibidez bi:

«Juana de Abret, reina de Navarra y señora de Bearne, en la Pascua de 1559 adjuró pública y solemnemente el catolicismo y abrazó la reforma de Calvino.» VILLASANTE, LUIS. *Historia de la Literatura Vasca*. (2.^a edición. Revisada y completada). Aranzazu, 1979. 55. orr.

«In public acts anda staments in 1555 and 1556, Antoine and Jeanne gave no sign of diverging from past policy or from catholic worship. Although there is evidence that Jeanne was draw to Calvinism before Antoine was, she did not reveal her conversion until Christmas Day 1560.» (NANCY LYMAN ROELKER. *Queen of Navarre. Jeanne d'Albret*. The Belknap press of Harvard University Press Cambridge, Massachusetts. 1968. 124. orr.).

III. JOANNES LEIZARRAGA¹ ETA EUSKAL KALBINISMOAREN EDUKIN NAGUSIAK

Protestantismoa bere lurralde guztietan zabaldua izan eiten ahal-egindu izan zan Albretoko Jone. Euskalerrira heltzerakoan baina, ba egoan gaingitu beharreko oztopo bat: hizkuntzea, euskerea, jakina. Zer-egin honetarako aldi haretan izan litzatekean laguntzailerik onenetariko —onena ez bazan— aurkitu eutsien: JOANNES LEIZARRAGA.

1. BIZITZA URRATSAK²

Bere bizitzeko barririk gitxi ezagutzen dira. Ez dakigu ez noiz jaio zan ez noiz hil zan. Ba dakigu Beraskoizko semea zana, berberak dinoskulako. Abade katolikoa izan zan; baina ez dogu non abadetu zanaren barri.

Eleiza katolikoa itxi ta bide barriak noiz hartu ebazan ez dakigunarren, gutxi gora-behera ba dakigu noiz deitu eutsien itzulpen lanetarako: 1563.eko hasieran. Agindu hau emon izan eutsien Paben batzarra izan eben kalbindarrek: «Lapurdin dagoan Leizarragari hona etorteko agindu bekio». Itun Barria, otoitzak eta kristau ikasbidea itzuli behar izango ebazan euskerara; eta gero, berak nahi izango baeban, Euskalerriko herriren bateko eleiz-artzain izateko gertatu.

Hau zan batzarraren guraria, ta baita Albretoko Jonerena be. Arrezkero, honexek dira bere bizitzako barririk interesgarrienak:

1565.ean joten dau amaitutzat bere itzulpen lan guztia, eta Olorongo batzarrean lau artzain euskaldun izendatzen dira Leizarragak egin dauana aztertu ta zuzentzeko, Sanveterreko batzarrean, urte beratan, emoten deusie euren onetsia.

1556.ean, Leizarragaren aipamena egiten dau Nayko batzarrak: Jainkoak dohai handi eta ugariak emon ei eutsazan, eta ona litzatekela holako gizon bat Nafarroako herriren batera bialtzeko.

Sinismen-aitorpena eginik, eleiz-artzain izateko onartua izan zan Joannes 1567.ean Pabeko batzarrean. Labastidara bialdua izan zan.

Rochellan dogu 1571 Testamentu Berria argitaratzen. 1573.ean itzultzen da Labastidara.

Leizarraga ez da izaten Pabeko 1593 eta 1596.eko batzarretan; ordezkatat bialtzen ditu, bera ezin da adinagaitik joan eta.

Oraindik Labastidan jarraitzen dau 1598.ean. 1601.ean izendatzen dabe bere ondorengo artzaina. Beraz, 1598.tik 1601.era bitartean hil zala esan daikegu, besterik azaltzen ez dan arte.

¹ Holan dino Lino Akesolok Joannesen abizenari buruz:

«Nola dan Beraskoizko seme honen izengoitia. Lizarraga. ala Laizarraga? Berak frantsesez Lizarrague erabiltzen du; baina euskeraz Leizarraga». (Testamentu Berriaren leenengo euskeratzailea. Jaunaren Deia 33 (1970, 283).

² Atal honetan ia osoan jarraituko deusagu LINO AKESOLOrI. a.1. 271-2. orr.

Ederki ei daki euskeraz zein erderaz egiten. Katolikoek eleizan bertan egiten ebazan bere hitzaldiak, ordu batzuk beretzat harturik.

2. LEIZARRAGAREN ITZULPEN LANETAKO EDUKIN NAGUSIAK

Joannes Leizarragaren izena literatura liburuetan azaltzen da batez be. Ta guztietan euskereari jagokonean izan eban garrantzia azpimarratzeko. Egia esan, ukatu ezina da hau. Hona hurrengo, untze modura, Xabier Kintanak dinoana:

«Hari esker ba dukegu gaur egun orduko Euskera ezagutzeko paregabeko liburu bat, eta hain zuzen orduko Euskeraren hitzen esan gura berezi eta zehatza, latinetik hitzez hitz Euskeratuta egonik.»

(...)

«Atsular bezain idazle ona ez bada ere bere lumak (hegatza, bere esanez) ba du Saratarrarenak baiño ugaritasun eta aberastasun haundiagoa, eta Euskeraren hondar gabeko aditz aberastasuna ezagutzeko ez bide dago hau baino egile hobeagorik. Ez zaizkio esakera bitxi eta harrigarriak (... eta zen hau berean konpainia bat seiogeie personaren ingurukorik ...) falta eta ederki ematen deuku orduko Euskeraren barri urruna, interesgarri, bestalde, une haretan Euskerak bere aldakuntzarik haundienetarikoa egin baitzuen indikatibo-subjuntibo jokoak berriro moldatzen (da-dadin, du-dezan)»¹.

Gure asmoa, barriz, ez da Leizarragaren euskerea ta arlo honetan bere lanak izan eban eragina eztertzea; bere itzulpen lanetan diran pentsabiderik nabarmenenak ohartzea baino. Itzulpen lanak izateaz, idaztiok euki daikien balioa gitxitu egiten da, baina hala eta guztiz be, eurok ditugu aldi haretako eukal kalbinismoaren lekuko. Itzulpen lanak izan arren, euskal seme baten bahetik igarotako edukinak ditue euren alzoan.

Honeexek dira esku artean erabiliko ditugun idaztiak²:

1. Othoitza Ecclesiasticoen Forma: Sacramenduén administratzeco eta Ezconçaren celebratzeco, bay eta erien visitatzeco manerarequin (OE hizkiez izendatuko dogu oraindik aurrera).
2. Catechisma, cein eran nahi baita Iesus Christen doctrinán haorrén iracasteco formá, non Ministreac interrogatzen baitu, eta haourrac ihardesten (C hizkiaz aitatu oraindik aurrera).

¹ KINTANA, XABIER. *Hitz aurea*, in LEIZARRAGA, JOANNES. *Euskal protestantis-moa zer zen. Gabriel Arestik tajutua*. Donostia. Lur (Hastapenak, 4), 1970 3-4 eta 8. orr.

² Idazti guztiok aurkitzen dira Hordago publikapenak-etan: *Euskal Klasikoak* 18 (3 alea). Donostia. 1979ean berrargitaratuta.

Lan hau ez da Heidelbergeko kristau ikasbidearen¹ itzulpen zuzena, baina haretan agertzen diran gai nagusiak agertzen dira honetan be. Interesgarria litzateke Leizarragaren iturria zein zan ezagutzea. Lehenago esan ditugunez, beste baterako edo besteren batentzat izten dogu era honetako lana.

3. *Jesus Christ launaren Evangelioo puritatearen arauera vicitzeco desira duten Franceséc (FSA aurrerantzean)*².
4. ABC edo Christinoen Instrukcioea otoitz eguiteco formarequin.

Gakiozan bada, honezkero, leizarragaren lanetan diran edukin nagusiak aitatzeraz.

2.1. Zindokundea

Zindokundea baino lehen gizonak egin daikezan ekintzak ez dabe ezetariko baliorik Jainkoaren aurrean. Bestela, Jainkoa «erosteko» bide izango litzatekez. Arean gehiago, gizona ez da ekintza onik egiteko gai berak egitean. Ustelduta dago barruz gizasemea; eta egiten dauan guztia, pekatu besterik ezin daiteke izan. Iturria lohia izanik, ura ezin daiteke garbia izan. Ezezkortasunez aditzen dabe gizasemea kalbindarrek³.

«M. Baina gure obra guciac ain valia gutitaco dira, non laincoaren aitzinean gratiaric ecin merci deçaten?»

H. Lehenic gure natura eta ethorte propiz eguiten ditugun obra guciac, dirade vicioso, eta halacotz ecin dirate laincoaren gogoraco, baina aitzitic guciac ditu condenatzen.

¹ Heidelbergeko Kristau ikasbide hau honako idaztietan aurkitu daiteke:

Frantsesez: FATIO, OLIVER. *Confessions et Catechismes de la Foi Reformée*. Geneve, Labor eta Fides. 1986. 128-17a. orr.

Alemanez (jatorrizko hizkuntzea) ta ingelesez: PHILIP SCHAFF, D.D., LL.D. *The Creeds of Christendom with a history and critical notes*. (Revised and enlarged). III. New York. Harper & Brothers. 41919 (1877). 304-355. orr.

² Frantsesez: OLIVER FATIO. *Idem* 111-127. orr.

Frantsesez eta ingelesez: PHILIP SCHAFF. D.D., LL.D. *Idem*. 356-382. orr.

³ Ba da Leizarragak dinoanean kontraesan bat. Alde batetik. behin eta barrero azpimarratzen dau gizonarenganako ezezkortasuna, eta besterik, «legue naturala» deritxona aitatzen dau:

«Legue naturala da còscientiaco sendimendubat, ceinec asco suffcientequi, ignoràtiazco excusaric eztuqueen beçala, onaren eta gaitzaren artean discernitzê eta iugeatzê baitu (ABC 41).

eta arrazoimenaren bitartez Jainkoa ezagutu daitekela be bai:

«Guiçona da creaturabat gorputz corruptiblez eta arima inmortalz compausatua eta egina, ceini laincoac eman baitrauca adimêdu eta raçoin, ez bere buruaren mundu huretaco vicitzaren eguitecotan gobernatzen iaquiteco solament, baina laincoaren beraren eçagutzeco-ere bay, hura ohora deçançât» (ABC 46).

Gai eztabaigarria da hau kalbindarren artean. Dirudienez, Kalbinek —ezta luterok be— ez eban inoiz Berezko Teologia (Teologia Natural) aiatatu. Gaurko kalbindar teologiarren artean be urak ez doaz andapara bat bakarretik, horra erakusgarritzat Brunner eta Barth: lehenengoak onartzen dau berezko Teologia. bigarrenak ez osteraz.

M. Hic dioc beraz, laincoac bere gratán recibi gaitzaqueen baino lehen bekaturic baicen ecin diadígula, arbore gaichto batec fructu gaichtoric baicen ecin daidan beçala.

H. Hala da eguiá. Ecen gure obréc cápotuc apparentia ederra badite-ere, gaichto baicen ecin dirate, bihotza gaichto denaz gueroz, ceinetara, beha baitago laincoa.

M. Hortic concluditzen duc hic, ecen gure merituz ecin goga deçaquegula laincoa guri ungui eguitera: baina gueurón contra tharritatzen eztugula.

H. Horrela adiitzen dut» (C 19)¹.

Zer da zindokundea orduan? Holan azaltzen deusku Leizarragak berak:

«laincoaren aitzinean iustificatu içatez da, iugomenduaren aitzinean absoluartu içatez, eta iusto estimatu içatea: ez laincoac hoguendun eta condemnationearen digne areideitê ezgaituelacotz, baina ecerê lesus Christec bere herioaz guregatic eguin duê pagamênduaren causaz, espaitrauzquigu gure bekatuac imputatzen ez cõtatzten: eta ceré lesus Christen iustitiá guri contatzten baitzaicu. Eta ceren fedez, eta ez eceinere den gure obrén merituz, recibitzen baitugu iustitia haur, erraten dugu ecen fede hutsaz iustificatzen garaela laincoaren aitzinean» (ABC 40).

«Ecen laincoac bere misericordia eta ontassun hutsaz, gure obrén considerationeric batre gabe, bere gratiaz recebitzen gaituela lesus Christe launean, haren iustitiá imputatzen draucularic gure baliz beçala, eta gure peccatuac imputatzen eztrauzquigularic» (C 21).

Esanda dogunez, ez gara gure ekintzen bidez zindotuak. Jainkoa bera dogu zindotzen gaituana, gugandik ezer egin barik, bere 'misericordia' ta 'ontasunaren' bitartez. (Ohargarria da aztertzen daragoiogun lanotan zenbat bidarrez agertzen diran 'misericordia' ta 'ontasuna' berbak Jainkoari zuzenduta, txitean-pitean). Holan izanik, sinismenez zindotzen da gizona.

Sinismena, laburki esanda, eta Leizarraga beraren berbak erabilirik, hurrengo hau litzateke:

«laincoac guregana duen amorioaren eçagutze segurbat eta fermubat, bera bere Evangelioan declaratzen çaicunaren araura ecen gure Aita ta Salvadore dela lesus Christen moienez» (C 18; aditu ABC 40 be bai).

Eta zelan lortu daiteke sinismena? Dohain bat da. Gure adimenez ezin gaitkez heldu sinismena izatera. Espiritu Santuaren eragin barik txarto eginak dira gure ekintza guztiak, gizona ezerez hutsa dalako izatez.

«M. Eta fede haur ahal diquegu, ala laincoaganic recebitzen dugu?

H. Scripturac iracasten gaitu ecen fedea Spiritu saindu aren dohain singularbat dela, eta haur experientiaz ere dacussagu.

¹ Orrialdeak zenbatu barik berrargitaratu ditu lanok Hordagok. Hemen jartzen ditugun zenbakiak geuk ipiniak dira idazti bakotxaren hasieratik zenbatzen hasirik, eta ez guztiak jarraian harturik. FSA ostean doazen zenbakiak, barriz, idaztiko ahapaldi bakotxaren zenbakiei jagokez.

M. *Eta nola?*

H. *Ceren baitacussagu gure adimendua, fedez reuelatzen çaicun laincoaren sapientia spirituala comprehendí ahal deçaqueen baino flaccuago dela: eta gure bihotzac diffidentetara, edo gure buruëtarateo edo creaturataraco confedança gaichtotara emanac diradela. Baina Spiritu sainduak illuminatzen gaitu, neholetan-ere bercela ecin adi guenetzaqueen gaucen aditzera: eta fortificatzen gaitu segurançatara, saluamentutaco promessac gure bihoztetan imprimituz eta ciguilatuz» (C 18).*

Leizarragaren lanak irakurterakoan, ba dago behin eta barriro begien aurrean aukezten dan berba bat. 'segur' edo 'claroqui'. Adibidez, otoiñari buruz berba egiterakoan (C41; ABC 43); Eleizeari buruzko zehaztasunak emoterakoan (C 15...); sakramentuak aztertzerakoan (C 54.55.57...) e.a. Protestantismoari jagokon berezitasun bat da sinismenak emoten dauan zihurtasun hau indartzea; Luterok sarritan aitzatzen dau berau. Baina ez da gizasemeak beregandik duauan zihurtasuna, Jainkoagandik jatorkona baino, sinistu daian egiten daualako.

Sinismena, arean gehiago, hastekoz gain. aurrerantza jarraitzeko ta azkeneraino heltzeko be emoten dau Jainkoak. Gero aitatuñ dogu barriro. baina ezin ondo legoke hemen be esatea: zindotua danak ezin daike gatzik egin, fedez jokatzen daualako, Espiritua gidari dauala.

« ... *etzaye elegituey fedea emaiten dehin bide onean eçarteco solament: baina finereno hartan continua eraciteco-ere bay: ecen hatsea ceçala acabatzea-ere laincoari appertenitzen çayó» (FSA 21)*

Sinismenari buruz gagozalarik. ba dago idaztiotan nahiko agertzen dan beste berba bat: Jainkoaganako bildurra. Bere-beregizko jokera dau kalbinismoak Itun Zaharrera. Ta nabarmena da hemen zenbateraino azpimarratzen dan Jainkoaganako bildurra. Izan daiteke honen eragina. Ta euki leike zerikusirik Kalbinek izan zituezan bizikizunak be¹.

¹ «En Ginebra los predicadores Farel y Viret habían llevado a efecto en el año 1535 la reforma anticatólica de inspiración zwingliana. Sin embargo, se cosechaba aquí tan menguados frutos que el mismo Farel llegó a pronunciar sobre la actividad reformadora este dictamen desconsolador: «gente odia a los sacerdotes y come carne los días de ayuno». Al saber Farel el 5 de agosto de 1536 que Calvino se hallaba en la ciudad, lo buscó inmediatamente y le conjuró con dolorosas palabras a que se quedara en Ginebra y dedicara sus esfuerzos a esta ciudad. Calvino adujo su juventud —tenía entonces veintisiete años— y manifestó que antes que nada deseaba proseguir sus estudios. Entonces Farel, con gran calor y excitación, exclamó: «Tú aduces el pretexto de tu juventud, pero en nombre del Dios omnipotente yo te anuncio que la maldición de Dios te alcanzará si rehúas tu ayuda a la obra de Señor y te buscas a ti mismo antes que a Él» Calvino creyó percibir en este violento apremio la voz de Dios y se quedó en Ginebra.

Se revelaba en esto su índole particular: se inclinó ante la majestad de Dios que impera y juzga y se sometió con obediencia estricta a lo que él juzgaba voluntad de Dios. Así como Farel le conquistó con una palabra violenta, también él seguirá desde entonces el método de formar las almas hacia Dios mediante la violencia» (ALGERMISSEN, KONRAD. a.1. 849. orr.).

(Kontuan izan sasoi haretan bildur hau zenbat aitatzten zan katolikoan artean be). Baina era berean, bildurgarria baino errukiorra gehiago dala Jainkoa dino Leizarragak behin:

«Hori eguiten du aditzera emateagatic, ecen unguiz-ere emetassunez eta misericordiaz usatzera prestago dela ecen ez seueritatez edo gogortassunez: berac-ere testificatzen duen beçala, ecen ungui eguitera gogabera dala, eta asserretzera berancor» (C 25).

Harira itzulita:

«M. Fede hunetarik cer on ethortzen çaicu, hura dugunean?

H. Hare iustificatzen gaitu laincoaren aitzinean vicitze eternala dugunçat» (C 18-19).

Badakigu gizonaren ekinaz ez dagoana zindokunderik. Baina gogoko jakoz, orduan, zindotu ondoko gizasemearen ekintzak Jainkoari? Ez eta bai. Ez, zindotzeak ez dakarrelako izate aldaketarik gizonagan. Ez dago gizona osoan barrizatzerik. Ezina da. Beti egongo da pekatuz zi-priztindurik. Holan aditurik, ezin jakoz atsegin izan gizonaren ekintzak Jainkoari. Izatekotan, bere ontasunagaitik onartzen dituan neurrian izango jakoz gogoko Jaunari gizonaren ekintzak; eta ez gizasemearen duintasunagaitik.

«M. Baina laincoac behin recibitu gaituenaz gueroz, haren beraren gratiaz eguiten ditugun obrác etzaizquio placent?

H. Bay placêt ç aizquio, liberalqui bere ontassunagaitic recibitzê ditué-becébateá, eta ez hayén dignitateagatic.

M. Eta nola? eztirade digne recebi ditzan, Spiritu sainduaganic proceditzen diradenez gueroz?

H. Ez, ceren bethiere gure haraguiarenic cerbait imperfectione bequin nahasteca baita, eta harçaz maculatuac baitirade» (C 20).

Beste era batera esanik, Jesukristoren bitartez estalduak izan diralako euki eikiezan alderdi ilunak, izango ditu gogoko Jainkoak gizonaren ekintzak.

«Baldin fedez eguinac badirade, erran nahi dut personá den segur bere cõnsciencián, ecen laincoac ezituela bere seueritatean examinaturen, baina hayen imperfectionea eta maculác lesus Christen puritateaz estaliren dituela, eta haren amorecatic perfect balirade beçala estimaturen dituela» (C 20).

Protestanteak ez daba synergismorik onartuko. Gizonak, eginak egin, ezin izango dau bereganatu Jainkoa. Santo Tomasek aurkezten eban «capax Dei» gaitasuna ukatu egiten deusie protestanteak gizasemeari.

2.2. Betidanik aukeratuak eta behin betirako gaiztetslak

Aurreko atalean zindokundeari buruz esandakoa Luterok be onartuko leuke neurri handi baten edo ia osoan Kalbinegaz batera. Baina

hau ez da hemen gelditzen. Azken mugaraino daroa Kalbinek Luterok zindokundeari buruz aurkeztutako pentsabidea.

Jainkoaren aintzarako ('gloriatzeco', 'laudatzeco', 'cervitzeco', 'ohoratzeco') da munduan dagoan guztia. Ezina gertatzen da aztertzen dihardugun idaztiotan berbok zenbat bidar aitatzten diran jakitea, zein otoitz giroan zein arrazoiketa arloan. Nabarigarria da zenbatean azpimarratzen dan Jainkoaren «Maiestatea». San Agustinen «*superior summa meo, interior intimo meo*» esaldia hartuko bagendu, lehenengo atala baino ez litzateke agertuko Leizarragak itzulitako lanetan. Buruan ez litzakio sartuko Jainkoa

«interior intimo meo» be izan daitekenik, «ceren gure naturaz higitze ez affectione ez pensamendu bat onic ecin baituequegu» (FSA 12).

Honetara izanik, Jainkoaren nahimenaren arabera jazoten da guztia munduan.

«laincoaren prouidentiá da heran beraren cõseillua eta gobernamentua, ceinez gauça guciáz beraz creatu beçala, berac dispausatzen eta gobernaten -ere baititu, hambat generalqui nola particularqui» (ABC 35-36).

«Gauçá guciáz bere prouidentiáz dispausatzen dituela: mundua bere vorondateaz gobernaten duela: eta ecenere eguiten baita, nola placer baitu hala guidatzen duela (C 4).

Arean gehiago, notinei jagokenean be ondorengoa argi dago: batzuk salbatuak izango dira ta besteak gaitzetsiak.

«Predestinationea da laincoaren conseillu eta ordenamendu eternala, ceinec bere vorondate iustoaren arauera ecenere berce considerationeric gabe, ordenatua baita-dauca, bere ontassun gratiazcoz, bere gloriá manifestatu nahi drauenén saluamenduaz eta damnaturen direnén damnationeaz, ceinetan bere iugemendu iustoz eta eguiazcoznahi içan baita glorificatu» (ABC 36; ba da orrialde honetan 'predestinationeaz' beste zeazketa bat be).

Eta hetaric, batzu erori içá diradela, perditionetara: eta bercec obediencia persistitu eta iraun ukan dutela. Eta diogu eroriac, nola malitiatan corumpituac baitirade diradela unguí oraren, bayeta Eliça guciaren etsay: eta berceac, laincoaren gratiaz preseruatuta eta beguiratu içanic» (FSA 7).

Jesukristoren berbizkundeak ez dau zirkin edo eragin bardina guztiongan: salbamenerako da batzuntzat ta heriotzarako besteentzat.

«M. Eta resurrectione haur ezta onén eta gaichtoén comun içaen? H. Bay, baina conditione diuersetan. Ecen batac resuscitaturen dirate saluamendutara eta alegrançatara: eta besteac damnationetara eta heriotara» (C 18).

Eta ez batzuk besteak baino hobeak diralako, Jainkoak holan nahi izan dauelako baino.

«...Bere ethortez batac eztirade berceac baino obe, laincoac munduaren creationea baino lehen, bere conseillu eternal lesus Christ baithan determinatu çuenaren arara discerni eta berez ditzaqueno» (FSA 12).

Nahikeri bihurtzen dala dirudi Jainkoaren borondatea.

Eta guzti hau, Jainkoaren aintzarako da: aukeratuak Jainkoaren 'misericordia' ta 'ontassuna' erakutsi daien, eta Jainkoaren tolesbako zuzentasuna gaiztetsiak.

«... berceac corruptione eta condemnatione hartan berean utziten dituela, hautanbere iustitiá erseuts deçançat, lehenetan bere miserieordiaren abundantia beçala» (FSA 12).

(ABC 36-37. orr. irakurri daitekez laburpen modura).

Aukeratuak, sinismenez zindotuak izanez gainera, sinismena dabe aurrerantza ekiteko be. Espiritu Santuaren eragina dabe euren gan (FSA 21). Eta ere berean, ezin jausi daitekez Espiritu Santuaren aurkako pekatuan (ABC 42), Espirituak berberak bultzatuak diralako.

Aukeratuak, betidanik eta behin betirako aukeratuak diranez, euren ekintzek ez dabela garrantzirik usten izan daiteke, bardin dala zuzen edo oker jokatu daien. Zertarako, baina, esaten da neke barik Leizarragaren idaztietan, «laincoaren icen sainduaren glorietan eta gure hurcoaren edificationetan» izan behar dala aukeratuak egiten dauana? Edo 'charitatea' bizi behar dauala? (ABC 42).

Aukeratuak nor dan bere ekintzen bidez ezagutuko da. Bere joka-bidean agertzen dau aukeratuak danak. Nabaritu egin behar da Espiritu Santuaren egitea; ta bera bada aukeratuagan ekiten diharduana, haren erakusgarri izan behar da honek egindakoa. Bestela, ez litzateke Espirituak eragina izango .

«... baina bere Spiritu sainduaz regeneraturen-ere bagaituela, sainduqui vici eraci gaitzançat» (C 21).

Ba da honetan kalbinismoaren eta luteranismoaren artean ezberdintasunik. Bakartadean biziteko zerbait lez aditzen eban sinismena Luterok: Jainkoa ta gizasemearen arteko bakarkako hartuemon. Kalbin, barriz, hartuemon honeek kanpora adi daben adierazgarritasunaz oharitzen da batez be. Nabargarria da: batetik, gizonaganako ezezkotasuna, ta bestetik, munduaganako baiezkortasuna.

«Mundu hunetaco vicitzea hambat miseriatarata suiet badaere, fidelarentzat laincoaren benedictionebat da: eta berckerik, ezpaliz-ere, ceren laincoac hec hemen entretenituz, bere amorio paternala eracusten baitraue» (C 29)¹.

¹ Hari honeri etenik, kalbinismoa litzateke Sartaldeko gizartean izan diran liberalismoaren eta osteko aurrerakuntzen eragingarririk zolienetarikoa batzuren ustez. (Aditu 8. orr.).

2.3. Sakramentuak

Azaldu izan dogu arterago¹ sakramentuei buruz Zwinglio, Lutero ta Kalbinen arteko ezbardintasunak. Nahiko argi azaltzen da Kalbinen eritxia aztergai idaztietan.

• *Zer dan sakramentua*

Aztertzen gabilzan lau lanetatik hirutan agertzen jaku sakramentua zer dan zehaztuta.

«Sakramentua da, laincoac bere Eliçarençat ordenatu ukan duen ordenançabat, hartan bere promes spiritualac signo visiblez representatzê drauzquigularic: eta harçaz eztrauzquiegu solamêt promessaz cõnfirmatzen, baina hetan possessionetan-ere eçarten gaitu ...

edo

«Sacramendua da, laincoaren gratiaren testimoniage visiblebat, gauça spiritualaz signo visiblez representatzen drauzquigularic, laincoaren promesac cineçago gure bihotzetan imprimi ditecençat, eta gu segurago gaçat» (ABC 44).

«Sakramentua da, laincoaren gureganaco amorioaren testificatione exteriorbat, ceinec signo visiblez gauça spiritualac representatzen baitrauzquigu, laincoaren eta gu segurago gaitecençat» (C 51)².

Sakramentua 'signo visiblea' dala aitatzten da zehazketa guztio-tan (Jainkoak egin deuskun 'promes spirituala' dala, Jainkoak guganako dauan maitasuna dala, zein ...). Sakramentua, beraz, ez da Jainkoaren maitasun-ekintzea.

Baina, orraitino, sakramentua ez da ikur huts bat. Espiritu Santuaren bertutez ekiten dau Jainkoak sakramentuetan: *«lancoaz heçaz operatione eguiten baitu bere Spirituaren verthutez» (FSA 34)*. Espirituaren zeregina handia da kalbindarren ustetan. Aparteko begirunea dabe bereganako.

Zehaztekotan baina, ba da holako tira-birea sakramentua 'representatio' izatearen eta Espiritu Santuaren bitartez Jainkoak egina danaren artean. Honetan datza Zwinglio ta Luteroen artean Kalbinek hartu eban erdibidea. Espirituak gugan egiten dauanaren egiztatzea litzateke sakramentua, ez zuzenki gugan dauan ekintzea berea. Irakurri daigun argigarritzat bateoari buruz Leizarragak zer dinoan:

«M. Aditzen duc hic ecen ura dela gure arimén ikuzgarria?

H. Ez: ecen hori appertenitzen çayó solament Iesus Christen odol guregatic issuri içan denari, gu pur eta chanu laincoaren aitzineco eguin guençançat: eta haur complitzen da gutan gure conscientiac Spiritu sainduaz ihizatzen diradenean: baina certificationea Sacramenduan dugu.

M. Aditzen duc hic ecen ura barneco ikutzearen figura baicen ezte-la?

¹ Aditu 5-6 orr.

² Aditu baita FSA 34.

H. Hala da figura, non figuratzen denaren eguia-ere harequin batean baita. Ecen laincoak eztraucu deus alfer promettatzen. Bada segura da, ecen bekatuén barkamena presentatzen çaiçula baptismoan eta recebitzen-ere badugula» (C 54).

• **Beharrezko dira sakramentuak**

Sakramentuak gitxesten dituanak ez dau bere neurrian baliatzen Jesukristorengandiko salbamena, ezta Espirituaren eragina be.

« ... hambat non-ere bere burua hetaric priuatzan baitu, aleguia hura iragan ahal, harc Iesus Christ eta haren gratiá menospreciatzé bailitu, eta Spiritu saindua iraunguiten» (C 52; aditu baita 61. orr. be).

Ganera, zindotzerakoan aukeratuari emon izan jakon sinismena sendotzeko jarri izan ditu sakramentuak Jainkoak.

«Ezta asco fedea gutan behin hassia den solament, baina haci eta entretenitu-ere behar du, gueotic guerora augmenta dadinçat. Bada, haren hartzeco fortificatzeco eta augmentatzeco, launac emaiten drauzquigu Sacramenduac» (C 53).

Sakramentuak ez dabelako zentzunik sinismen barik hartzen badira. Sinismena izatea beharrezko baldintza da sakramentua hartzerakoan.

«M. Cer moldez bada eta noiz Sacramênduéc eguiazqui obratzen eta executatzen dute bere propietatea?

H. Federequin recebitzen ditugunean, hetan Iesus Christen eta haren gratiaren bilha gabiltzalarik» (C 52).

• **Bateoa**

Bateoa zer dan zehazterakoan, hiru atal euki behar dira kontuan:

- a. *«representatzen drauan gure pekatuén barkamendua» (C 54) «bere Spiritu Sainduaz» (FSA 35).*
- b. *«eta gure regenerationea, edo spirituzco arranberritzea» (C 54).*
- d. *«sacramendu hunez Eliçaco eguiten gara» (ABC 45) edo «Gratia haur guziaz eguiten çaiçquigu Baptismoaz bere Eliçaco membro eguiten gaiuenean» (FSA).*

Hona hemen bateoaren zehazketa bat, beste batzuren artean, hiru atalok, batera edo bestera, kontuan dirala:

«Baptismoa da Sacramentubat, ceinetan laincoak testificatzen baitraucu uraz, ecen Iesus Christen odolean gure bekatuac ikuci nahi drauzquigula, eta bere Spiritu sainduaz regeneratu nahi gaituala: ea Sacramendu hunez Eliçaco eguiten gara, Iesus Christen membra eguin gaitecençat» (ABC 44-45; ba da orrialdeotan beste zeazketa bat be. Aditu baita OEF 16. orr. be).

Barriztapenaren izatea Jesukristoren heriotza ta berbizkundetik disuri.

«*M. Regenerationeac nondic hartzen du verthutea?*

H. Iesus Christen heriotic eta resurrectionetic, ecen haren herioac du haelao verthutea, non gure Adam çaharra crucificatzen baita, eta gure natura vitiosoa ohortizê deçala baita, gutan regnatzeco guehiago bothereric ez-tuençat. Eta vicitzearen arramberritzea, resurrectionetic heldu da, laincoaren iustitiari garreitzançat» (G 55).

Pekatuak parkatzen eta barriztatua izateak ez dau esan nahi gure izatea aldatua danik. Ez. Kalbindarrentzat Jainkoak semetzat hartu dituala aukeratuak adierazo nahi dau guzti honek; zindotu egiten dituala. Honeek egindakoa hor dago, baina Jainkoak ez dau kontuan hartzen, ezereztu be egiten ez dauan arren. Aukeratuak, beraz, lehengoak dira; Jainkoak euren gana dauan begirunea baino ez da aldatu.

• **Umeen bateoa**

Arterago esandako guztia bada bateoa, zer esan daikegu umeen bateoari buruz? Hasiera baten, Luterori jarraituz, euren ganatutako sinismena dabela-ta, bateatuak izan daitezkeza umeak esaten eban Kalbinek. 1539.tik, barriz, ez dau bardin pentsatzen. Umeak bateatuak izan behar dira, baina ez lehenago aurkezten eban arrazoiagaitik. Itun Zaharrean erdaintzuntzea zanaren parekotzat jotzen dau bateoa, hau da, herria ta Jainkoaren arteko itunaren ikurra¹. Bigarren arrazoiaketa hau agertzen da Leizarragak euskeratutako idaztietan (OEF 17). Arrazoi berbera dabe Itun Zaharrean erdaintzuntzeak eta gaurko umeen bateoak, «ecen laincoak Israeleco populuari lehenago aguin cerautzan promes berac, dirade orain mundu orotara çabalduac eta publicatuac» (C 56).

Baina ba da baldintza bat umeak bateatuak izan daitezkan: euren gurasoak zindotuak edo zintzoak izan daitezka.

«*laincoaren benedectioe fidelén generationeari promettatu içan çayenaren heredero diradela signaletan eta testimoniagetan: adinetara eta eçagutzetara datocanean, Baptismoaren eguiá eta verthutea, bere probetchua eguin deçaqueten beçala, eçagut deçatençat» (G 56; aditu baita FSA 35).*

Hemen ez dogu aztertuko, baina ohargarria da OEFn bateoari buruz berbetan dagoala zelako arrazoiak jartzen dauan Leizarragak gaiari jagokona entzuten dagozanak «aditzen duten lengoagez» ipinteko (OEF 20).

Gaur, ospatzeko bizi egin behar dala ta biziteko aditu, esango geunke.

• «**Cena**»

Kalbindarrentzat 'cena' zer dan nahiko argi zehazten dau Leizarragak:

¹ Aditu EE EE *Ibidem* 117-118 orr.

«Iesus Christ gure launac hura ordenatu ukan du, gu iracats eta segura guençançat, ecen arimác hartzen diradela, vicitze eternalaren sperançatan» (C 57; aditu baita ABC 45 be).

‘Cena’ zer zan argi baegoan, ogi ta ardautan ia Jesus zanentz itauntzen zan eztabaidatsu XVI. gizaldian. Zwinglioren aurka, ogia ta ardaua ez dirala ikur huts batzuk esango eban Kalbinek. Jaunak agindutakoan kide gara ‘cenan’. ‘Eguiazqui’ hartzen dogu parte Jesukristoren heriotza ta biztueran, ‘spiritualqui’.

«Lehenic bada sihnets ditzagun, Iesus Christec berac Eguia bakoitz, falta ecin daitenac, bere ahotic eguin drauzquigun promessac, baitirade ecen bere gorputzeâ eta odolean eguiazqui participant eguin nahi gaituela complituqui hura posedi deçagunçat, hala non hura gutan bici den eta gu hartan. Eta guc aguia eta mahatsardoa baicen ez ikusteanagaitic, ezteçagula duda, eztuela spiritualqui gure arimetan complitzen ezteriorqui eta campotic signo visible hauçaz eracusten draucum gucia, baita, ecenhura dela agui celestiala vicitze eternalecotzât, gure arimén hatzeco eta bazatzeco» (OEF 23; C 59).

Guzti hau, Espiritu miragarri ta ulertezinaren egitez izan ohi da (C 59). Indar berzea dau Espirituak kalbindarren pentsabidean.

Luteroren aurrez-aurre, ostera, Jesus ez dala ogi ta ardautan esango dau Kalbinek. Ardaia ta ogia ezin dira Jesusen gorputz eta odol izan Kalbinen eritxiz. Lehenengoz, Jesus zeruan datako (C 59) —Zwingliok be aurkezten eban arrazoi hau— eta bigarrenez, ogia ta ardaua us telkorrak diralako ta Jesukristoren gorputza ta odola ez.

«M. Beraz hic eztuc aditzen gorputza aguiari barna dela, ez odola mahatsardoan?»

H. Ez: baina aitzitic cõtrarioa, baldinsignoén eguiáz Sacramenduan gauditu nahi bagara, goiti cerura gure bihotzac altchatu behar ditugu, non baita Iesus Christ bere Aitaren glorián, eta nondic ethorteco baita, beguira-ere gauden deçala, gure redemptionetan: eta alfer bilha ahalgeneçaque element corruptible hautan.

M. Beraz hic aditzen duc ecen Sacramendu huetan bi gauça diradela: ogui eta mahatsardomaterial ikustê; hunquitzen eta goçatzen ditugunac: eta Iesus Christ launa, ceinez gure arimác interiorqui hatzen baitirade.

H. Eguia da: etare hambatetarano non gure gorputzén resurrectionea-ere hartan, quasi erresac emanic beçala, confirmatzen baitzaicu: hec vicitzeco signoan participant eguiten diraden becembatean» (C 59-60); OEF 24).

‘Cena’ri buruz esandakoa laburpen modura ederto adierazota aurkitu daitegu FSA 18.

Kalbindarrentzat, protestante guztientzat lez, sakramentu bi baino ez dagoz: Batea eta eukaristia.

Interesgarria gertatzen da, barriz, OFM idaztia irakurtea; bitxikeri ederrak aurkitu daiteguz bertan sakramentuei ta beste gai batzuei buruz. Adibidez: ‘Confessionea’ —garrantzi handia emoten deusie kalbin-

darrek honeri, nahiz eta sakramentutzat hartu ez—; ‘ezconça’ ta ‘erien visita’ zelan egin behar diran; zertan datzazan kalbindarrek Erromako Eleizearen aurka dituen arrazoi batzuk; e.a.

2.4. «Eleiçeáz»

Garrantzi handia dauka Eleizeak kalbindarrentzat. Bateoa aztertzerakoan be aitatzen gendun hau¹. Sarritan aurkitzen ditugu gainera Eleizearen aldeko otoitzak Leizarragaren lanotan (ABC 27; OEF 4.14). Goiazan ba, kalbindarrentzat Eleizea zer zan zertxobait gehiago azaltzera.

• **Zer dan Eleizea**

Kalbindarren ustetan era bitara ulertu daiteke Eleizea:

1. Jainkoan aukeratuak eta Jesusen Espirituaz barrizatuak izan diranak osotzen daben alkarte.

«Hura da, laincoac vieitze eternaleco ordenatu eta elegitu dituen fidelén compainiá» (C 15).

«Batzutan icenhaur hartzen da solament elegituacgatic, cein lesus Christen amorez laincoaren haourretan adoptatu eta haren Spirituaz regeneratu içan baitira: eta Eliça haur eztu laincoacberac baicen eçagutzen, ceren ez-paita hunetan harc bere haourretan aboatzen duenic baicen» (ABC 38-39).

Honetara adituric, ikustezina izango litzateke Eleizea, Jainkoak baino ez dakialako nortzuk diran salbatuak edo aukeratuak (C 16). Jesukristoren heriotzea ta berbizkudearen ondorengo izango litzateke alkarte hau.

2. *«Eta batzutan Eliçaren icen hunez generalqui aditzen dira, campoco maneraz laincoarê cerbitzatzez, eta lesus Christen rece bitzez, bayeta laincoaren hitzaren ençutez eta Sacramenduen administratzez irudi eta profesione eguiten dután guciae: eta Eliça haur guiçonéc-ere eçagutzen dué: eta hunetan hypoeritaric-ere bada onequin nahasteca» (ABC 39. FSA 27).*

Ikusgarria dan Eleizea litzateke holan izanik. Guzurretan dabilanik be izan daiteke Eleiza honetan. Kalbindarrek deritxenez, bigarren eraz aditzen dan Eleiza horretako guztiak ez legokez salbatuta (aukeratuta), baina, era berean, ezta Eleiza horretatik at dagoanik be, hau da, *«extra ecclesiam nulla salus»*.

«M. Beraz Eliçatic campoan ecin datec damnationeric eta herioric baicen.

H. Segura da hori: ecen fidelén communionetic separatzen diradenéc apart secta daguitençat, eztute saluatu içateco sperançaric ukaiteco, separationetan dirateno» (C 17).

Eta honek ba dau izaterik kalbindarren pentsabideaz: Salbatuak nortzuk diran ez badakigu be, salbatuak diranak kanpoaz agertu egin behar dabela badakigu behintzat.

¹ Aditu 29 orr.

- **«Discipliná»**

Luterorentzat bakarkorra da sinismena: Jainkoaren eta gizasemearen artean zuzenean dan hartu-emona. Kalbinentzat, ostera, neba-arreben beharrezana dau notinak sinismena bizi daian, beharrezko dau kanpotik jarritako jarraibide bat: 'Discipliná'.

«Eta ceren mundu honetan ezpaicara gauditzen Iesus Christen presentiaz Euangelioaren moienez baicen, guc dugu sinhesten ecen haren autoritatez Eliçan ordenatu eta iarri içan den discipliná sainduqui eta fermuqui beguiratu behar dela» (FSA 25).

«Gue dugu bada sinhesten ecen nehor eztela bere gain appartatzeco, ez bere manera bereci batez contétatzeco, baina guciéc elkarrequin behar dugula beguiratu eta entretenitu Eliçaren unitatea eta battassuna instructione aommunera eta Iesus Christen uztarrira submettitzen garelaric ...» (FSA 26).

Nabaria da honetan Lutero ta Kalbinen arteko ezbardintasuna. Lutero ez leuke inondik inora onartuko 'discipliná'rik. Kalbinentzat, bestalde, Hitza alkartean baino ezin da ulertu (C 50).

Seriotasunez oratzen deusie kalbindarrek eleizkide izateari: Eleizatik jaurtia izan daiteke behar dan moduan ez dabilana.

«Excommunicatíonea da, Eliçaz edo consistorioaz legitimoqui pronútiatzen den sententiabat, ceinez Eliçaco direla professione eguiten duten hereticoac, edo scandaloso gaichtoac eta desobedientac trencatzen eta iraizten baitira Christen comunioneac, eta hunen señaletan Sacramenduén participationetic halacoac excluditzen eta kencen dira: eta principalqui Cenatic» (ABC. FSA 32.33 be aditu).

- **«Ministréc»**

'Discipliná' horren ardurea dabenak dagoz Eleizan: 'Ministréc'. Ez daiala inork uste izan honeek barik Eleizeak aurrerantzean iraun daitekenik; Jainkoak berak jarriak izan diralako eurok (ABC 33; C 14).

'Ministre' ezin daiteke edonor izan, ezta edozelan ibili be; erakutsi egin behar dau 'ministre' danak zeregin horretarako aukeratua izan dala (FSA 31). Eta honetarako, Jainkoaren «Ministre fidel eta leyal eriden ditecençat» otoitz egiten dau Eleizeak (OEF 3.14.)

Lau eratako zerbitzuak dira kalbindar Eleizean: Artzainarena, jakitunarena, adinekoarena ta diakonoarena. Leizarragak itzulitako idaztietan hiru baino ez dira aitatzen: Jakitunak ezik besteak (FSA 29).

Hurrengo honeek litzatekez 'ministre'i jagokezan zereginik behinenak:

—Hitzaren arabera (ABC 33) *«populoaren iracasteco eta instruitzeco» (C 51).*

—«Hitza predicatu» (ABC 33.43).

— «*Sacramentuac administratu*» (ABC 33.43).

— «*Eliçaco cargu ta governu*» (ABC 43).

'Gloriaren ministre' (OEF 14) dira ta holan diranaren arabera jokatatu behar dabe. Aproposko garrantzia dabe ikusgarria dan Eleizan 'ministréc'. Eurena da aukeratuak santutzeko eta gaiztetsiak Jainkoaren legepean ibili daitezaren ardurea.

'Ministre'i buruz berbetan dagoanean, artzaina dauala bereziki gogotan Leizarragak uste izan geinke, zihur asko, besterik zehazten ez dauan bitartean. Artzaina litzateke ardurarik handiena eukiko leukena, bera dalako toki bakoitxeko Eleizako buru. Ez dago beste agintaritarik bere gainetik, Jesukristorena izan ezik; baina berak be ezin daike beste Eleizaren baten 'agindu'.

«Guc dugu sinhesten ecen eguiazco Pastor oro, nôere baitirade, bere officioarê exercitatzeaz den becembatean, ecin bere lekuetan authritatez eta puissançaz bardin diradela, Buru bakoitz batê azpico diradelaric, ceinbaita Iesus Christ launa hunegatic, ecen eceinere Eliçac eztuela dominationeric ez iurgoaric usurpatzeco berce Eliçaren gainean» (FSA 30).

• **«Consistorioaz, edo Senatu Ecclesiasticoaz»**

Kalbinek Eleizari buruz izan eban ulerkerea aztertzerakoan, Eleizearen ardurea dauken batzorde bi dagozala esaten gendun¹. Leizarragaren lanotan bat baino ez dogu aurkitu izan guk: «Consistorio edo Senatu Ecclesiasticoa». Batzorde honena zan lanik latzena: Hesia igaro dabenak epaitzea ta bidetik ibilteko agintzea.

«Consistorioa edo Sena tu Eeelesiasticoa da, Eliçacoéz eguiten diren gaizquién eta seandaloén gainean Ministrequin gogoa dutençat eta Eliça gueiaren icenean Eliçaco beharguiéz eta eguitecoéz iugea eta ordena deçatençat, legitimoqui deithu eta iarri içan direnén compainiá eta biltzarrea» (ABC44).

Arterago esan dogunez, batzorde hau arduratzen zan «excommunicationeaz» (ABC 45).

2.5. Herri-agintarien zeregina

Zeru ta lurrak, guztiak dira Jainkoaren aintzarako. Hau da, dagoeneko behin baino gehiagotan aitatu dogunez, protestantismo barrizatuaren pentsabide ardatza. Holan dala, Eleizako buruen ez-ezik, herri-agintarien zeregina be hauxe izan behar da: Guztia Jainkoaren aintzarako izana daiten bizikerea eratzea. Herri-arduradunen lana ez da bigarren taulako aginduei jagokena bakarrik, ahalegindu egin behar dira lehenengokoak be bete daitez.

¹ Aditu 10 orr.

« ... eta halacotz magistratuén ezeuan eçarri ukan du ezpatá: ez solamêt haren manamenduetaco bigarren Taularen contra eguiten diraden bekatuén reprimitzeco eta punitzeco, baina lehen Taularen contra eguiten diradenén-ere bay» (FSA 39).

Otoitz egiten da herri-agintarien alde, behar dan lez jokatu daien Espirituak bultzaturik (OEF 3.13).

Aukeratu guztien moduan, herri-agintariak be Jaunak berak jarriak dira.

«Behar da bada, hala ordenatu duenagatic, ez solamêt suffri eta eder-ets deçagun superioréc domina deçaten, baina ohora ditzagun eta reuerentzia-tan eduqui, haren Loctenent eta Officiér beçala, nola eçarri-ere hare baititu halaco cargu lehitimo eta saindu baten exereitzeco eta gobernatzeco» (FSA 39).

Arrazoikaitik, eurengandik datozen aginduak bete egin behar dira, Jainkoaren aintzarako ta Eleizearen sendotzarako diralako (FSA 39).

Labur-laburrean esanik, hauxe litzateke herri-agintarien zeregina:

«Magistratuac dira politica temporalaren gobernamendua dutençát ordenatuac: eta laincoac nahidu hec dirén puissançaz furnituac eta goarnituac, haren gloriaren eta Eliçaren mantenitzeco, hoguen-gabén defendatzeco eta hoguêdunén gaztigatzeco, bortcha guciaren reprimitzeco eta iustitiaren administrazeco, nori berea valia daquioçát» (ABC 45-46).

Honeri lotu gatzakozala, ba da pentsagarri dan zerbait. Ginebran, Kalbinen eritxiak eurak hartu izan ziran herrigintza arloetan be. Holan bada, teokrazia modukoa zan: herrigintza sinismenaren arabera egiten zan. Euskal Iparraldean, ostera, —Frantzia osoan gertatzen zan antzera—, euren asmoak beteteko erabili izan eben erlijioa herri-agintariak, itxuraz. Horra hor Albreteko Joneren jokabidea. Gehiago aztertu beharko litzateke gai hau, baina ez dogu uste okerreko bidetik gabiltzanik.

Hementxe emongo dogu amaitutzat euskal protestantismo barrizatuari buruzko gure oharketa lan hau. Aitatua behintzat, egongo litzateke Leizarragaren itzulpen idaztietan azaltzen diran gairik nagusienak. Ha-ta guztiz be, ba dira hain garrantzitsuak izan ez arren, noizbait zabalago oharatu beharreko beste zenbait gai: «Confessio» edo «penitentzia»; «sola Scriptura» ta honen eragina —guri jagokunean batez be— Leizarragak egin eban Itun Barriaren itzulpenean; irudien gurutetari buruzko eritxiak: e.a.

Esanak esan, ba da oraindik aidean gelditzen jakun kezka edo arazo bat: Noraino bereganatu izan ebazan herri xeheak idaztietan aurkezten diran edukinok? Ez goaz, gaurkoan behintzat, gai hau oratzera.

BIBLIOGRAFIA

- AKESOLO, LINO. *Joannes Leizarraga. Testamentu Berriaren Leenengo euskeratzailea*. Jaunaren Deia 33 (19705271-285).
- ALGERMISSEN, KONRAD. *Iglesia Católica y Confesiones Cristianas*. Madrid. Rialp. 1984. 845-866. orr.
- EE.EE. *Euskal Herriko Atlas*. Donostia. Erein, 1984.
- EE.EE. *2000 Años de Cristianismo. La aventura cristiana. entre el pasado y el futuro*. Madrid. Sedmay (Société D'Histoire Chrétienne), 1979. V. idaztia. 102-163. orr.
- ESTORNES LASA, B. - ESTORNES ZUBIZARRETA, IDOIA. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Literatura I. San Sebastián, Ed. Auñamendi, 1969.89-90 eta 149-154. orr.
- KINTANA, XABIER. Hitz aurrea, in LEIZARRAGA. JOANNES. *Euskal protestantismoa zer den. Gabriel Arestik tajutua*. Lur Editoriala, *Hastapenak* 4. Donostia 1979.
- LEIZARRAGA, JOANNES. *Euskal Klasikoak* 18. (3. atala). Donostia. Hordago, 1979.
- MITXELENA, LUIS. *Historia de la Literatura Vasca*. Madrid, Minotauro, 1960. 48-51. orr.
- ONAINDIA, SANTI. *Euskal Literatura*. Bilbao, Etor, 1972. 99-108. orr.
- VILLASANTE, LUIS. *Historia de la Literatura Vasca*. (2.^a edición. Revisada y completada). Aranzazu, 1979, 55-60. orr.
- ZABALA, ENRIKE. *Euskal alfabetatzeko literatura*. Lazkao, PAX, 1981.47-59. orr.
- Joannes Leizarragari buruzko bibliografia gehiago nahi izan ezker, hemen aitaturiko Mitxelenaren (23.55. orr.), Onaindiaren (108 orr.) eta Villasantaren (55-56. orr.) lanak aditu.

OHARRA: Lan honek, idazkereari jagokonean, ez dau hemen argitaratzen dan moduan urten izan egilearen lumatik. ENSEIUCARREANen eskariari erantzun gurarik aldatua edo/ta egokitua izan da.

**IZENAK ETA ADJETIBOAK
AUTOMATIKOKI ATERATZEKO
PROGRAMA:**

Bideak eta oztopoak.

Jon Egidazu

NON GAUDEN

Konputabilitatea eta Hizkuntzalaritza, Chomskyk bere teorien onarpena lortu zuenez geroztik, ez dira gaur egun zerikusi gabeko disziplinak, baina Informatikak eta Komunikazioaren inguruko Teoriak Linguistikari oinarri teoriko berri bat zabaldu badio ere, erabilera mailan aurrerapenak beharrezkoak baino urriagoak izan dira.

Zein itzulpen automatikoan,¹ zein ikerketa mailan, emaitza motel eta zatituak baino besterik ez dira eman. Hizkuntzaren irakaskuntzan eta Mintzamenaren ulermen mekanikoan ere² gauzak hobea dira baina ez daude oso ederto.

Eta Euskadin? Ba, programa sakabanatu batzu kenduta ez dugu askorik lortu³: **testu prozesagailuak oraindik ekiditzen ari gara eta FITXATEGIAK** (Mitxelenaren hiztegiarenak, EUSKALTERM bera ere) **eskuraezinezkoak** dira osotasunean eta horrela irauko duela dirudi: ez dirudi Azkue liburutegiko fondoak informatizatuko direnik eta Unibertsitateetan ere ezer gutxi lortu da. Horrela gaude ba, informazioaren hedakuntzan (egilearen eskubideak gordetzen dituen informazio hedakuntzan, noski) sinestu gabe.

LANA

Aspaldiko gogoia zen geurea: nola azter lezakeen **«aztertzaile ideal»⁴ batek testu edo «corpus» bat erizpide formalak bakarrik erabiliz** eta nolako ondorio gramatikalak atera liratekeen. Gogo hori arlo gramatikal irristakorrenetatik ihes eginda euskal morfologiaren eremu seguruenan aplikatuz bete nahi izan dugu. Zein da eremu hori? **ISa**.

IS-an kategoria gramatikala ez dator hiztegiak definituta: «jende gaztea», «herriko gazteak», «gazte hil zen», **hemen funtzio gramatikala**

¹ Itzulpenen laburpen egoki bat aurkeztekotan, atzeratua izan arren, MUNDO CIENTÍFICO aldizkarian, 33.alean, 1.884.eko Otsailean. Ohar bedi irakurlea hor aurkeztutako «Gramatikak» zahar samarrak direla.

² IBM-tarren azken programak aparailuari mintzatzerakoan hitzak bereiztea eskatzen du —halaere badirudi azterketak aurrera doazela, ikus INVESTIGACIÓN Y CIENCIA, 135.alea, 82 eta 84. orrialdeak—.

Badago 3. bat: Canonek IBM-ri prestatua: indartsuagoa dirudi baina astiro mintzaztea eskatzen du. Japoniarren 5. belaunaldi famatuak hor dauka bere helburu nagusiatariko bat. bereziki Japonieraren egitura silabikoa sinplea delako. (Nik neuk, ez dut uste Euskararena konplikatua denik).

³ UEU-ko «Euskal Analizatzaile Morfologikoa» deituak besterik frogatzen ez badu (PROLOG-ean dago eta garantia bat dirudi).

⁴ Chomskyren terminologia imitatuz.

ez digu Hiztegiak ematen, bi ezaugarri nagusi baino: atziki¹ batzu hartzeko edo ez hartzeko ahalmena eta, bereziki, posizioa. Lehena (+MUG) bezela irudiztatu da: bigarrena I +(ADJ) + (ADJ) ordena bezala adieraz genezake.

1. ezaugarria betetzen dutenak **IZENKIAK** del genitzake, eta 2.a-ren arauera **Izenak, Adjetiboak eta** —gehienetan— **Adberbioak** deituko ditugu.

Beraz, programa honetan:

1.a: «Corpus»eko hitza mugatu eta mugagabe agertzen denean, **IZENKIA** da (GERO AZALDUKO DUGU ZERGATIK EZ DEN NAHIKOA MUGATUA IZATEA). **Beraz hitz bati mugatzailea kendu behar zala eta gero bilatu ea testu osoan inoiz mugagabe agertzen den. Hori izanik izenkitzat joko dugu.**

2.a: **izenkia bi zenbakiz definitu ahal da: 2, mugatua bada** (zein izena zein adjetiboa) **eta 1, mugagabea bada** (zein izena zein adjetiboa). **Izenkia ez dena 0-z agertzen da.**

Honela serie batetan:

1A lehen balorea 0 bada aurrera joko dugu ezer egin gabe.

1B lehen balorea 1 edo 2 bada seriea hasiko dugu hitz horri izena dela.

2A hurrengoa 0 izanez beste bat hartuko dugu seriea berriro hasteko.

2B hurrengoa 2 bada adjetiboa izango da baina bere ostekoak beste serie bat sortzen du (1. pausura itzuliz).

2D hurrengoa 1 bada adjetiboa izango da (erregela hau errekurtsiboa da: artikuluak markatzen jarraituko du).

¹ Atzizkibide ala deklinabidea den Euskal Hizkuntzalantzan eztabaida zaharra da (ematen du ahaztu zaigula Latinaren deklinabidea aldaketa fonetiko historiko batzuren ondorio besterik ez dela) Mugatzaile hitza erosoagoa litzateke baina gure kasuan behintzat. Mugatzaile autonomoek hiztegi berezi bat eskatu dute eta ezin izan ditugu berdindu.

Adib:

mutila	da	baina	etxeko	lan	zikin	guztiak	egiten	ditu
2	0	0	2	1	1	2	0	0
i	e	e	i	i	a	a	e	e

serieak

1.a

2.a

3.a

Kontuz! «etxeko» guk izentzat hartu dugu, ez legoke arazo askorik subrutina bat egiteko izig. izendatzeko.

Bestaldetik «gazte hil» bezalako kateetan gazte izena izango da guretzat (gogoratu «Peru hil da» eta horrelakoak).

Ikusten denez, prozesaketa guztiz sekuentziala da, eta ez du hiztegirik behar (hiztunen entzutea ere sekuentziala da baina hor hiztegi bat badago, dudarik gabe —ikus beranduago bela/bele buruzko oharra—).

AKATSAK:

2. faseko Adberbioena eta Izenlagunena aipatuta dago.

Antzeko arazoa dago **IS hasierako Predeterminanteekin: hauek izen-izenorde bezala jokatzen dute («bostak») baina ez dute I - (ADJ) - (ADJ) - (MUG) errenkada jarraitzen, errenkada hau aplikatuz gero izen bezala gelditzen dira, hori txuliatzeko hiztegi laguntzaile berezi bat sartu behar izan dugu.**

IS amaierako mugatzaile independienteak guk terminologia klasikoaz definitu ditugu, hau da, **adjetibo** bezala; halaere **hauek ere paradigma hertsu bat osatzen dute** eta nahi izanez gero beste era batez sailkatu ahal dira.

ARAZORIK LARRIENA 1. pausuan gertatzen da: Batzutan deklinabide atzizkia eta hitz baten amaiera isomorfoak dira: bertsolari, etxeari, ARI kasu bietan atzizkitzat jo ezkeru *bertsol aterako ge-

nuke¹, **berdin junturekin**: etxeke eta laneko. **HORREXEGAITIK jarri dugu lehen aipatu dugun baldintza: izenkia mugatuta eta mugagabe agertu behar da**: *lane ezin da agertu, betaz ez dugu haintzakotzat hartuko. Beraz lehen arauan zehaztasun bat sartu beharko da: **ez dira fitxategietan deklinabide atzizkiak bakarrik sartuko, juntura ta atzizkia baino eta gainera matriz laguntzaile bat ere bai**: esate baterako
 -ean eta **0**
 e

Atzizkiak kentzean matrizen elemenduak gehituko dizkiogu, 0 balego, lehengo hori sartuz:

Adib: Testutik «lanean» harturik:

1. pausua: lanean ---> lan
2. pausua: lan + o
3. pausua: lan testuko beste hitzekin gonbaratu, inoiz agertzen bada —era mugagabea, noski— izenkia da.

Testutik «etxean» harturik:

1. pausua: etxean ---> *etx
2. pausua: etx + o
3. pausua: *etx testuko beste hitzekin gonbaratu, inoiz ez denez agertuko, ez da izenkia.
4. pausua: etx + e:
5. pausua: etxe testuko beste hitzekin gonbaratu, inoiz agertuz gero² izenkia da.

¹ Problema hori, inoiz esistitu ez diren formena, oso bizia da hizkuntzan (gogoratu bele/bela, gauza/gauz, e.a.); gure programaren kasuan are gehiago hiztegi laguntzailerik ez dugunez.

² Gonbaraketaz baliatzen garelako. «corpus»a zenbat eta haundagoa izan, orduan eta finagoa gure lana.

Beste arazo nagusi bat: Atzizkian fitxerotik sekuentzialki hartu behar dira: luzeenetik laburrenera: adib:

atzizkia	hitza
an	lanean --> *lane
ean	

Ostera:

atzizkia	hitza
ean	lanean --> lan: esistitzen den forma
an	lanean --> *lane

BAKARRIK baldintza biok, «junturen matrizen» eta sekuentzialitatearena errespetatuz eraiki ahal izan dugu programa. BADIRUDI ARAZOEZ inor ez dela arduratu zeren **ez daukagu D eredu-tan hain beharrezkoa den testu prozesagailuentzako ORTOGRAFIA ZUZENTZAILERIK** —*horrelako bat sortzeko aski da hiztegi laguntzaile batekin gonbaratzea, testu bereko beste hitzekin egin beharrea*— software konpainia guztiek BETI AGINDUA baina, dirudienez, inoiz ere ez amaitua.

Gu «*ad hoc*» egindako programa bat egiteko asmoa ere eduki dugu baina, EZIN IZAN DUGUNEZ HIZTEGIRIK LORTU, ez diogu aurre egin.

ERANSKINA

Programaren ezaugarri batzu:

Bi bertsio daude, biok turbo Pascalean.

1.a. BATUAZKOA

Bi disketerazko PC-entzat
Fitxategi hauek behar ditu:

IDADBATO.HIZ (programa bera), (HIZ0 diskettea);
 AZKENATZO.DAT(fitxategia), (HIZ0 diskettea);
 ZENBATZO.DAT(fitxategia), (HIZ0 diskettea);
 PREDETO.DAT(fitxategia), (HIZ0 diskettea);
 AZKENO.DAT(fitxategia), (HIZ0 diskettea);

Barianteak ere egin daitezke, diskette eta diska gogrrarekin jokatuz fitxategiak, testuak eta ondorioak gordetzeko.

2.a. BIZKAIERA DIAKRONIKOZKOA

Diska gogordun PC-entzat
 Fitxategi hauek behar ditu:

IDAJB1.HIZ (programa bera), (HIZ2 diskettea);
 ZENBATZ.DAT(fitxategia), (HIZ2 diskettea);
 PREDET.DAT(fitxategia), (HIZ2 diskettea);
 AZKEN.DAT(fitxategia), (HIZ2 diskettea);
 ATZ1OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ2OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ3OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ4OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ5OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ6OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ7OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ8OS.DAT(fitxategia); (HIZ1 diskettea);
 ATZ9OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ10OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ11OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);
 ATZ12OS.DAT(fitxategia), (HIZ1 diskettea);

Programak, bi bertsioetan, fitxategi hauek sortzen ditu (B: edo C: disketetan) :

(testuaren izena).zat: aztertu nahi den testuaren kopia zatitua (amaieran berratu ahal da).

(testuaren izena).err: aztertu nahi den testuaren kopia zatituaren bikoiztua (amaieran berratu ahal da).

(testuaren izena).pro: prozesatzeko hitzak eta 0, 1, 2 ezaugarriak gordetzen ditu (berratu ahal da azkenean).

(testuaren izena).e: FITXATEGI FINALA, gorde behar dena:

Fitxategi honetan hitz bakoitzak bere erregistroa dauka, eta erregistroak arlo hauetan zatitu dira:

- 1.a: HITZA: hitzaren forma ITIJgagabea (30 karaktere);
- 2.a: FORMA: hitza testuan agertzen den eran (30 karaktere honek ere);
- 3.a: Segurtasuna: «+»: segurtasun osoa, «?»: zalantza (bi karaktere).
- 4.a: Nortasuna: karaktere bat: «i»: izena; «a»: adjetiboa; «e»: izenkia ez dena.



